


Eusko Jaurlaritzak,
2017-2020 Legegintzaldian,
**giza eskubideen eta
bizikidetzaren**
arloan sortutako
dokumentuen bilduma



1. Proiektu orokorra
2. Iragana argitzea
3. Biktimak
4. Memoria
5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza
7. Erlijio-aniztasuna

8. Asiloa eta migrazio zaurgarria

9. Nazioarterako ekarpena
10. Eranskina. ETAren armagabetzea eta desagitea

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Idazkaritza Nagusia

2020ko uztaila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

Bilduma honen aurkezpen orokorra.	4
Liburu honen aurkezpena.	6
1. dokumentua. Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa.	9
2. dokumentua. Migrazio-erronka berriei erantzun integrala emateko Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren egokitzapena.	37
3. dokumentua. Share Proposamena.	51
4. dokumentua. 2019 Kontingentzia-plana, Euskadira iristen diren iragaitzazko migratzaileei laguntza humanitarioa emateko.	59
5. dokumentua. Euskarri Estrategia.	73
6. dokumentua. Migraziorako Euskal Itun Soziala.	105
7. dokumentua. Bi esperientzia pilotu: Auzolana I eta Auzolana II.	113
8. dokumentua. Asiloaren eta migrazio zaurgarriaren arloan Legegintzaldiko jardunen balantzea.	141

Bilduma honen aurkezpen orokorra

2011ko urriaren 20an, IX. Legegintzaldiko (2008-2012) azken urtean, ETAK “jarduera armatuaren behin betiko amaiera” iragarri zuen. Urtebete geroago, hauteskunde autonomikoak egin ziren eta Iñigo Urkullu Renteria buru zuen lehen gobernuari bide eman zioten (X. Legegintzaldia: 2012-2016). Hamarkaden ondoren lehen aldiz, euskal politikak eta gizarteak indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabeko Legealdiari ekin zioten.

Une hartan, Lehendakariak hartutako lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzari atxikia eta haren mende zuzenean. Helburu nagusia indarkeriaren amaiera ordenatua lortzen laguntzea eta *Gizartea Elkartzea* zen.

2016ko irailaren 25ean izan ziren berriro EAEko hauteskundeak. Urte hartako urriaren 20an, Eusko Legebiltzarrak hasiera eman zion XI. Legegintzaldiari (2016-2020). 2016ko azaroaren 23an, Iñigo Urkullu Renteria izendatu zuten Lehendakari, bigarren agintaldian.

Aurreko Legegintzaldiko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Lehendakariak egitura horri eutsi zion, baina aldaketa batzuk eginda izenari eta funtzioei dagokienez. Horrela, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia izena hartu zuen. Hirugarren esparru hori sartu zuen, *lankidetzarena*, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia haren barruan sartu zelako. Idazkaritza horri atxikita geratu zen, halaber, errefuxiatuen krisi humanitarioari eman beharreko erantzunaren koordinazioa.

Horrela, XI. Legegintzaldian Idazkaritzak bere barne-egituran Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza izan ditu.

XI. Legegintzaldian, aurrekoan bezala, Idazkaritzak Legegintzaldiko plan estrategiko bat izan du: 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. *Gogora* Institutuak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sail-plan mailako bi jardueraprogramaren bidez antolatu dute beren egitekoa.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko apirilaren 4an aurkeztu zen, eta urte bereko urriaren 10ean onartu zen behin betiko. Aurreikuspenetatik 16 ekimen eta horietatik eratorritako programa eta jarduerak ugari ateratu dira.

Liburu-bilduma honek hamar liburutan biltzen ditu 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenaren esparruan Legegintzaldi honetan sortutako dokumentu nagusiak. Horien egitura, izenburuak kontuan hartuta, honako hau da: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, (7) Erlijio-aniztasuna eta (8) Asilo eta migrazio zaurgarria, (9) Nazioarteko ekarpena, eta (10) Eranskina: ETaren armatzea eta desagitea.

Zortzigarren liburu honetan, errefuxiatuek eta migratzaile zaurgarriek dituzten premiei erantzuteko jarduerari buruzko dokumentuak daude.

Giza eskubideen agenda Covid-19aren ostean

2016an amaitu zen Legegintzaldiaren eta 2020an amaitu denaren artean, beste aldaketa esanguratsu bat egon zen Eusko Jaurlaritzaren arlo horren izendapenarekin lotuta, baina kontzeptuzko funts garrantzitsu batekin. “Bakearen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatetik “giza eskubideen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatera igaro zen. Aldaketa horren atzean 2016aren amaieran adierazitako egoeraren diagnostiko hau zegoen:

“Bakea, terrorismoak eta indarkeriak markatutako garai baten amaierari lotua, atzean geratzen ari zen agenda gisa ikusten zen sozialki. Egiteke zegoen agenda bat zen, iraganari lotua. Giza eskubideekin lotutako bizikidetzaren formulazioa, egiteke zeuden erronkak ahaztu gabe, mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratutako baten erronketara hobeto egokitzea zen. Giza eskubideen eta orainari eta etorkizunari lotutako bizikidetzaren agenda azaleratu zen”.

Diagnostiko hura zehatza izan zen. Euskal XI. Legegintzaldiko denbora, arlo horretan, funtsezko bi egitate-ren ondorioz igaroko da historiara:

- Alde batetik, ETAre armagabetzea 2017ko apirilaren 8an, eta behin betiko desegitea 2018ko maiatzaren 3an. Hori guztia iraganaren ondorio eta zeinu anakroniko gisa; izan ere, bidegabea izateaz gain, onartezina eta jasanezina zen gure garaiko euskal eta europar gizartean.
- Bestalde, euskal gizartean giza eskubideekin, berdintasunarekin, justiziarekin, ingurumenarekin, migrazioekin, errefuxiatuekin, askatasunarekin eta abarrekin lotutako kezka eta ezinegon sozialen agenda berri bat finkatzea.

2020an, ETAre amaierari lotutako egiteke dauden zereginen agenda bat geratzen da, batez ere hiru eremutan: biktimen arloko politika publikoak, memoriari eta ETari buruzko hausnarketa kritiko eta partekatua, eta adostasuneko eta bizikidetzarako espetxe-politika.

Dena den, giza eskubideen euskal agenda gero eta gehiago da giza eskubideen agenda globala. Iraganari lotutako tokiko agendatik giza eskubideen agenda globalarekin erabat bat egiteko trantsizioari buruzko hausnarketa horrek XII. Legegintzaldiaren hasiera markatzen du (2020-2024).

Aipatu bezala, 2016ko amaierako diagnostiko hark azpimarratzen zuen beharrezkoa zela “mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratuaren erronketara egokitzea”. Ordura arte ezagututako ezerk ezin zuen hobeto sinbolizatu aldaketa eta ziurgabetasuna, 2020aren hasieran planeta osoan agertu zen Covid-19 pandemiak baino. XI. Legegintzaldia ere historiara pasako da, azken aldia pandemia honen ondorioengatik monopolizatuta egon delako.

Tokiko eta planetako bizipen hark indartu eta berretsi baino ez du egin Euskadin giza eskubideen agenda globala errotzea. Munduaren errealtateari beste begirada bat emateko eskatzea gogoeta kontzeptuala baldin bazen, pandemiaren ondoren errealtatearen agindua da orain. Paradigma-aldaketa baten aurrean gaude, eta oraindik ez dakigu zer irismen eta ondorio dituen.

Galdera berri batzuk eginda daude. Ez, ordea, erantzun guztiak. Idazkaritza honen jarduera-eremuan bi galdera garrantzitsu daude: batetik, nola adieraziko dira giza eskubideen urraketa- eta urrakortasun-modu berriak?; eta, bestetik, nola planteatu beharko dira giza eskubideen defentsarako eta sustapenerako politika publikoak pandemiaren atzean zehaztutako errealtate berrian?

Covid-19ren ondorioei buruzko eztabaida batzuek giza eskubideen balio hierarkikoki gorenaren gaineko lehia sakona iragartzen dute. Iritzi eta eragin globaleko korrante boteretsuek beren balioaren mespretxua defendatzen dute, edo, edozein kasutan, indibidualismo materialista baten ardatz ideologikoari lotutako beste balio batzuen mende egotea.

Ikuspegi ideologiko horrek gutxietsi egiten du komunitatearen zentzua eta guztion ongia “onkeria” antzu eta are kaltegarri gisa bilatzen du, eta zenbait balio lehenesten ditu, hala nola lokalismoa, “salba dadila ahal duena”, segurtasuna, protekzionismoa edo merkatuaren lidergoa, politikaren aurrean, besteak beste.

Giza eskubideen defentsa eta, ondorioz, elkartasun-betebeharra dira datozen hamarkadetako zeregin nagusia. Jokoan duguna da ea munduaren grabitate-zentroak elkartasunaren ardatzera jotzen duen edo, aitzitik, indibidualismoaren ardatzean sakontzen duen, bai herritarren kontzientzian duen proiektzioan, bai tokiko, naziko edo nazioarteko politikaren hainbat eremutan duen islapenean.

Covid-19ren ondoren, are arrazoi gehiagorekin, beharrezkoa izango da elkartasunaren, berdintasunaren, ez baztertzearen eta giza eskubideen tokiko agenda globalean sakontzen jarraitzea. 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak, Eusko Jaurlaritza bere ekintza osoan konprometituta daudenak, abiapuntu bat dira ziklo berri honetan. Horixe da, hain zuzen ere, XI. Legegintzaldia amaitzen eta XII. Legegintzaldia hasten deneko zalantzen eta erreferentzien ikuspegia.

Liburu honen aurkezpena

Elkartasunaren balioa sustatzeak funtzio estrategikoa izan du Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenean. Eremu horretarako aurreikuspen espezifikoak 8. ekimenean jasotzen eta asiloak eta migrazio zaurgarriak markatutako errealitatei erantzutera bideratzen ziren, batez ere. Gaur egun, esparru horretan agertzen dira argien, desberdintasunaren, bazterketaren eta elkartasunaren kontraesanak.

Gerratik edo urritasunetik ihes egiten duten pertsonen pairatzen duten krisi humanitarioa larria da, objektiboa eta lehentasun berezikoa. Egonkortasun-testuinguruetan bizi diren gizartearen kontzientziei eragiten die. Egoeraren larritasuna, lehentasuna eta Europaren erantzunaren datuen eskasia adierazgarria bat datoz puntu batean: erantzun eraginkorra behar da.

Migrazio-mugimenduak Europaren erantzuna behar duten arazoak dira. Hala ere, erantzuna ez da soilik Europakoa, Estatukoa, Euskadikoa, forala eta udal mailakoa ere bada. Globalizazioak, alde batetik; eta bidegabekeriak eta desberdintasunek, bestetik, eskumen-maila guztietan eragiten diguten migrazio-prozesuak sortzen dituzte.

Gaur egun, migrazio-mugimenduen barruan, errealitate desberdinak nahasten dira: errefuxiatuak, asilo-eskatzailak, sistematik kanpo geratzen diren asilo-eskatzailak, aberrigabeak, adingabeak, bakarrik dauden gazte atzerritarrak, iragaitzako migratzaile ekonomikoak edo geratzen direnak, Europako beste herrialde batzuetatik itzultitako migratzaileak, kalteberatasun-egoeretan dauden migratzaileak.

Migrazio-erronka ez dago erronka demografikotik kanpo. Europako gizarteek eta euskal gizarteek, bereziki, etorkinen ekarpenaren behar objektiboa dugu. Gaur egun, munduko herrialderik oparoenak dira migrazio-fluxuak hartzen eta integratzen hobekien jakin dutenak eta kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzak sustatzen hobekien jakin dutenak.

Testuinguru horretan, bere eskumen eta ahalmen mugatuetatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzak errealitate hori eraldatzen lagundu nahi izan du. Aukeren eta eskaintzen ari den erantzunaren hobekuntzaren eremu bat dago. Eusko Jaurlaritzak, apaltasun osoz, baina baita erabakitasun osoz ere, ekarpen eraikitzailea egin nahi izan du, humanismoaren eta europazaletasunaren balioetan duen uste sendoan oinarrituta.

Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa.

2017ko uztaillean, Eusko Jaurlaritzak honako txostena aurkeztu zuen: “Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa”. Zirriborroa urte horretako azaroan berretsi zen lan-esparru koordinatua definitzen laguntzeko helburuarekin. Liburu honetako **1. Dokumentu** gisa aurkezten da.

Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak, 2018ko irailaren 19an, “Migrazio-erronka berriei erantzun integrala emateko Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren egokitzapena” izenekoa aurkeztu zuen (**2. Dokumentua**). Euskadin, Espainiako Estatuan eta Europan dauden migrazio-erronkei erantzuteko proposamenak eskaintzen ditu.

3. Dokumentuak Share Proposamenaren edukia jasotzen du. Eusko Jaurlaritzak Share Proposamena aurkeztu du eta bultzatzen ari da, bai Euskadin eta Estatuan, bai Europan eta baita nazioarteko erakundeetan ere. Edukiak iradokitzen du mekanismo zehatz bat adostea, migrazio-erronka osoaren aurrean erantzukizunaren banaketa partekatua izan dadin. Share Proposamenak ahalegina banatzeko formula hori hiru parametrotan oinarritzen du: aberastasuna (% 50), biztanleria (% 30) eta langabezia-indizea (% 20).

Formula horrek erantzunkidetasun-mekanismo nahiko orekatua ahalbidetu lezake. Share gakoaren aplikazioa, gutxienez, gaikako hiru eremutan proiektatu daiteke zeharka: errefuxiatuak, egoera ahulean dauden migratzaileak eta adingabeak, eta hiru lurralde-eremutan: EBren barruko estatuen artean, Estatu bakoitzeko eskualdeen eta Autonomia Erkidegoen artean, eta Autonomia Erkidego bakoitzeko udalerrien eta eskualdeen artean.

Bilduma hau argitaratu arte, proposamenak Kanariar Uharteetako, Nafarroako, Kataluniako, Melillako, Communauté d'Agglomération Pays Basqueko, Attikako, Nouvelle Aquitaineko eta Euskadiko gobernuen babesa izan du. Vatikanon ere aurkeztu zuen Lehendakariak 2019ko abuztuan egindako bidaian.

Liburu honen **4. Dokumentuak** "Euskadira iristen diren iragaitzazko migratzaileei laguntza humanitaria emateko 2019 Kontingentzia-plana" aurkezten du. 2018ko ekainetik aurrera, Euskadik ustekabeko hazkunde kuantitatibo handi bati aurre egin behar izan zion iragaitzazko migratzaileen etorrerari dagokionez. Andaluziako kostaldetik zetozen eta gehienek Europako beste herrialde batzuetara bidaiatzen jarraitzea zuten helburu. Pertsona horiek arreta humanitaria behar zuten, atsedena, garbitasuna, kasu batzuetan arreta medikoa eta indarrak berritzeko aukera emango ziena. Lehen hilabeteetan, euskal erakundeek, Gurutze Gorriarekin lankidetzan, arreta-zerbitzu egokia inprobisatu behar izan zuten. 2019ra begira eta 2018ko esperientziaren arabera, kontingentzia-plan hau prestatu zen.

Migrazio-fenomenoaren adierazpenik gogorrenetako bat migrazioa helduen laguntzarik gabe egiten duten adingabeei eta gazteei eragiten diena da. Azken 20 urteetan izan duen hazkundea esponentziala izan da, eta litekeena da hurrengoetan hazten jarraitzea. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak sailen eta erakundeen arteko lan-talde bat dinamizatu eta koordinatu zuen, erakunde guztien artean erantzun koordinatua eta lankidetzakoa emateko.

Lan honetatik sortu zen "Erakundeen artean lan egiteko agiria: zer lehentasun dauzkagun, Euskadin adingabeak eta gazte zaurgarriak gizartera eta lanera erakartzeko jardunean", liburu honetako **5. Dokumentu** gisa jasotzen dena. Euskarri Estrategia ez dago adingabe eta gazte migratzaileentzat bakarrik pentsatuta, baina proiektzio garrantzitsua eta espezifiko du haien harrerari eta integrazioari begira. Proposamen hau 2020aren hasieran aurkeztu behar zen, baina apirilaren 5eko hauteskunde-deialdiak, lehenik, eta Covid-19aren pandemiak, gero, ekidin egin zuten jendaurrean aurkeztea. Dokumentuak inplikaturako erakunde guztien ekarpenak eta oniritzia ditu, baina ez zen Legegintzaldia amaitu baino lehen aurkeztu. Legegintzaldi berrian erreferentziazko dokumentu gisa proiektatzen da.

6. Dokumentuak "Migraziorako Euskal Itun Soziala" jasotzen du. Itun hori 2019ko azaroaren 30ean aurkeztu zen, Lehendakaria buru zuen ekitaldi batean, eta euskal erakundeek eta migrazio-fenomenoen inguruan jarduten duten ia gizarte-erakunde guztiek babestu zuten. Itun horrek diskurtso partekatua eta batasun-irudia finkatzen ditu, migrazio-erronkei modu positiboan erantzuteko. Prebentziozko helburua zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, aitzakia xenofoboko populismoen nahiak antzuak izan daitezen. Bere helburu pragmatikoa migrazio-erronkari aurre egitea da, gure gizartearen hazkunde- eta aurrerapen-prozesu baten parte gisa.

7. Dokumentuak Legegintzaldian abian jarri diren "Bi esperientzia pilotu: Auzolana I eta Auzolana II" islatzen ditu, eta, besteak beste, Espainiako Gobernuarekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dira. Lehenengoaren kasuan (Auzolana I), proposamena inplementatzean ateratako ondorioen dokumentu bat eta hobetzeko gomendio batzuk daude, beste udalerrri batzuetako esperientzia pilotuaren erreplika potentzialei ez ezik, errefuxiatuak edo nazioarteko babesa eskatzen dutenak integratzeko euskal eredu berri bat diseinatzeko oinarri gisa ere balio dutenak.

Bigarren esperientzia pilotua, Auzolana II, babes komunitarioan oinarritutakoa, Euskadin garatzen ari da, Eusko Jaurlaritzak sustatuta eta txosten honetan proiektuaren ildo nagusiak aurkezten dira. 2021. urtearen erdialdera arte egongo da martxan, eta sistematizazioa eta ebaluazioa egiten ari dira, Euskadin nahiz Euskaditik kanpo hedatzeko ikaskuntzak eta proposamenak atera ahal izateko. Babesletza Komunitarioa herritarrek, GKEek edo beste talde batzuek errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko prozesuetan beren burua antolatzea eta zuzenean inplikatzeko da. Horrela, herritarrek elkartu egiten dira eta konpromisoa hartzen dute etxebizitza emateko eta laguntza ekonomikoa, emozionala eta soziala eskaintzeko ezarritako aldi batean, normalean urtebetez.

Azkenik, liburu honetako **8. Dokumentuak** "Asiloaren eta migrazio zaurgarriaren arloan Legegintzaldiko jardunen balantzea" jasotzen du. Dokumentu honek Eusko Jaurlaritzak azken lau urteetan esparru honetan hartutako eta garatutako ahaleginaren eta konpromisoaren dimentsioaren neurria ematen du.





1. dokumentua

Esparru-dokumentua, Eusko
Jaurlaritzarena, modu partekatuan
bideratzeko errefuxiatuek Europako
mugetan bizi duten krisi humanitarioari
ematen zaion erantzun soziala, politikoa,
erakundeartekoa
eta sailartekoa

**Esparru-dokumentua, Eusko
Jaurlaritzarena, modu
partekatuan bideratzeko
errefuxiatuek Europako mugetan
bizi duten krisi humanitarioari
ematen zaion erantzun soziala,
politikoa, erakundeartekoa
eta sailartekoa**



2017ko azaroa

Atarikoa

I. Lehentasuna

Giza eskubideen ikuspuntutik, ez da erraza larritasunaren eta lehentasunen behin betiko eskala ezartzea bidegabekeria-egoera ezberdinen artean. Askotan, milaka kilometrora gertatzen diren berdintasun-gabeziek komunikabideak eta gizartea hunki ditzakete, baina gerta liteke metro gutxira gertatzen ari den larritasun-egoera izugarria ez atzematea.

Distantzia geografikoari dagokionez, gerratik edo pobreziatik ihesean doazenek Mediterraneoan jasaten duten krisi humanitarioa ez dago ez oso hurbil, ez oso urrun. Alabaina, egia esan, larritasun objektiboa eta lehentasun berezia ematen dion osagai-sorta bat biltzen du krisi horrek. Nazioarteko babesaren bila beren herrialdeetatik ihes egiten dutenek gizakiaren bizitzarako eta iraupenerako oso gogorrak diren kolpeak gaineratzen dizkiote beren bizipenari.

Pertsona horietako gehienek gerraren erasoak jasan dituzte, seguru asko senideak edo hurbileko adiskideak galdu dituzte, familiak banandu zaizkie, etxea eta ondasun gehienak galdu dituzte askotan, eta, beste hainbatetan, premia gorriaren, gosearen eta abarren muturreko aldea ezagutu dute.

Orain, ezerezaren erdian daude; sarri, gaizkiletzat hartu dituzte mugetan. Atzerantz begiratzen dutenean, ez daukate jasotzeko ezer, eta, aurrerantz begiratzen dutenean, ez dute itxaropenik. Ezaugarri komun bat dute: beren gorputzak eta ondasun urriek okupatzen duten metro karratu horretan dago beren bizitza osoa. Aurre egin diote gerraren eta indarkeriaren bidegabekeriari; aurre egin diote, eskubiderik gabe aurre egin ere, egoera alegial baten bidegabekeriari, eta aurre egiten diote bazterketaren, pobrezia- eta xenofobiaren mehatxuari.

Gure etxetik oso hurbil, beharbada, erantzunik jasotzen ez duten bidegabekeria larriak gertatzen ari dira oraintxe bertan, baina egoera gutxiak biltzen dute errefuxiatuek jasaten duten adina bidegabekeria-alderdi. Kasu gutxi batzuetan, irimotasun handiagoz eska daiteke elkartasuna. Egoera egonkorretan bizi diren gizarteetako kontzientziei egiten zaie eskaera hori. Elkartasunerako eta giza eskubideetarako erronka estrategikoa dugu parez pare. Erantzutea ezinbestekoa da.

II. Europaren erantzuna

Europar Batasunean eta estatuetako gobernuetan dago krisi honetatik datozen eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak birkokatze eta birlekuratzeko kudeaketaren eskumena. Premia humanitarioa egon arren, krisia sortu eta lehenengo bi urteetan eman den erantzuna zinez etsigarria izan da. Datuak horren adierazle garbiak dira.

Europar Batasunak 182.504 pertsona hartzeko konpromisoa bereganatu zuen, batzuk birkokatuz (Greziatik eta Italiatik etorri eta nazioarteko babesa eskatzen dutenak) eta beste batzuk birlekuratuz (EBtik kanpo –Turkiatik eta Libanotik, batez ere– etorritako asilo-eskatzailleak). 2017ko irailaren 26an (akordioak betetzeko jarritako epea), Europako mugetan harrapatuta zeuden 45.000 pertsona bakarrik hartu ziren. Bestalde, 2016an bakarrik, gerratik eta miseriatik ihesi Mediterraneoan 5.000 pertsona hil zirela uste da; eta, 2017an, 2.000 baino gehiago hil dira jada.

Espainiako Gobernuak 17.337 pertsona hartzeko konpromisoa hartu zuen. Krisia kudeatzen bi urte eman ondoren, 2.000 baino gutxiago dira hartu diren pertsonak. Euskadin, aldi horretan, 375 leku sortu ditugu, zeintzuetatik 500 pertsona baino gehiago igaro diren nazioarteko babesa eskatuz. Horietatik 137 etorri dira birkokatuta edo birlekuratuta. Euskadiko gainerako plazak munduko beste toki batzuetatik heldutako pertsonak hartzeko erabili dira; Espainiako estatura beren kabuz iritsi eta nazioarteko babesa eskatu dutenak hartzeko, hain zuzen ere. 2017ko bukaeran, Euskadin 450 plaza egongo direla zabalik aurreikusten da.

III. Erantzuteko beharra

Egoeraren larritasunak, horren lehentasunak eta Europak eman duen erantzun eskasaren datu adierazgarriek puntu batean egiten dute bat: erantzun efizientea eman behar da. Lehenik eta behin, errefuxiatuen dramari erantzun egokia emate aldera, erantzun horri benetan heltzeko, drama horren konplexutasuna airtortu behar da.

Krisi horri lotutako kausen, ondorioen eta konponbideen efektu poliedriko eta aldeaniztuna da lehenengo oztopoa. Eragina era askotakoa delako adierazgarri gisa daukagu hartu beharreko erabakiak ezin dituztela erakunde batek edo bik hartu, baizik eta hainbat eta hainbat sektore- edo lurralde-mailako agintze-instantziak, zeinek erabaki-ahalmen partziala duten baina, aldi berean, konponbide-prozesuan eragiteko botere itzela duten orokorrean.

Hori dela-eta, hasteko ezinbestekoa da onartzea nahitaezkoa dela elkarlan aldeaniztun aktiboa egotea. Norberekieran oinarritutako interesen aurretik guztien ongian oinarritutako elkartasuna lehenetsi behar dugu. Elkartasun partekatua, baina segurtasuna eta zuhurtzia ahaztu gabe, jakina. Borondateak, elkarrekin konfiantza eta lankidetzatza bilduko dituen giroa sortu behar da ezinbestean.

Testuinguru hori sortzeko, erantzukizun atalen bat duen erakunde bakoitzak egin dezake bere ekarpena, bai elkartasuna erakusteko, baina baita nazioarteko zuzenbidearekiko eta giza eskubideekiko konpromisoa delako ere. Guztioi ezar dakiguke hori: Europar Batasunari edo estatuko gobernuari, gobernu autonomikoei, udalei, alkateei, funtzionarioei, GKEei edo herritarrei.

IV. Euskadiren ekarpena

Eusko Jaurlaritzak ere, bere eskumenak eta ahalmenak baliatuta, elkartze-espíritu horrekin bat egin nahi du, lau lankidetzatza-esparrutan jardunda: Espainiako Gobernuarekin eta Europako erakundeekin; foru- eta toki-erakundeekin; Espainiako gobernuaren harrera-programak kudeatzen dituzten erakundeekin eta boluntarioekin eta gizarte zibil antolatuarekin.

Eskumen-esparruak baldintzatzen du abiapuntua bera. Espainiako estatura iristen diren eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak birkokatze eta horiei lehenengo harrera egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzak ez dauka ahalik zuzenean esku hartzeko. Nazioarteko babesa nahi duten pertsonak estatuaren lurraldean egon arte eta autonomia-erkidego batera edo bestera eramaten dituzten arte, Europar Batasunaren eta estatuaren esku daude erabakiak eta kudeaketa; gure kasuan, Espainiako Gobernuaren esku. Harreran hartutako pertsonak gure lurraldean daudenean hasten dira Euskadiko erakundeak eta entitateak jarduteko tartea edukitzen.

Guztia ez dago gure esku; hala ere, gure esku dagoen guztian, edota Euskadiko erakundeek eta gizarte zibilaren elkarrekin gaitasunen, eskumenen eta nahiaren mende egon daitekeen guztian, egoera horri erantzun osoa eta eraginkorra emateko konpromiso partekatua dago. Hain zuzen ere, horixe lortzeko lan-esparru koordinatua eta partekatua zehazten laguntzea da dokumentu honen xedea.

Guztia gure esku ez egoteak ez du esan nahi errealtatearen ikuspegi etsia onartu behar dugunik, ezta tesi konformistarik onartu behar dugunik ere, ontzat ematen duenik ez dagoela egungo erantzuna ez den bestelako erantzunik. Eusko Jaurlaritzak uste osoa dauka aukera zabala dagoela eta ematen ari den erantzuna hobetzeko tarte handia dagoela.

Nazioarteko eremuan izateko eta ahotza edukitzeko hainbat modu daude. Giza eskubideen eta elkartasunaren arloan proposamenak eginez eta konpromiso zehatzak hartuz errealtatean aurrerapausoak emanda eragiten saiatzea da horietako bat. Gure kasuan, humanismoaren eta europazaletasunaren balioekiko konfiantza sendoan oinarritutako ekarpen eraikitzailea egin nahi du Eusko Jaurlaritzak, apaltasun osoz, baina baita erabakitasunez ere.

Lehen zatia

Oinarriak

1. Bi zutabe

Bi zutabek eusten diote lan-esparru partekatu eta koordinatu horri: konpromiso etikoak eta arauzko konpromisoak. Lehenengoa hautazkoa da, eta bigarrenak betebeharra dakar. Alabaina, txanpon berberaren bi aldeak dira horiek, eta erabakitasun bera irudikatzen dute.

1.1. Konpromiso etikoa

Arlo honetan, beste edozeinetan bezalaxe, politika baten ala beste baten alde egiteak zuzeneko lotura dauka politika hori oinarritzen duen etikarekin. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartzeko politika giza eskubideen balio gorenari lotzen ez bazaio, beste oinarri batzuei lotzen zaie; hots, argi eta garbi adierazita egon ala ez egon, beste balio batzuen nagusitasunarekin bat egiten duten oinarriei lotzen zaie. Lehentasunezko eduki etikoa daukaten bi binomioekin eta oinarritzko printzipio batekin dago lotuta Eusko Jaurlaritzak iradokitzen duen lan-esparru partekatua. Errefuxiatuek jasaten duten krisi humanitariari erantzun solidarioa emateko aukera oinarritzen dute hiru oinarri kontzeptual horiek.

1.1.1. Binomioa: pertsonen duintasuna eta giza eskubideak

Pertsonen duintasunaren ideiaaren formulazioa, kontzeptualizazioa eta edukia dira, seguru asko, gizakiaren historian egin den eraikuntzarik garrantzitsuenak. Hori dela-eta, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko lehen oinarria da pertsonen duintasuna, eta sarreraren lehen paragrafoan zein lehen artikuluan dago jasota: “Gizaki guztiak jaiotzen dira aske eta berdin duintasunari dagokionez...”.

Pertsonen duintasunak esan nahi du pertsona bakoitza berezia dela, baliabide baten orde zede bat delako. Xede bat da nork bere garapen osoa izateko aukera baliatu ahal duelako, bere kontzientziari jarraituz eta horretarako eskubidea baliatuta. Pertsonen duintasunaren ikusmolde horrek, hain zuzen ere, pertsona guztien oinarritzko eskubideak errespetatzea eskatzen du.

Pertsonen duintasunak esan nahi du pertsona bakoitza gehiago dela beraren edozein murriztapen baino; berari atxiki dakiokkeen edozein etiketa baino gehiago; eta berari lotutako edozein inguruabar, emozio edo arazo baino gehiago. Errespetatu eta sustatu behar den giza duintasuna dauka errefuxiatu bakoitzak.

Giza eskubideak pertsonen duintasunaren esanahian oinarritzen dira. Edozein diskriminaziotan edo tratu bidegabetan, etniari, erlijioari, politikari, generoari, gizarteari, klaseari edo jatorriari lotutako etiketa bat jartzen da pertsonen duintasunaren gainetik. Etiketatik, arrazoimenaren eta gizatasunaren gainetik jartzen dira aurreiritzia, ezjakintasuna eta oldarkortasuna.

Edozein pertsonaren etiketa baino askoz ere garrantzitsuagoa da pertsona horren duintasuna. Hori dela-eta, pertsona horrek berdintasunean eta justizian oinarritutako tratua merezi du, eta haren giza eskubideak errespetatuz adierazten da hori. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala premisa horren azalpen arautua da, eta 30 artikulutan adierazita dago. Munduaren historian nazioek eta herriek lortu duten akordiorik garrantzitsuenak da hori. Pertsonak beren errealizazioa beren kabuz egin ahal izateko oinarritzko baldintzak definitzen ditu.

Justizia, bakea, askatasuna eta bizikidetzak, neurri handi batean, gobernuen eta pertsona guztien konpromisoaren, errespetuaren eta giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren mende daude. Pertsonen duintasunak eta giza eskubideak osatzen duten binomioak ezinbesteko edukia biltzen du ulertu ahal izateko nondik oinarritu daitekeen elkartasunaren aldeko hautua, errefuxiatuei dagokienez.

1.1.2. Binomioa: enpatia eta elkartasuna

Gizakiok enpatikoak izateko gaitasuna daukagu. Gaitasun horrek elkartasunez jokatzeko aukera ematen digu. Elkartasuna aukerazko eta borondatezko erabakia da. Enpatikoa izateko gaitasuna eta elkartasunarekiko konpromisoa pertsonen ezaugarri espezifikoak eta unibertsalak dira. Are gehiago, gizakiok enpatia eta elkartasuna bereizgarri ditugula esan daiteke.

Enpatia beste pertsona baten lekuan jartzeko eta beste pertsona hori zaintzeko eta beraren egoera zailaz, justiziarik ezaz edo sufrimenduaz kezkatzeko gaitasuna da. Beste pertsona baten sufrimenduaz kezkatzeko gaitasuna dugunean, eta horrek zerbait egitera behartzen gaituenean, enpatia elkartasun bihurtzen da. Giza eskubideen balioa ulertzea ahalbidetzen duen esperientzia da enpatia.

Enpatikoak izateko gaitasuna handiagoa da beste pertsona batzuei hurbiltzeko sentiberatasuna lantzen duen gizartean, pertsona horiek urrun edo hurbil egonda ere. Izan ere, bestea eta besteak kontuan hartzen dituen bizikidetzakultura horrexek definitzen ditu enpatiaaren aldeko hautuak. Bere baitako ate-leihoak kanpora zabalik dituen eta barruan zein kanpoan elkartasuna erakusteko gaitasuna duen gizartea definitzen du.

Enpatikoak izateko eta elkartasuna adierazteko gaitasunak zibilizatzen gaitu. Enpatiarik eta elkartasunik gabe, mundua nobrekoikeriaren bultzaden mende egongo litzateke. Mundu-mailan edo gure herrian bertan, bizikidetzak bidezkoagoa lortzeko behar den oinarritzko oreka lortuko bada, pertsonak, erakundeak eta herrialdeak beren baitako ate-leihoak zabaldu, eta barneko zein kanpoko elkartasuna adierazteko gai izan behar dute; horixe da, hain zuzen, pertsonen, erakundeen eta herrialdeen gainean behar dugun kontzepzio politikoa.

Enpatia eta elkartasunak osatzen duten binomioak funtsezko edukia biltzen du mundua ulertzeko eta errealitatea hobetzen eta eraldatzen laguntzeko. Oinarritzko edukia da hori elkartasunaren aldeko hautuak islatzen duen agindu etikoa ulertzeko, errefuxiatuek merezi dituzten erantzunei dagokienez. Gogora dadila, zentzu horretan, etika unibertsalaren urrezko araua: *“tratatu itzazu besteak zu tratatzea nahiko zenukeen bezala”*.

1.1.3. Hautatzeko ahalean islatzen da erantzukizun-printzipioa

Elkartasuna hautua da. Axolagabetasunaren, nobrekoikeriaren eta justiziarik ezaren alde egin dezakegu, edo sentsibilitatearen, enpatiaaren eta elkartasunaren alde egin. Errefuxiatuek jasaten duten krisi humanitarioan ere, elkartasunarekiko konpromisoa hautua da. Hautu politiko, pertsonal eta kolektiboa da, eta, bizikidetzaren ikuspegitik begiratuta, oinarritzko tentsioa da hori.

Aukeratzeko gaitasuna dugu. Kontzienteki aukera dezakegu. Pertsonak elkartasuna aukera dezakegu; hor dago gaiaren muina. Azken finean, erabaki bat da. Gizakiok hainbat aukeraren artean kontzienteki hautatzeko gaitasuna daukagu. Ahal horrekin, jokoan jartzen da erantzukizun etikoa printzipioa.

Justiziarik eta berdintasunik eza, diskriminazioa, indarkeria eta biktimen aurreko axolagabetasuna ez dira soilik zoritxarraren ondorioak. Bidegabeko egiturak eta egoera horiei emandako erantzunak, neurri handi batean, pertsonen arrazoibideen eta erabakien bidez eraikitzen dira. Pertsonok, elkar-teen eta erakundeek hartzen ditugun erabakiak dira.

Eta, gauzak zer diren, pasibotasunean edo bidegabeko zein berdintasunik gabeko errealitateetan parte hartzeko justifikazio ohikoena hauxe izaten da: *«ez neukan beste aukerarik»*, edo *«ez zegoen beste aukerarik»*. Horrelakoetan, lehenengo pertsonan ukatzen da erantzukizun-printzipioa. Baina justiziarekin, berdintasunarekin, giza eskubideekin eta edozein indarkeria edo diskriminazio motaren biktimekin konpromisoa hartzeko oinarria hauxe da, hain zuzen ere: *«aukeratu ahal dugu»*, *«badago beste aukera bat»*. Hau da, lehenengo pertsonan baieztatu daiteke erantzukizun-printzipioa.

Gizakiok, pertsonok, elkar-teen edo erakundeek aukeratzeko ahalmena daukagu: gutako bakoitzak. Ahalmen hori pertsonen gaitasun benetakoena, bereziena eta unibertsalena da. Pertsona guztiok daukagu giza duintasuna, eta enpatia adierazi ahal dugu, kontzienteki aukeratu ahal dugulako. Aukera mota horiek gure esku daude, gure bizitzako edozein inguruabarretan. Zoritxarrak, inertziak edo ezintasunak ez dute den-dena hartzen. Gure kontzientziak aukeratzeko gaitasuna eta ahalmena ematen dizkigu. Aukera bakoitzean mundu bidezkoagoa eta bizigarriagoa marrazten ari gara une oro; edo, kontrakoa, justiziarik gabeko mundu zakarra.

Giza gaitasun horren gaineko kontzientzia eta pertsonalizazioa sustatzeak hautatzeko gaitasunari dei egitea dakar. Guztia ez dago gure esku, baina gure esku dagoen horren guztiaren artean hauta dezakegu. Ahal horrekin, jokoan jartzen da erantzukizun etikoa printzipioa. Errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari erantzuteko politiketan, jokoan jartzen dira pertsonak, elkar-teen eta erakundeek hautatzeko dituzten gaitasuna eta ahalak. Gaurko errealitatea ez da egon daitekeen aukera bakarra.

1.2. Nazioarteko zuzenbidearen betebeharra

Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako erantzun egokia taxutzeko beharra ez da hautu kontua bakarrik, non konpromiso solidarioaren eta hain solidarioa ez denaren artean hau-

ta daitekeen. Izan ere, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean eta Europako zuzenbidean arauz ezarritako betebeharra da, nahitaez bete behar dena. Arauzko esparrua ugaria da, eta oparoa, erreferentzietan. Dokumentu honetan, oinarritzko lau erreferentziak nabarmenduko dira, goreneko balio hierarkikotik begiratuta.

1.2.1. Nazio Batuen esparruan

•Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Iturria: NB)

Historian mugarrria izan zen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Munduko herrialde guztietako ordezkariak egin zuten, eta Nazio Batuen Biltzar Nagusian aldarrikatu zuten, Parisen, 1948ko abenduaren 10ean, 217 A (III) Ebazpenean. Herri eta nazio guztiek ideal bateratua edukitzea izan zen xedea. Adierazpenak lehen aldiz ezarri zuen zeintzuk ziren mundu osoan babestu beharreko oinarritzko giza eskubideak.

Adierazpenaren barruan, nazioartean aitortutako funtsezko eskubidea da asilo-eskubidea, eta edozein pertsonak goza dezake, bere jatorrizko herrialdetik kanpo, jazarpen politikoa gertatuz gero. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 14. artikulua funtsezko eskubide hau aitortzen du:

“Jazarpena gertatuz gero, pertsona orok dauka asiloa bilatu eta horretaz gozatzeko eskubidea, edozein herrialdetan.

-Eskubide hori ezingo da eskatu benetan ohiko delituengatik edo Nazio Batuen helburuen eta printzipioen aurkako ekintzengatik sortutako egintza judizial baten kontra.”

•Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa, 1951koa (Iturria: UNHCR)

Nazio Batuen biltzar berezi batean onartu zen Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa, 1951ko uztailaren 28an. Genevako Konbentzioa ere esaten zaio, eta errefuxiatuen nazioarteko babesaren sortzailea da. Horren edukiak zehazten du nor den errefuxiatua, errefuxiatuei dagozkien eskubideak ezartzen ditu, eta estatuen betebeharrak zehazten.

Hasiera batean, irismen mugatua izan zuen, Bigarren Mundu Gerraren osteko errefuxiatu europarrak babestera bideratu baitzen. Dena dela, Errefuxiatuen Estatutuaren protokoloak, 1967koak, mugaketa geografiko hori aldatu zuen. Danimarka izan zen ituna berretsi zuen lehenengo estatua, 1952ko abenduaren 4an, eta, gaur, 147k sinatu dituzte bai konbentzioa, bai protokoloa. Konbentzioaren arabera, honela definitzen da errefuxiatua:

“Konbentzio honen xedeetarako, arrazarengatik, erlijioarengatik, nazionalitatearengatik, gizarte-talde jakin bateko kidea izateagatik edo arrazoi politikoengatik jazarpena jasotzen duelako uste oinarrituen ondorioz bere nazionalitatearen herrialdetik kanpo dagoen eta herrialde horretako babesari heldu ezin dion edo, beldurra dela-eta, heldu nahi ez dion pertsona orori ezarriko zaio “errefuxiatu” terminoa, edo, bestela, nazionalitateari eduki gabe, gertaera horien ondorioz lehen ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo egonda herrialde horretara itzuli ezin daitekeen edo, beldurra dela-eta, itzuli nahi ez duen pertsona orori (...)”.

“Non refoulement” printzipioa da konbentziora jasotzen den printzipio garrantzitsuenetako bat. 33.1. artikuluan dago ezarrita, eta, horren arabera:

“Estatu kontratatzaile batek ere ezingo du errefuxiatu bat lurraldeen mugetan jarri, inola ere ez, ez kanporatuta ez itzularazita, arrazarengatik, erlijioarengatik, nazionalitatearengatik, gizarte-talde jakin bateko kidea izateagatik edo arrazoi politikoengatik haren bizitza edo askatasuna arriskuan egongo bada”.

Hala, konbentzioari atxiki zaion herrialde batek ere ezingo dio uko egin errefuxiatuak hartzeari, eta ezingo ditu jatorrizko herrialdera itzularazi, haien bizitza arriskuan jartzea badakar horrek.

Bada, herrialde hartzaileko herritarrek dituzten eskubide berberak eduki behar dituzte errefuxiatuek, haien errefuxiatu-estatusa salbuespenezko egoera batek eragin duenean. Era berean, errefuxiatuek nazioarteko babesaren protokoloari heltzen diotenean dauzkaten betebeharrak ezartzen ditu konbentzioak; funtsean, herrialde bakoitzeko legeak, kodeak eta bizikidetzara-arauek errespetatzean laburbiltzen dira betebeharrak horiek.

1.2.2. Europar Batasunaren esparruan

·Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (Iturria: Europar Batasuna)

2007an aldarrikatu zen Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, eta 2009ko abendua-ren 1ean jarri zen indarrean. Asilo-eskubidea bermatzen du horrek ere. Honako hau dio, hitzez hitz, 18. artikulua:

“Asilo-eskubidea bermatzen da, 1951ko uztailaren 28ko Genevako Konbentzioaren eta 1967ko urtarrilaren 31ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloaren arauekin eta Europar Batasuna sortzen duen itunarekin bat eginez”.

Asilo-eskubideak, bai Nazio Batuetan, bai Europar Batasunean, ikus daitekeen bezalaxe, isla argi eta fidagarria dauka aldarrikapen eta berrespen arautzailean. Eskubide horrek errealitate bakoitzean irudikapen zehatza topatu behar izaten duenean sortzen da arazoa. Balio dezala zailtasun horren adibide gisa Dublingo Erregelamenduari egindako aipamen honek:

·Dublingo Erregelamendua (Iturria: UNHCR) eta EB-Turkia Ituna

2003an egin zen erregelamendu hori, eta xede hau dauka: asilo-eskaera aztertzeke arduraren zein estatuk duen zehaztea –normalean, eskatzailea EBra lehen aldiz sartzean zapaltzen duen lehenengo herrialdea izaten da arduraduna– eta eskaera guztiek estatu kide batean bidezko ebaluazioa jasoko dutela ziurtatzea.

EBko estatuetan asiloari buruzko legeak eta prozedurak estandar komun berberetan oinarritu behar diren neurrian, erregelamendu horrek segurutzat jo zuen asilo-eskatzaileek antzeko babes-mailek goza lezaketela horietan guztietan.

Haatik, kontua da legeak eta prozedurak nabarmen aldatzen direla herrialde batzuetatik besteetara, eta modu ezberdinean tratatzea dakarrela horrek. 2008ko ebaluazioan, haxe jaso zuen Europako Parlamentuak: harmonizaziorik egon ezean, “Dublingo sistemak bidegabekia izaten jarraituko du bai asilo-eskatzaileentzat, bai estatu kide batzuentzat”.

Sistema horrek areagotu egiten du kanpo-mugak dituzten EBko eskualdeen gaineko presioa, eta izugarri asaldatzen ditu Europara babes-bila doazenen bizitzak. 2015ean irekitako krisi humanitarioak handitu egin ditu arazo horiek. Horren erakusgarri argia da 2016ko martxoaren 20an indarrean jarri zen EB-Turkia Itun eztabaidagarria. EBko estatuen babesa jaso du itun horrek, baina nazioarteko erakundeek, gobernu autonomikoen edo tokiko gobernuen eta GKEen erantzun oso kritikoa eduki du.

Laburtuz, Turkiatik irla grekoetara igarotzen diren migratzaile irregular berri guztiak Turkiara itzularaziko direla esan nahi du akordio horrek. Siriaren kasuan, Turkiara itzularazten den siriar bakoitzeko, EBn birkokatuko da Turkiatik datorren beste siriar bat. Ordain gisara, turkiarrentzako bisak liberalizatzeko ibilbide-orrria aktibatuko dute EBko estatuak, eta Turkian errefuxiatutako pertsonentzako mekanismoaren arabera esleitutako 3.000 milioi euroak ordaintzeko prozesua azkartuko du EBk. Azkenik, atxikitze-prozesua azkartzeko konpromisoa baieztatu dute EBk eta Turkiak.

2. Aurreko Legegintzaldiko dekalogo

Aurreko Legegintzaldian, krisi humanitario honetan lehenengo uneetan, jarduteko esparrua zehazten zuen dekalogo egin zuen Eusko Jaurkitzaileak. Ongi irudikatzen eta laburtzen du arazo horrek merezi duen erantzunari dagokionez eduki nahi den espiritua.

· Errefuxiatuen krisiari zorrotasun etikoz eta pragmatikoz aurre egiteko dekalogo

Errefuxiatuen krisia europarren kontzientzia astintzen ari da. Une honetan, modu desordenatuan eta bulkadaka ari dira metatzen egunero iristen zaizkigun irudiek sorrarazten diguten betekizunarekin bat egingo duen erantzuna emateko nahiak, asmoak, exijentziak, aldarrikapenak, zalantzak, proposamenak eta baliabideak.

Testuinguru horretan, gizakiaren elkartasunerako xederik gorenak antzeman ditzakegu, zerbait egiteko exijentziarik beharrezkoenekin eta zehatzenekin batera. Krisi horretan, gizalegeko printzipioa bezain garrantzitsua da zorrotasun praktikoa.

Irismen historikoa duten bidegurutze mota horietan, oinarri batzuk ezarri beharra dago, printzipio etiko sendoen egiazkotasuna eta bideragarritasunerako irizpide praktikoa konbinatzen dituen. Helburu hori lortzeko egin da ondorengo katalogo hau.

A. BETEBEHARRA. Egin behar duguna. Zergatiak

1. Gizatasun-printzipioa. Elkartasuna gizakiaren betebeharra da; gizatasunezko betebeharra, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du muturreko sufrimendu, behartasun edo larrialdi egoeran daudenei lagundu behar diegula.

2. Erantzukizun-printzipioa Giza duintasuna eta giza eskubideak defendatzeko erantzukizuna hartu behar dugu gure gain, norberarena zein partekatua. Horrez gain, beharrezkoak dira erantzukizun horrek dakartzan konpromiso instituzional, politiko eta soziala.

3. Legezketasun-printzipioa. Testuinguru horretan, honako hauek errespetatu behar ditugu bereziki: 1951ko Genevako Konbentzioa, Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 14. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 18. artikulua.

B. NAHI IZATEA. Egin nahi duguna. Zertarako egin nahi dugun

4. Seriotasuna. Seriotasunez, neurritz eta diskrezioz jokatu nahi dugu. Drama hau eta bere biktimak modu demagogiko, sentsazionalista, propagandistiko, alderdikoi edo paternalistan erabiltzearen aurka gaude.

5. Zorrotasuna. Zorrotasunez lagundu nahi dugu, eta, horretarako, irtenbide azkar, eraginkor, bideragarri eta iraunkorrak bilatu behar ditugu, epe ertain zein luzerako iraungo duten erantzunak behar direla ahaztu gabe.

6. Osotasuna. Ondorioak eta kausak landu nahi ditugu. Hemen laguntza eskaintzea eta tokian bertan esku hartzea proiektu zehatzekin, beste eragile batzuekin batera, egoera honen kausak gainditzeko.

C. AHAL IZATEA Egin dezakeguna. Nola egin dezakegun

7. Elkarrekikotasuna. Gu edo gure herria momentu honetan errefuxiatu siriarrak edo eritrearrak bizi duten egoeran egongo bagina guri laguntzea gustatuko litzaigukeen moduan lagun genezake guk.

8. Koordinazioa. Administrazio publikoaren maila guztietan instituzioak haien artean ahalik eta gehien koordinatzen lagun dezakegu, tokiko instituzioetatik hasi eta nazioarteko instituzioetaraino. Horrez gain, gobernu kanpoko erakundeekiko sinergia eta lankidetzak estua bultzatzen genitzake.

9. Antolaketa. Antolaketan zentratu gaitezke eta horrek errefuxiatuak behar bezala hartzeko beharrezkoak diren baliabide eragileak eta laguntzarako direnak aurreratzea, prestatzea eta eskura jartzea esan nahi du.

D. EGITEA. Egingo duguna. Zer den egingo dugun hori

10. Konpromisoa. *Lehenik, krisi honek planteatutako erronka etiko, humanitario eta demokratikoari erantzuteko beharrezkoak izango liratekeen baliabideak aurreikusiko ditugu. Bigarrenik, elkartasunez eta modu antolatuan hartuko ditugu Euskadira heltzen diren errefuxiatu guztiak. Hirugarrenik, errefuxiatuen eskubide eta betebeharren integrazioa sustatuko dugu, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa oinarri hartuta.*

Bigarren zatia

Jarduera-esparrua

1. Diagnostikoa egiteko zazpi ohar

Analisia, bai Europako mugetan errefuxiatutako pertsonen 2015etik bizi duten krisi humanitarioari buruzkoa, bai Europaren erantzun eskasari buruzkoa, diagnostikoa eratzen duten zazpi puntutan laburtu daiteke.

•**Testuingurua.** EB nazioarteko testuinguru geopolitiko zehatz batean dago, non aldameneko eskualdeetan muturreko bidegabekeria-errealitateak, berdintasunik eza edo gerra dauzkaten, eta barne-mailako irtenbiderik edota behar besteko eraginkortasuna duen nazioarteko laguntzarik topatzen ez duten, eta pertsonen mugimendu migratzaile masiboak bultzatzen dituzten, nazioarteko babes-bila.

•**Kolapsoa.** Mugimendu migratzaile horiek herrialde batzuetara iristen dira (Libanora, Turkiara, Greziara edo Italiara), eta, horietan, kolapso operatiboa gertatzen da, bai harrera kudeatzean, bai nazioarteko babes-eskarak izapidetzean. Horri, gainera, Europar Batasuneko egiturek eta estatuetako gobernuak egoera hori arintzeko orduan inplikazio eta laguntza nahikorik erakusten ez dutela gaineratu beharko genioke.

•**Mafiak.** Jatorrizko errealitate bidegabearen eta iristen diren herrialde horietan gertatzen den kolapsoaren artean, pertsonen salerosketan aritzen diren eta pertsonak egoera penagarrian eta arriskutsuan edo estortsio ekonomikoaren bidez garraiatuz irabazia bilatzen duten mafiak daude. Horrela, ehunka naufragio eta milaka hildako egoten dira urtero migrazio-ibilbideetan. Ez Mediterraneoko hegoaldeko herrialdeek, ez EBk ez dute lortu izugarrikeria hori etetea.

•**Herabetasuna.** EBko estatuak herabetasunez jardun dute birkokatzeko eta birlekuratzeko konpromisoaren aurrean, eta estatu batzuen elkartasunik eza zein muturreko eskuineko populismoak gora egiteko beldurra erabili dituzte argudio moduan. Ez EBk, ez estatuak ez dute erakutsi egoera horri aurre egiteko behar besteko gaitasunik edo borondaterik. EB-Turkia Itunak banaketa ekarri du, eta horren gaineko ebaluazioa ezin daiteke ontzat jo.

•**Eraginkortasunik eza.** 2015era arte, ohiko harrera-sistemeekin erantzun diete EBko estatuak asilo-eskaerei. 2015etik aurrera, egoera oso ezberdina da, kuantitatiboki begiratuta. Alabaina, estatu kide gehienetan, ohiko sistema erabiltzen jarraitu dute. Sistema hori, askotan, gainezka eginda agertu da, edo eraginkorra ez dela ikusi da, baina ez da errealitate berriari egokitutako bestelako aukerarik ezarri.

•**Bat ez etortzea.** Nazioarteko babes-eskatzaileak harrera-herrialdera iritsitakoan, gizarteratze-prozesua hasten da. Espainiako estatuan, sistema goitik behera dago eraikita, eta ez dago bat-etortze nahikorik tokiko erakundeekin eta erakunde autonomikoekin. Bat ez etortze horren ondorioz, ezin daitezke hobeto eta hobeto erabili gobernu autonomikoak, Foru Aldundiek eta Udalek gizarteratzeko dauzkaten baliabideak.

•**Konplexutasuna.** Jatorrizko herrialdetik harrera-udalerriraino, egitura europarretatik, estatukoetatik, autonomikoetatik, tokikoetatik eta GKEetatik igarotzen dira errefuxiatuak. Zati batean erabakitze gaitasuna duten askotariko instantziak izaten dira, baina, gutxieneko erreserbarekin, blokeo orokorrerako botere izugarria dutenak. Erantzuna ez da erraza; konplexua da: beldurrak alboratzea eta laguntzeko nahi irmoa adostea da kontua.

2. Helburuak

Azaldutako estrategiaren barruan, hauek dira, jarduera-esparrua garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak di-tuen xedeak:

- Proposamen zehatzen bidez, harrera-gaitasuna eraginkorki areagotzen laguntzea; Euskadin lehenengo, baina baita Espainiako estatuan eta Europar Batasunean ere.
- Proposamen zehatzen bidez, Euskadira iristen diren eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen eta errefuxiatuen gizarteratze- eta autonomia-prozesuak hobetzea.
- Arintasunez eta aurrekontu-konpromisoerantzutea une bakoitzean ager daitezkeen premiazko egoerei eta deiei, ikuspuntu humanitarioetik begiratuta.
- Bake-, justizia- eta berdintasun-premia handiena duten herrialdeetan prebentziozko erantzuna ematen duten lankidetzaproiektuak babestea eta garatzea.
- Euskadik ahotza duen nazioarteko eremuetan eragitea, erantzun efizienteak eta partekatuak gauzatzeko konpromisoari laguntze aldera.

·Euskal gizartean, herrialdeko proiektu eta kultura gisa sustatzea giza eskubideak eta elkartasuna bultzatzeari bideratuta dauden harmonizazio- eta dibulgazio-ekimenak.

3. Estrategia

Zeharkako ardatz batek eta esku hartzeko bost ildoren interrelazioak zehazten dute Europako mugetan errefuxiatutako pertsonen bizi duten krisi humanitariorako erantzuna bideratzeko xedez Eusko Jaurlaritzak duen jardueraren esparrua.

3.1. Zeharkako ardatza: lankidetzaren gune eraikitzaileak sustatzea

Arlo honetako jardueraren osoa busti behar duen ideia nagusi batek markatzen du Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu duen eta bultzatzen duen estrategia: *maila guztietan sustatzea lankidetzaren gune eraikitzaileak*. Bi arazoek babesten dute apustu estrategiko hori: pragmatismoak eta ongizate gorenaren bilaketak.

Lehenik eta behin, prozesu horretan esku hartu behar duten ahots- eta botere-polifonia dela-eta, eta krisia eraginkorki ebatzi nahi bada, aitortu beharra dago ezinbestekoa dela elkarlan aldeaniztun aktiboa egotea. Bestela, irtenbideen bilaketak ez du uztarik emango. Zailtasunik ere baduen arren, elkarlaneko aukera da aukera pragmatikoa.

Bigarrenik, eta aurreko argumentua dela-eta, nahiek bat egiten duten, elkarrekiko konfiantza dagoen eta lankidetzan oinarritzen den klima batean parte hartzea da errefuxiatuentzako aukera onena. Errefuxiatuen egoerari irtenbideak bilatzeko xede gorenaren erdigunean jarri gero, lehentasuna da hori.

Zeharkako ardatz estrategiko horrekin, proposamenak, aukerak eta irtenbideak bilatzeari eta erantsi lehentasuna emango dion jarrera gainjarri behar zaie eragozpenei, erreparoei eta arazoei. Zentzuzkoa denez, apustu hori ez da bateraezina salaketarekin edo interpelazioarekin, horiek beharrezkoak direnean. Bateragarriak dira, baina lehentasunezko tokia eman behar zaio elkarlan eraikitzaileari.

3.2. Esku hartzeko bost ildoren interrelazioa

Esku hartzeko bost ildoren interrelazioan eratzen da elkarlan eraikitzailearen eremuak sustatzeko estrategia orokorra:

- Ardatz propositiboa.** Harrera-sistemak eraldatzeari eta hobetzeari zuzendutako proposamenak aurkezten eta sustatzen oinarritzen da, Espainiako Gobernuari dagokionean batez ere.
- Ardatz berritzailea.** Harrera- eta gizarteratze-arloan Euskadiko erakundeak eta gizarte-entitateak esku-menen barruan dauden eremuetan eta gaietan dagoen guztia eraberritzeko eta hobetzeko xedea dauka.
- Ekintza humanitarioaren ardatza.** Une bakoitzean eta nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonen jasaten dituzten bidegabekeriaren aurrean inplikazio humanitarioa behar duten egoerekin konpromiso proaktiboa edukitzea.
- Prebentziozko ekintzen ardatza.** Bake-, justizia- eta berdintasun-premia handiena duten herrialdeetan jardungo duten proiektuak babestea eta garatzea da xedea, prebentziozko erantzun eraldatzaileen bidez eta zuzeneko laguntza eta lankidetzarako politiken bidez.
- Jarrera-ardatza.** Bi eremutan banatzen da: nazioartekoan, Eusko Jaurlaritza Europako eta nazioarteko instantzietan entzunaraziz, eta barne-mailakoan, bizikidetzaren kultura irekia sustatuz euskal gizartean.

4. Jarduteko irizpide orokorrak eta espezifikoak

Orain arte azaldutakoaren ildoan, hiru irizpide orokorrekin dago lotuta Eusko Jaurlaritzak arlo honetan duen jarduera-esparrua, eta hiru irizpide espezifiko dauzka irizpide orokor bakoitzak:

4.1. Ikuspegi osoa

Errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioaren izaera aztertzeko eta behar diren erantzunak ezartzeko ikuspegi integralari eustea da lehenengo irizpide orokorra. Irizpide espezifiko hauetan eratzen da irizpide orokor hori:

- Giza eskubideetan eta elkartasunean kokatzea errefuxiatuek jasaten duten bidegabekeriaren azterketa.
- Une oro eta jarduera orotan eustea genero-berdintasuneko eta tratu-berdintasuneko irizpide zeharrei.
- Hala badagokio, gizakien salerosketarekin, torturarekin, adingabeekin eta familiekin, genero-indarkeriarekin, laneko esplotazioarekin... zerikusia duten barne-mailako edo nazioarteko protokoloak ezartzea.

4.2. Maila anitzetako lankidetza

Erakundeetako eremu guztietan eta eremu politiko eta sozial guztietan lankidetzarako guneak bilatzea eta sustatzea da bigarren irizpide orokorra, eta jarrera propositibo eta positiboarekin egitea lan. Irizpide espezifiko hauetan eratzen da irizpide orokor hori:

- Behetik gora eraikitako erantzun-azpiegitura bat artikulatzea, udalak, Foru Aldundiak eta autonomia-erkidegoak GKEekin eta Espainiako Gobernuarekin lankidetzan arituta.
- Euskadin Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien, EUDELen, Euskadiko hiriburuen eta gizarte-taldeetan artean sortutako lan-esparruari lehentasunezko balioa ematea eta hori zaintzea.
- Gizartearen eta herritarren parte-hartzea sustatzea Euskadira iristen diren errefuxiatuak hartzeko eta horiek gizarteratzeko prozesuetan eta elkartasunaren kulturaren sustapenean.

4.3. Konpromisoak eta proposamenak

Eskumen propioen eremuetan konpromisoak eskainiz jardutea da hirugarren irizpide nagusia, eta proposamen eraikitzaileen bidez eragiten saiatzea konpromisorik hartu ez duten eremuetan.

- Norberaren eskumenetik, harrera-sistema indartzea, errefuxiatuak gizarteratzeko eta horien autonomiarako proiektuari dagokionez.
- Erakunde hartzaileen eta harreraren hartutako pertsonen arteko lankidetza, elkarrekikotasuna eta ahalegin partekatua azpimarratzea, hartzaile pasibotzat bakarrik beharrean subjektu aktibotzat ere hartuz errefuxiatuak.
- Arlo honetan laguntzeko borondatea eta erabakitasuna erakustea, aurrekontu-konpromisoekin eta ebalua daitezkeen ekintza zehatzekin.

5. Apirilaren 3ko adierazpen instituzionala

2017ko apirilaren 3an, Euskadiko erakunde eta gizarte-talde ia guztietako ordezkariak batek, Legebiltzarreko talde guztiekin batera, parte hartu zuen adierazpen instituzionalaren irakurketan. Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak irakurri zuen, Lehendakariaren egoitzan. Duen garrantziarengatik eta adierazpenaren edukiak zein aurkezpenak islatu zuten adostasun zabal-zabalarengatik, Eusko Jaurlaritzaren jarduera-esparruaren zati da testu hori, eta dokumentu honetan sartu dugu.

Konpromisoa eskatu eta eskaintzen dugu

Politika, zentzu garbienean, enpatia erakundeek egindako politika, izan erakundeek egindako politika, izan gizarte zibilak egindakoa. Enpatia ez da bestearen lekuan jartzeko gaitasuna bakarrik, beste pertsona batzuekatzeko eta haietaz arduratzeko gaitasuna ere bada. Norberaren ongizatearen gainetik edo gutxienez horren pare, guztion ongizatea lortzearen garrantzia ulertzen laguntzen duen esperientzia da enpatia.

Humanismoaren eta demokraziaren baloreetan oinarrituta politikan parte hartzea bizikidetzaren aldeko kultura sustatzea da, bere baitako ate-leihoak kanpora zabalik dituen eta barruan zein kanpoan elkartasuna erakusteko gaitasuna duen gizarte batentzat, hain zuzen. Politikaren ideia horren zentzu sakonari eta zintzoenari egiten dio dei Mediterraneoan gerratik ihesean dabiltzan errefuxiatuen krisi humanitarioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari politiko garen aldetik ezin dugu onartu modu akritikoan Europar Batasuna krisi humanitario honi ematen ari den erantzuna, ez baita ez nahikoa, ez eraginkorra. Krisiaren kudeaketa konplexutasun handikoa dela aitortzen dugu. Haren arrazoiak, ondorioak eta konponbideak politikoak eta aldeaniztunak direla badakigu.

Hala ere, egoeraren larritasuna kontuan hartuta, hots, muturreko larrialdi humanitarioa, emaitzen balantzea ez da onargarria. Europar Batasunak, oro har, errefuxiatuak birkokatzeko eta birlekuratzeko hartutako konpromisoen %20 baino ez ditu bete. Eta ezin dugu ahaztu, 2016. urtean bakarrik, 5.000 lagun baino gehiago hil direla Mediterraneo aldean, gerratik ihes gehienak.

Europaren izaerarekin bat etorrira, politikan parte hartzeak elkartasun-printzipio bati erantzuten dio, erantzukizun konpromiso bati eta legezketasun eginbeharrari, printzipio horietan oinarritzen baita Europaren historia.

•Elkartasun-printzipioak zera dakar, laguntza ematea muturreko sufrimenduan eta premia larrian dagoenari, are gehiago gerra batek dakarren injustizia eta suntsipenetik ihes badator.

•Erantzukizun konpromisoak dakarrena giza eskubideen eta pertsonen duintasunaren defentsaren erantzukizuna hartzea da, baita erantzukizun horrek dakarren konpromiso instituzionala, politikoa eta soziala ere, ahultasun handiko egoeretan bereziki.

•Nazioarteko zuzenbidea betetzea dakar legezketasun-betebeharrak; kasu honetan, 1951ko Genevako Konbentzioa, Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 14. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 18. artikulua bete behar dira.

Aldaketa bat eskatzen dugu. Erreakzio bat eskatzen dugu, Europar Batasunaren eta estatuetakoko gobernuek errefuxiatuen krisiari emandako erantzuna modu kuantitatiboan eta kualitatiboan aldatuko duena. Krisi hau konpontzeko ezinbestekoa da alde askotako lankidetzaren aktiboa. Norberekerian oinarritutako interesen aurretik guztien ongian oinarritutako elkartasuna lehenetsi behar dugu. Konponbideak eta aukerak partekatu behar dira, eragozpenak eta oztopoak jarri partez.

Bi proposamen aurkezten ditugu. Batetik, errefuxiatuen harrerarako errefortzu-sistema osagarria sortzea proposatzen du Eusko Jaurlaritzak, eta Eusko Jaurlaritzaren, udalen, Foru Aldundien eta Espainiako Gobernuako entitate sozialen artean egituratutako lankidetzaren bidez sortuko litzateke hori. Bestetik, modu osagarrian, bisa humanitarioen bidea bultzatzea proposatzen du, erakunde eta entitate sozial ezberdinekin ados jarrita eta koordinatuta.

Konpromiso bat eskaintzen dugu. EAEko erakundeek eta sozietate zibileko entitateek euren konpromisoa eta prestasuna erakutsi dute errefuxiatuen harreraren modu aktiboan laguntzeko eta beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak eskura jartzeko, bakoitzak bere eskumenen eta ahalen barruan.

EAEko erakundeek eta sozietate zibileko entitateek konpromisoa eskatu eta eskaini egiten dugu pertsona errefuxiatuen krisi humanitarioari erantzun eraginkorra emateko. Hori guztia, elkartasun-, erantzukizun- eta legezketasun-printzipioengatik.

Hirugarren zatia

Jarduera-plana

1. Ardatz propositiboa

1.1. Azalpena

Eusko Jaurlaritzak ez dauka eskumen zuzenik errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioa kudeatzeko eremu jakin batzuetan. Halere, horrek ez du eragozten ikusten ari garen erantzunak modu bateratuan hobetzeko deia eta gonbidapena egiten duten ekimenak bultzatzea. Ildo horretan kokatu behar da ekin-tza-ardatz hau.

Funtsean, harrera-sistemak eraldatzeari eta hobetzeari zuzendutako proposamenak aurkeztean eta sustatzean oinarritzen da, Espainiako Gobernuari dagokionean batez ere. Nazioarteko babesak eskatzen dutenak harreraren hartzeko baliabideak eta gaitasunak irekiagoak, malguagoak eta arinagoak egi-teari daude zuzenduta proposamen horiek. Hori guztia, birkokatzeko eta birlekuratzeko hartutako kon-promisoei erantzuteko xede nagusiarekin.

1.2. Garapen-ildoak

Ekintza-ardatzak garatzeko ildoak eratzen dituzten hiru eremu propositibotan ari da lan egiten Eusko Jaurlaritzak. Horiek sakontzen jarraitzeko asmoa dauka. Urtero ebaluatuko eta eguneratuko dira.

• **Auzolana proposamena** (errefuxiatuak harreraren hartzeko unearen errefortzu-sistemaren esperientzia pilotua garatzeko prozedura) **garatzen jarraitzea**

Salbuespenezko egoerak iraun bitartean, errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzuna hobetzeko gakoetako bat da ohiko harrera-sistemak errefortzu-sistema edukitzea, autonomia-erkidegoek, Foru Aldundiek eta Udalek lehen unetik izan dezaten zuzeneko eginkizuna harrera- eta gizarteratze-prozesuak bideratzeko orduan. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiak eta Espainiako Gobernuaren Immigrazioko eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusiak lankidetzaren prozesu bati ekin diogu, nazioarteko babesaren eskatzaileak eta onuradunak harreraren hartzeko modua hobetzeko asmoz; jakina, hobekuntza hori Auzolana proposamenean oinarrituta egiteko asmoa dugu.

• **Bisa humanitarioen bidea aktibatzearen proposamena sustatzen jarraitzea**

2017ko urtarrilean, bisa humanitarioen bidea erakunde eta entitate sozial ezberdinekin ados jarrita eta koordinatuta irekitzea eta bultzatzea proposatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Ekimen hori Italian abiarazi zen, 2016an. «Korridore humanitarioak» izena jarri zioten, eta Sant'Egidioko komunitatearen eta Italiako Gobernuaren arteko hitzarmen baten bidez ekin zitzaion. Frantziara ere hedatu da esperientzia bera. Bisei buruzko Europako Erregelamenduaren 25. artikuluan dago horren legezko euskarria. Horren arabera, bisak lurralde-mugarekin emateko aukera dago, arrazoi humanitarioak baldin badaude tarteko. Horrela, bada, legezko moduan eta seguru lekualda daitezke zaurgarritasun-egoera berezian dauden errefuxiatuak, «bisa humanitarioa» ematen baitaie. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari eta Europako gainerako gobernuari proposatu die bide hori ireki dezatela, ikuspuntu humanitarioetik begiratuta premiaz eta lehentasunez jardutea behar duten egoerak bideratzeko gutxienez.

• **Praktika onak identifikatuta, beste proposamen batzuk aztertzea eta bultzatzea**

Hauxe da ekintza-ardatz eraldatzaile honen hirugarren ildoaren xedea: ahalik eta arreta handiena jartzea Europako edo munduko edozein tokitan gerta daitekeen eta praktika onak jo daitekeen ekimen edo esperientzia orori, beste toki batzuetan sustatu eta ezarri ahal izan daitezen. Horren haritik, Kanadan «laguntza pribatuen» arloan garatu diren politika zehatzak ikertzen ari dira dagoeneko, bai eta familiak berriro elkartzeko, ikerketa-beketarako edo laneko migrazioari buruzko beste esperientzia batzuk ere.

2. Ardatz berritzailea

2.1. Azalpena

Nazioarteko babesak eskatu duten pertsonak gure lurraldean daudenean, Euskadiko erakundeek daukagu horiek harreraren hartzeko eta horien gizarteratzean aritzeko eskumena. Gure erantzukizuneko eremuan etengabeko hobekuntza egoteko konpromisoa hartzean datza ekintza-ardatz berritzailea.

2017ko urritik, lan-mahai bat sortu da Euskadin, GKEekin, hiriburuetako udalekin, EUDELekin, hiru Foru Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzan arlo honen inguruko eskumena duten Sailekin. Mahai horixe da planteatzen diren berrikuntzak identifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko esparrua. Hobekuntza horien zati handia islatzen du Auzolana proposamenaren edukiak.

2.2. Garapen-ildoak

Hobetzeko lau ildoko egitura batean oinarritzen da harrera- eta gizarteratze-prozesuak etengabe berritzeko mekanismoa: (1) aurea hartzea, (2) harrera, (3) gizarteratzea eta (4) prozesu ondokoa. Hauxe da 2017rako berrikuntzen eta hobekuntzen proposamena. Urtero ebaluatuko eta eguneratuko da, egitura hau hartuta oinarritzat.

•Aurreratzea hobetzea

-Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak koordinazio-mekanismo bat sortu dute hobeto prestatu ahal izateko harrera egiteko eta harreraren hartzeko prozesua.

-Udalerrien arabera, harreraren hartzeko eskuragarritasunaren gaineko estimazio eguneratua egiteko sistema bat finkatu du Eusko Jaurlaritzak, eta Espainiako Gobernuarekin partekatzen du hori.

-Errefuxiatuak iritsi aurretik, GKE arduraduna eta tartean dagoen udala biltzen ditu Eusko Jaurlaritzak, lehenengo harrera egiteko sistema prestatze aldera.

•Harrera-egokitzapen fasea hobetzea

-Udalerri hartzaile guztietan sortu da Harrerarako eta Gizarteratzeko Batzorde bat, GKE arduradunaren, udaleko arduradunen eta tokiko boluntarioen taldearen artean.

-Udalerri hartzaile bakoitzean, tokiko boluntarioak sartzea bilatzen da, hizkuntzetan, sozializazioan eta prestakuntza soziolaboralean lagundu dezaten.

-Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduko du boluntarioen lan hori, eta Hezkuntza Sailak, HHEen bidez, hizkuntzak irakasten lagunduko du.

-Errefuxiatuek GKEarekin, udalarekin eta boluntarioekin hartuko dute parte etxebizitza bilatzeko unean, gizarteratzeko faserako. Alokabidek parte hartuko du prozesu horretan.

•Gizarteratze-autonomia fasea hobetzea

-Foru Aldundiek, EUDELekin ados jarrita, integrazioaren eta autonomiaren arloko plan bat prestatuko dute, eta inplikaturik dauden Udalei eskainiko zaie.

-Eusko Jaurlaritzak urtero diru-laguntza bat emango dio udal bakoitzari, errefuxiatuak gizarteratze-prozesuak indartzeko proiektuari laguntze aldera.

-Nazioarteko babesaren eskatzaileak Euskadiko babes-sistemara sar daitezzen egin behar den al-daketa sustatuko du Eusko Jaurlaritzak, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 12/2008 Legea aldatzen duen esparruan.

-Errefuxiatuek enpleguaren bilaketan parte hartuko dute, GKEarekin, udalarekin eta tokiko boluntarioen taldearekin batera. Lanbidek ere prozesu horretan parte hartuko du.

•Prozesu ondokoa hobetzea

-Eusko Jaurlaritzak, erakunde laguntzaileekin batera, jarduteko plan bat egingo du prozesua amaitzean zaugarritasun-egoeran jarraitzen duten kasuetarako.

3. Ekintza humanitarioaren ardatza

3.1. Azalpena

Gizaki eta erakunde orori dei egiten dien eskumen unibertsalaren parte da erantzun humanitarioa. Elkartasuna gizakiaren betebeharra da; gizatasunezko betebeharra, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du muturreko sufrimendu, behartasun edo larrialdi egoeran daudenei lagundu behar diegula. Ekintza humanitarioak, bere kabuz, ez ditu konpontzen krisi hau eragin duten egiturazko kausak.

Alabaina, ekintza humanitarioarekiko konpromisoa hartzea aginduzkoa da gizakientzat, baita premiazkoa ere. Ekitea dakar. Kasu honetan eta eremu honetan, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu duen konpromiso proaktiboa da hori, une bakoitzean eta nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonak jasaten dituzten bidegabekeriaren aurrean arintasunez eta premiaz erantzuteko konpromiso proaktiboa.

3.2. Garapen-ildoak

Euskadikoa bezalako gobernu baten baliabideak, eskumenak eta gaitasunak aintzat hartuta, hiru garapen-ildo handitan gauzatzen da konpromiso hori, eta garapen-ildo horiek zehazten dituzte eremu humanitarioko lehenetasun nagusiak. Urtero ebaluatuko eta eguneratuko da eskema hori, egitura hau hartuta oinarritzat.

•Premia humanitarioaren deiei erantzutea

Nazio Batuen edo nazioarteko zein Europako beste erakunde batzuen deiei laguntzea eta erantzutea da eremu honen lehenengo garapen-ildoak, eta pertsona errefuxiatuek bizi duten krisiarekin lotutako premia humanitarioko egoerak arintzeko xedea dauka. Sentsibilizazio-, dibulgazio- edo komunikazio-kanpainak funtsak, baliabideak edo atxikipena emanez adieraziko da laguntza hori.

•Esku-hartze humanitariorako ekimen-programa propioa zehaztea

Europako mugetan errefuxiatutako pertsonak jasaten duten krisian esku-hartze humanitarioa egiteko ekimen-programa propioa urtero definitzea dakar bigarren garapen-ildoak, eta, horretarako, lehenetasun geografikoak nahiz edukiari dagozkionak ezarri beharko dira. Eremu geografikoan, laguntza handiena behar duten eremuak eta gutxiengoak hartuko dira kontuan. Eremu tematikoan, besteren artean xede hauetara bideratuta egongo den ekintza humanitarioa lehenetsiko da: oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak hornitzea, hezkuntza-egiturak berreraikitzea, indarkeriaren ondorioak murriztea eta biktimak babestea.

•Arreta berezia ematea adingabeen inguruko erantzun espezifikoari

Ekintza humanitarioaren ardatzean, arreta berezia emango zaio zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeek merezi duten babesari. Zentzu horretan, batetik, lurraldean bertan sor daitezkeen beharrei erantzuteko orduan lagunduko da, eta, bestetik, laguntza espezifikoak emango zaie familia berriro elkartzeko eta lagunduta ez dauden adingabeak harreran hartzeko ekimenei, edota sor litezkeen beste batzuei.

4. Prebentziozko ekintzaren ardatza

4.1. Azalpena

Esku-hartze humanitarioa osatzeko, prebentziozko ekintza egon behar da, esku-hartzea ez dadin mugatu egoera arintzera bakarrik. Hau da, lekualdaketa bortxatuak eragiten dituzten kausen gainean jardungo duen ekintza integral eta eraldatzailea ere behar da. Ekintza-ardatz honen bokazioa xumea izan behar da, ordea. Kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritza erakundeak eta Euskadi herrialdeak berak jarduteko orduan duten gaitasun mugatua. Bokazio xumea, baina aukeren neurrian laguntzeko erabakitasun irmoa.

Krisi honek eragindako eskualdeetan bake-, justizia- eta berdintasun-behar handiena duten testuinguruetan jardungo duten proiektuei laguntzea eta horiek garatzea da ekintza-ardatz honen xedea. Prebentziozko erantzuna eta erantzun eraldatzailea eman behar dute proiektu horiek, eta laguntzeko eta lankidetzarako politiken bidez bideratuko dira, izan zuzenean, izan gizarteko edo erakundeetako eragileen bidez. Egoera horiek jasaten dituztenei entzunez zehaztuko dira jarduera horiek, eta une oro hartu beharko da kontuan xedeetako bat dela tokiko indarrak sustatzea.

4.2. Garapen-ildoak

Gerraren eta berdintasunik ezaren kausak gainditzeko lan egiten duten entitateekin eta erakundeekin egindako hitzarmenen bidez eratuko dira garapen-ildoei edukia emango dieten jarduerak, edo norabide berean dauden nazioarteko ekimenei lagunduz. Europako mugetan bortxazko lekualdaketak eragiten dituzten egoeren eragin handiena jasotzen duten eremu geografikoei emango zaie lehentasuna. Beste batzuk baztertu gabe, bi garapen-ildo lehenetsiko dira prebentziozko ekintza-ardatzean: gatazken konponbide baketsua eta eskubide sozialak berreraikitzea. Bi eremu horiek dira *premiazkoak* bezain *garrantzitsuak* eraldaketari eta kausen prebentzioari begira. Urtero ebaluatuko eta eguneratuko dira bi garapen-ildo horiek.

•Gatazken konponketa baketsua

Gatazken konponketa baketsua sustatzeko tokiko gaitasunak indartzea da garapen-ildo honen xedea. Bitartekaritza- eta diplomazia-ekintzei laguntzea, elkarrizketari laguntzea edo bakea zein giza eskubideen kultura eraikitzeko sare sozialak sortzea edo horietan sakontzea da kontua. Era berean, helburutzat bakea edo gerraren zein indarkeriaren amaiera dituzten nazioarteko ekintzei lagunduz ere isla daiteke.

•Eskubide sozialak berreraikitzea

Bidegabekeria-testuinguruetan, bizitza autonomia, buruaskia eta duina edukitzeko bitartekoak sustatzea da azken helburua. Horretarako, eskubide sozialak berreraiki behar dira osasunaren, hezkuntzaren, genero-berdintasunaren, erregistroaren, justiziaren, askatasunen, parte-hartzearen eta abarren arloan. Oinarrizko eskubide sozialak betetzera bideratutako gobernantza-ikuspegia duten elkartek eta erakundeak indartzea eta horiei laguntzea da garapen-ildo honen xedeetako bat.

5. Jarrera-ardatza

5.1. Azalpena

Erakunde baten jarrerak (kasu honetan, Eusko Jaurlaritzarenak) eragin erlatiboa dauka, baina zailantzan jar ezin daitekeen garrantzia dauka. Argi dago zer-nolako jarrera duen Eusko Jaurlaritzak errefuxiatutako pertsonen jasaten duten krisi humanitarioaren aurrean, eta dokumentu honetan azaldu da dagoeneko. Inguruabar jakin baten aurrean begiratzeko, aztertze eta jarduteko modua zehazten du jarrerak. Jarrera politiko-instituzionalak barne-mailako eta nazioarteko ondorioak dauzka. Hori dela-eta, bi garapen-ildo hauetan banatzen da jarduteko bosgarren ardatza.

Oinarritzko jarrera-ardatz honetan, balio estrategikoa dauka Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, EUDELe, Euskadiko hiriburuak eta GKEek partekatzen duten lan-mahaia sendotzeak, bai eta Arartekoa edo Eusko Legebiltzarreko errefuxiatuen inguruko barne-talde parlamentarioa erakundeekin koordinatzeak ere. Zentzu horretan, lan-mahai horren ardurapean utziko du Eusko Jaurlaritzak Errefuxiatuen Euskal Kontseilua sortzeko proposamena.

5.2. Garapen-ildoak

Barne-mailako eremuan, desberdinen arteko bizikidetza integratzailea sustatzeari bideratutako programak sustatzean islatzen da jarrera-ardatza. Giza eskubideetan eta elkartasunaren balio demokratikoan heztean oinarritzen da bizikidetza hori, errefuxiatuak harreran hartzeari eta gizarteratzeari dagokionean. Nazioarteko eremuan, Euskadiko erakundeek eragin dezaketen Europako edo nazioarteko instantzietan Eusko Jaurlaritzaren ahotsa eta proposamenak entzunaraziz garatzen da. Urtero ebaluatuko eta eguneratuko dira bi garapen-ildo horiek.


• Barne-mailako eragina

Eusko Jaurlaritzak gai honetan duen jarrera garatzen duten hainbat ekimen zehazten ditu Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020 Planak. Hala, bada, «Aniztasunaren kudeaketa positiboa» garatzera dago bideratuta 7. ekimena; «Elkartasuna sustatzera» dago bideratuta 8.a; bizikidetzaren eta giza eskubideen kulturaren sustapenaren barruan, «Hezkuntzaren» alderdia garatzen du 9. ekimenak; «Dibulgazioa» garatzen du 10.ak, eta «Parte-hartzea» 11.ak. Ekintza-ardatz honen garapen-ildo bera irudikatzen du ekimen-sorta horrek.

• Kanpo-mailako ekintza-eragina

Euskal gizarteak eta bertako erakundeek krisia kudeatzeko moduaren aurrean eta bestelako proposamenen defentsaren aurrean duten jarrera kritikoa Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Euskal Agendaren zati dela balioestean datza garapen-ildo hau. Proiektzio europarra eta nazioartekoa duen jarrera da, beraz. 2017an, UNHCRrekin lerrotatzea dakar jarrera horrek, eta UNHCRk egiten dituen deialdi guztiak babestea, bai Europar Batasunak eta estatuetako gobernuek hartutako konpromisoak betetzeari dagokionez, bai EB-Turkia Itunarekin sortu den esparru eskasa gaitutako duen Europako asilo-eskubidea errespetatzeko bermeen esparrua aldarrikatzeari dagokionez.





2. dokumentua

Migrazio-erronka berriei erantzun
integrala emateko Eusko Jaurlaritzaren
estrategiaren egokitzapena

Migrazio-erronka berriei erantzun integrala emateko Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren egokitzapena

Europako, Estatuko eta EAEko
eremuetako ekimenen esparrua

2018ko iraila

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sarrera

Migrazio-mugimenduek Europaren erantzuna eskatzen duten arazo bat dira. Dena den, erantzuna ez da soilik Europarena; Estatuarena, EAErena, foru-aldundiena eta udalena ere bada. Batetik globalizazioaren eta bestetik injustizien eta desparekotasunen ondorio diren migrazio-prozesuek eskumen-maila guztietan eragiten digute.

Gaur egun, migrazio-mugimenduen barruan, errealitate ezberdinak nahasten dira: errefuxiatuak, asilo-eskatzailerak, sistematik kanpo geratzen diren asilo-eskatzailerak, aberrigabeak, bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrak, bidaiderek gabeko gazte atzerritarrak, iragaitzazko zein geratzen diren migratzaile ekonomikoak, Europako beste herrialde batzuetatik itzuli dituzten migratzaileak, ahultasun-egoeretan dauden migratzaileak...

Bestalde, migrazio-erronkak badu lotura erronka demografikoarekin. Europako gizarteek —eta EAEkoak, bereziki— etorkinen ekarpenaren behar objektiboa dute ongizate-ereduari eusteko. Gaur egun, munduko herrialde aberatsenak dira migrazio-fluxuak hartzen eta integratzen eta beren barruan kulturen eta erlijioen arteko elkarbizitza bultzatzen ondoen jakin dutenak.

Migrazio-erronkari erantzuna ematea elkartasunaren betebeharrak etikoa eta arauzko betebeharra da; baina, aurrerapenaren eta oparotasunaren betebeharra ere bada.

EAEko erakunde publikoak eta gizarte-erakundeak migrazio-fenomenoei erantzun antolatua eta solidarioa emateko sistema bat eratu dugu EAEn, gure eskumen-eremutik harago ere. Sistema ez da perfektua, eta ez dago amaituta; baina integrala da, eta saiatzen da errealitate aldakor bati erantzunak ematen.

Hala ere, hori guztia, beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa. Ezinbestekoa da hobetzen jarraitzea gure garaiaren konplexutasunak bereizgarri duen erronka horri ematen diogun erantzuna. Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan, honako ekimen hauek onetsi ditu hartutako konpromisoari eta orain arte egindakoari jarraipena emateko:

- Europako eremuan, SHARE Proposamena aurkeztea. Ekimenaren helburua da migratzaile mota desberdinei harrera egiteko eta integratzeko ahaleginaren lurralde-banaketarako gako bat era transbertselean adostea Europako eremuan. Proposamena zenbait estatuz azpiko gobernurekin partekatuko da, hura elkarrekin sustatzea aztertzeke, Europako erakundeei eskaintzen eta zuzentzen zaien konpromiso gisa.
- Estatu eremuan, Eusko Jaurlaritzak lan partekatuko agenda bat eskainiko dio Espainiako Gobernuari, Europaren erantzun integral bat eratzeko migrazio-erronkaren aurrean. Dokumentu honetan garatzen da. Proposamen irekien multzo bat da, zeinen helburua baita dauden erakunde-eremuen artean esku-hartze harmonizatua garatzea.
- EAEko eremuan, migraziorako EAEko gizarte-itun bat sustatuko da; zenbait arlotan eratutako erakundeen arteko eta gizarte-erakundeen lan-mahaiak finkatuko dira, eta proposatuko da haiek Immigrazio-ko Foroarekin koordinatzea ikuspegi integral eta globalarekin. Lan-mahaiaren eta lantaldeen egitura horrek bost helburu izango ditu, gutxienez: (1) **“Immigrazio erregularizatua sustatzea”**, (2) **“Errefuxiatuei erantzun egokia ematea”**, (3) **“Migratzaileen arautu gabeko etorrerari elkartasunez eta era humanitarioan erantzuteko behar diren baliabideak antolatzea”**, (4) **“Migratzaileei, bidaiderek gabeko adingabe eta gazte atzeritarrei arreta berezia jarritz, harrera egiteko eta haiek integratzeko erantzunak koordinatzea eta optimizatzea”**, eta (5) **“Migraziorako EAEko Gizarte Ituna sustatzea”**.

**Migrazio-erronkaren aurrean
Europaren erantzun integral bat
eratzeko lan-agenda bat Espainiako
Gobernuarekin partekatzeko Eusko
Jaurlaritzaren proposamena**

Eskumen-eremuak				
Europar Batasuna		Espainiako Gobernua	Helburua	Euskal Autonomia Erkidegoa Eusko Jaurlaritza
Gaikako helburuak •Ekintza transbertsalak. Politika erkide eta transbertsaleko ekintzak sustatzea, migrazio-erronkari bere osotasunean erantzuteko, elkartasunaren, justiziaren eta giza eskubideen balio eta ideal europarretan oinarrituta.	•Migrazio-erronkari erantzuteko bidezko eta borondatezko banaketarako gako bat era transbertsalean eratzea (SHARE Proposamena). •Estatuek erantzukizunaren beren zatia hartzea sustatzeko neurriak ezartzea. •Pobreziaren eta desparekotasunaren eta haien kausen aurkako borrokan aitzindari izatea, horretarako migratzaileen jatorriko herrialdeen indarra eta giza kapitala sustatzera bideratutako kogarapeneko ardatz partekatutak sustatuz.	•Bidezko eta borondatezko banaketa-gako bat era transbertsalean eratzea migrazio-erronkaren aurrean Espainiako Estatuak eman behar duen barne-erantzunean (SHARE Proposamena). •Migrazio-erronkari bere osotasunean eman behar zaion erantzuna artikulatzeko, optimizatzeke eta bateratzeko helburu espezifikoak izango duen ministerioarteko organo edo agentzia bat sortzea.	Helburua •Bidezko eta borondatezko banaketa-gako bat era transbertsalean eratzea EAEk migrazio-erronkari eman behar dion erantzunean. •SHARE Proposamenaren bidez estatuz azpiko eragileen eta gizarte-eragileen Europako aliantza bat eratzea migrazio-erronkari erantzun konprometitu emateko.	Egindakoa edo aurreikusitakoa •Share Proposamena prestatu da. •Ekimena datozen hila batean garatzea aurreikusten da.
	•Pertsona-salerosketako sareen eta mafien aurka borrokatzeke bitartekoak eta baliabideak indartzea, eta haiek kokatuta dauden herrialdeekiko aldeko akordioak eta konpromisoak sustatzea. •Europako demokrata guztiak diskurtso toxikoen aurka lerrokatzeke akordio handi bat sustatzea, hartara, elkartasunean eta erantzunkidetasunean oinarritutako harrera- eta integrazio-pedagogia eta diskurtsoa partekatzeke. •Migrazio-erronkak duen dimentsioak eskatzen duen neurrian handitzea aurrekontu-baliabideak.	•Estatuko Gobernuak autonomia-erkidegoekin, udalekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko, koordinatzeko eta informazioa trukatzeko organo iraunkorra sortzea. •Migrazio-erronkak duen dimentsioak eskatzen duen neurrian handitzea aurrekontu-baliabideak.	•Migrazio-erronkari begira erantzun guztiak Immigrazioarako Forotik koordinatu. •EAEko demokrata guztiak elkartasunean eta erantzunkidetasunean oinarritutako harrera- eta integrazio-pedagogiaren alde lerrokatuko dituen gizarte-itun bat sustatzea. •Migrazio-erronkak duen dimentsioak eskatzen duen neurrian handitzea aurrekontu-baliabideak.	•Koordinazio-lan horiek bere gain hartuko dituela aurreikusten da. Osoko bilkurak eta batzordeak ditu eta hauekin lantalde desberdinek bat egingo dute. •Prozesua hasi da. Foroko lantalde berrietako bat itunean zentratuko da. •Lau milioi euroko aparteko partida bat dago erabilgarri.

Eskumen-eremuak			
	Europar Batasuna	Espainiako Gobernua	Euskal Autonomia Erkidegoa Eusko Jauriaritza
Gaikako helburuak	·Hirugarren herrialdeetarako Estatu-kideen baliabide kontsularren hornidura hobetzen eta migrazio erregularizaturako ordezkaritza diplomatiko desberdinen koordinazioan lidergo handiagoa onartzen laguntzea. ·Aldi baterako migrazio zirkularra bultzatzea Europan, garapenerako lankidetzaren aldeko Europako politikekin bat etorriz. ·Informazioa biltzea hobetzea, eta gai honetan praktika onen trukatzea bultzatzea estatu kideen artean.	·Kontsul-baliabideak sendotzea eta jatorriko herrialdeetan bizileku-, lan- eta ikasketak-bisak eskuratzea bultzatzea, immigrazio-segurua lortzeko. ·Gobernu autonomikoei eta eskualdeetako gobernuei lan- eta bizileku-baimenak kudeatzeko eskumenak eta baliabideak izan dituzaten behar diren lege- eta araudi-aldaketak sustatzea. ·Aldizkako migrazio zirkularra erraztea eta bultzatzea ikasketak- eta lan-arrazoiengatik.	Helburua ·Immigrazioaren eremuan jarduketa integraleko plan bat izatea, zeinak garrantzi handia emango baitie harrerako, integrazioa eta kultura-aniztasuneko estrategiei. ·Estatuko administrazioarekiko lankidetzaren sustatzea eta proposiziozko jarduketa bat aurrera eramatea aurreko zutabearen aurkeztutako proposamenen ildotik. ·EAEen erakunde- eta gizarte-eragile guztiekiko koordinazioa dinamizatzea, baita dauden baliabideak harmonizatzea ere. ·Erronka demografikoaren ondorioz EAEko gizarteak duen etorkin-beharrei buruzko azterlana enkargatzea.
Gaikako helburuak			
Immigrazio erregularizatua.			
Immigrazio erregularizatu ordenatua eta adostua sustatzea, jatorrizko herrialdeetako errealitatea eta Europan erronka demografikoak planteatzen dituen beharrak kontuan hartuta.			Egindakoa edo aurreikusitakoa ·Herriartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana aurten onetsi da (ekaina). ·Jarduera etenik gabe egiten ari da. ·Immigrazioarako foroan egiten ari da zeregin hori. ·Azterlana Ikuspegiari enkargatuko zaio 2018. urtea amaitu aurretik.

Eskumen-eremuak			
Europar Batasuna		Espainiako Gobernua	Euskal Autonomia Erkidegoa Eusko Jaurlaritza
Gaikako helburuak •Errefuxiatuak. Nazioarteko babesaren eskatzaileen eta errefuxiatuen harrerari eta integrazioari, begirada jarriaz bereziki. •Asilo-eskaerak aztertzeke Europako bulegoak sendotzea eta bere kopurua handitze, UNHCR erakundearekin lankidetzan, jatorrizko, mugakide eta iragate herrialdeetako enbaxadetan eta kontsulen bulegoetan asiloa eskatzeko aukera bermatzeko. •Asilorako prozedura azkarreko Europako estandar bat ezartzea, dauden praktika onak aintzat hartuz, Herbehereek ezarritako eredu adibide gisa. •Bidezko eta borondatezko banaketarako gako bat era transbertsalean eratzea nazioarteko babesaren eskatzaileei eman beharreko erantzun espezifikoan, hartara erantzuna kuantitatiboki zein kualitatiboki hobetu ahal izateko. (SHARE proposamena). •Estatuek erantzukizunaren beren zatia hartzea sustatzeko neurriak ezartzea.	•Espainiako ereduaren eraldatzea, Harrera eta Integrazio Sistema kuantitatiboki zein kualitatiboki hobetzeko eta aintzeko. Honako hauen moduko proposamenak kontuan hartuta. •Gobernu autonomikoek eta tokiko gobernuak nazioarteko babesaren eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera- eta integrazio-prozesuetan parte hartu dezaten sustatzea, 12/2009 Legearen (Asiloaren Legea) 31. artikulua aldatuz. •Asiloaren Legeak egiteke duen erregulamendu bidezko garapenari ekitea, eta haren esparruan sartzea aurreko aurreikuspena. •Aukera ematea enbaxadek eta kontsulatuak asilo-eskaerak izapidetzeko. •Bidezko eta borondatezko banaketa-gako bat era transbertsalean eratzea errefuxiatuen eta asilo-eskatzaileen harrerarako eta integrazioarako Espainiako Estatuak eman behar duen barne-erantzunean (SHARE Proposamena). •Asilo-eskatzaileen harrerarako bide seguruak bultzatzea, Korridore Humanitarioen formularen, familia berrelkartzearen edo ikasketa-beken bidez. •Autonomia-erkidegoekin adostuta babes komunitarioen bidea sustatzea.	Helburua •Errefuxiatuen harreraren eta integrazioaren eremuko jarduketaren integrazio plan bat izatea. •Parte hartzen duten EAEko erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiak koordinatzea. •Ahulezia humanitarioko egoerak arintzeko baliabideak ematea, batez ere adingabeei, migrazio-errefuxiatuei edo gerraren, bidegabekiaren edo beste larrialdi humanitarioen biktimei eragiten badiete. •Errefuxiatuen eta asilo-eskatzaileen harrera eta integrazioa bultzatzea. •Errefuxiatuak eta asilo-eskatzaileak iristeko bide seguruak sustatzen laguntzea. •Nazioarteko babesaren eskatzaileentzako lehen harrerako zentro bat sortzea.	Egindakoa edo aurreikustakoa •Eusko Jaurlaritza 2017ko ekainetik dauka tresna hori. •Badago lan-mahai bat, Immigrazioako Foroarekin koordinatutako lantalde bat izango dena. •2.000.000 eurorekin erantzun zaie UNHCR, Save The Children, Unicef, Zaporeak eta abarren deiei. SMHren salbamendu-ontzi bat itsasoratzen lagundu da. •2015. urteaz geroztik EAEn 463 leku sortu ditugu, eta horiek 2.000 pertsona inguru hartu dituzte. •Korridore Humanitarioen bidea proposatu dugu. Espainiako Gobernuarekin bi esperientzia pilotu sustatu ditugu. Babes komunitarioa defendatu dugu UNHCRekin. •Zentroa 2018ko irailean inauguratuko da, Oñatin.

Eskumen-eremuak				
Europar Batasuna		Espainiako Gobernua	Euskal Autonomia Erkidegoa Eusko Jaurlaritza	
Gaikako helburuak	•EBko estatuek erregularizatu gabeko egoeran eta ahultasun-egoeretan dauden migratzaileei eskaini behar dieten erantzun humanitarioarako gutxieneko estandar europarrak ezartzea, eta horretarako behar diren baliabide ekonomikoez hornitzea. •Migratzaileen jatorriko herrialdeekiko akordioak sustatzen aitzindari izatea eta horiek dinamizatzea, kogarapena, lanbide-heziketa eta desparekotasunak gainditzea sustatzeko. •Pertsona-salerosketako sareen eta mafien aurkako borroka koordinaturako baliabideak handitzea, eta haiek kokatzen diren herrialdeekiko konpromisoak handitzea.	•Paperik gabeko migratzaileen eta ahultasun-egoeretan dauden migratzaileen harrerarako, integrazioarako eta erantzun humanitarioarako programak eguneratzea eta migrazio-fluxu berriek planteatzen dituzten behar berrietara egokitutako programa bateratu batean biltzea. •Paperik gabeko migratzaile ekonomikoak eta ahultasun-egoeretan dauden migratzaileak iristearen aurreko erantzunean autonomia-erkidegoek aurreikusi beharko lituzketen erantzun humanitarioarako gutxieneko estandarrik ezartzea, eta horretarako behar diren baliabide ekonomikoez hornitzea. •Etorkinen Harrera eta Integrazioa Laguntzeko Funtse berriro jarri eta behar bezala hornitzea.	Helburua •Iragaitzazko migratzaileei erantzun humanitarioa emateko antolaketa-plana izatea, gainontzeko euskal erakundeekin eta gizarte-erakunde espezializatuekin adostuta. •Erakundeen arteko koordinazioa eta koordinazio sozialeko esparru bat izatea. •Iragaitzazko migratzaileentzat 3-5 eguneko larrialdiko harretarako zentroak eta plazak izatea. •Ahultasun-egoeran dauden migratzaileentzako 15-20 eguneko egonaldietarako zentroak eta plazak izatea. •Migratzaileen integrazioari laguntzeko programak indartzea.	Egindakoa edo aurreikusitakoa •Udazken honetan egingo da uda honetan egindako lana oinarri hartuta. •Badago 2018ko udan sortutako lan-mahai bat, zeina Immigrazioako Foroko lantalde bat bihurtuko baita. •213 plaza sortu dira, lau zentrotan. 2019rako beharren ebaluazioa egingo da. •Berriz zentro bat sortu da. 2019rako beharren ebaluazioa egingo da. •Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta inmigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana (2018-2020) onartu da 102 ekintzein •Harrera Programako plaza kopurua handitu da. 2019rako beharren ebaluazioa egingo da.
Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Erregularizatutako dokumentaziorik gabe eta ahultasun-egoeretan dauden migratzaileei erantzun humanitarioa emateko behar diren baliabideak sortzea.				

Eskumen-eremuak			
Europar Batasuna		Espainiako Gobernua	Euskal Autonomia Erkidegoa Eusko Jauriaritza
Gaikako helburuak ·Bidaiderik gabeko gazte atzerritarrak gizarteratzea eta laneratzea babesteko Europako programa bat ezartzea.	·Bidaiderik gabeko gazte atzerritarrak gizarteratzea eta laneratzea babesteko Europako programa bat ezartzea.	·Autonomia-erkidego guztien arteko koordinazio-esparru bat eratzea. ·Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei erantzuteko ahalegina autonomia-erkidegoen artean zuzentasunez banatzeko gako bat sustatzea (SHARE Proposamena). ·Konpromiso hori baliabide ekonomikoz eta denboran irauteko bermeaz hornitzea. ·Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren harrerarako eta integratziorako zerbitzuetan estandarrak ezarriko dituzten arauzko tresnak harmonizatzea. ·Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren jatorriko herrialdeekin akordioak sustatzea haurrek beren familiak utzi behar ez dituzten baldintzak bultzatzeko, hala nola lanbide-heziketarako laguntza, garapenerako lankidetzako proiektuak edo familiarekin itzultzeko programak.	Helburua ·Foru-aldundiei laguntzea bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei erantzuten. ·Egoitza-baliabideei buruzko 131/2008 Dekretua aldatzea sustatzea. ·Bidaiderik Gabeko Adingabe Atzerritarren Harrera Urgentea Jarduketa Protokoloa eguneratzea. ·Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren jatorriko herrialdeetako kogarapeneko proiektuak sustatzea, hartara adingabeek beren familiak utzi behar ez dituzten. ·Bidaiderik gabeko gazte atzerritarrak gizarteratzeko eta laneratzeako plan integral bat koordinatu eta dinamizatzea.
Egindakoa edo aurreikusitakoa ·Sailen eta erakundeen arteko lan-mahai bat eratu da, zeina Immigrazioako Foroko lantalde bihurtuko baita. ·Abian da. ·Abian da. ·Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zenbait aukera aztertzen ari da. ·Abian da eta azaroan aurkeztuko da.			





SHARE Proposamena

SHARE Proposamena

Europar Batasunean migrazioaren erronkari heltzeko
erantzunkidetasun-printzipioa era transbertsalean
aplikatzeko mekanismoa

2019ko otsailaren 27a

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sarrera

SHARE Proposamenaren helburua da Europako eremuan erantzunkidetasun-printzipioa eragin-esparru transbertsalean aplikatzea eta gauzatzea migrazio-erronkaren aurrean, ahultasun gehieneko errealitateetan. Transbertsalitaterako bokazioa da bere funtsezko ekarpena. Erantzunkidetasunaren printzipioa aplikatzeak esan nahi du konpromiso arduratsuaren bidez erantzuna partekatzea gizarte inklusiboen eraikuntzara bideratuta.

Proposamenaren esparruan, “Share” terminoak —*partekatzea*— esanahi bikoitza dauka. Batetik, esan nahi du eskubide eta betebeharrak emanda tokia egitea bizi-proiektu baten bila datozenei. Eta, bestetik, esan nahi du europar sentitzen garenok jabetu behar dugula migrazio-erronkari eman behar behar zaion erantzunak koordinatua, antolatua eta jasangarria izan behar duela.

Erronka honi eman beharreko erantzuna azterketa- eta borondate-kontua da; baina, horrez gain, ezinbestekoa da antolaketa- eta eragiketa-osagaia, zeinak aukera emango baitu erantzunkidetasun-printzipio hori errealitate bideragarria, jasangarria eta era transbertsalki aitorgarria bihurtzeko, eta diskurtso toxikoak zein beldur eta zurrumurru funsgabeak deuseztatuko baititu.

Proposamenak balio eta ideal europarretan oinarritutako elkartasunaren betebeharra erantzukizunez eta era sistematizatuan partekatzeko mekanismo zehatz bat dauka. Zentzu honetan, ekimen honen esparru eta azken helburua bizikidetzeta eta barne hartzea da. Gertaera migratzaileari dagokionez, horixe da jarduera instituzionalaren xede nagusia.

Zehazki, SHARE Proposamenak bi elementu ditu: (1) Migrazio-erronkaren aurrean, harrerako eta integrazioko konpromisoa banatzeko gako transbertsala ahultasun gehieneko errealitateetan, eta (2) gako hori zer gai- eta lurralde-eremutan aplikatu daitekeen.

Partekatzetik abiatzea proposatzen dugu. Izaera transbertsala da proposamenaren berritasuna; baina berritasuna izango da, halaber, Europako estatuz azpiko zenbait gobernuk estatu-gobernuei proposamenak aurkezten duen moduko konpromiso bat hartzeko gure prestutasuna helarazteko gauza izatea ere. Azken batean, horrela, ideia honekin laburbil daitekeen mezua igorriko genieke: “Konpromisoa eskatu eta eskaintzen dugu”.

1. Migrazio-erronkaren (bere osotasunean) aurrean, harrerako eta integrazioko konpromisoa banatzeko gako transbertsal bat

Proposamenaren formulazioa

SHARE Proposamena honetan datza: Europako-eremuan era transbertsalean migratzaileen harrerarako eta integratzearako ahaleginaren mota guztiak lurraldeka banatzeko gako bat adostean. Eusko Jaurlaritzak hiru parametrotan oinarritu du proposamena¹:

- diru-sarrera fiskalak (edo Batez Besteko Errenta Eskuragarria, edo BPG), % 50eko pisuarekin;
- biztanleria, % 30eko pisuarekin;
- eta langabezia-tasa, % 20koarekin.

Proposamena irekia da, noski. Haren planteamendua, parametroak edo horien pisuaren ehunekoak aldatu ahal izango dira, ahalik eta adostasunik onena eta zabalena erdieste aldera.

Justifikazioa

Ahalegina nahiko era orekatuan partekatze mekanismo bat eman lezake proposamenak. Erantzunkidetasun-printzipioari heltzeko modu zehatzari eragiten dioten hiru parametro kontuan hartu dira. Parametro bakoitzak oinarri bat du atzean:

- Lehenik, diru-sarrera fiskalak, BBEE edo BPG. Horrela, proposamenak aukera ematen du lurralde-eremu bakoitzeko egoera eta baliabideak kontuan hartzeko ahalegina banatzerakoan.
- Bigarrenik, biztanleria. Proporzionaltasun-faktore bat da, eta, hala, laguntzen du ahalegina partekatze modu orekatu eta zentzuduna ezartzen.
- Hirugarrenik, langabezia-tasa. Langabeziaren aldagaia kontuan hartu behar da, migratzaileen integratzeak lotura zuzena baitu haien laneratzearekin.

¹ Proposamena *Königstein* gakoan inspiratuta dago, zeina Alemanian erabiltzen baita asilo-eskatzailerak estatu federatuen artean banatzeko. Alemanian, estatu federatu bakoitzak jasoko zituen asilo-eskatzailerak kopurua zehazten zuten parametroak honela oinarritu ziren: 2/3 haren zerga-sarreretan, eta 1/3 haren biztanle kopuruan.

2. Gakoa zer gai- eta lurralde-eremutan aplika daitekeen

Proposamen honen eta SHARE gakoaen aplikazioa hiru gai-eremutan eta hiru lurralde-eremutan proiektu daiteke era transbertsalean:

2.1. Gai-eremuak

- **Errefuxiatuak.** Errefuxiatuen eta asilo-eskatzailen banaketa transbertsal bati aplikatzea SHARE gakoa.
- **Erregularizatu gabeko eta ahultasun-egoera berezian dauden migratzaileak.** Larrialdi humanitarioko egoeran, ahultasun-egoeran edo erregularizatzearen zain dauden migratzaile ekonomikoen banaketa transbertsal bati aplikatzea SHARE gakoa.
- **Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak.** Bidaiderik gabeko adingabe eta gazte atzerritarren estatu bakoitzaren barruko banaketa transbertsal bati aplikatzea SHARE gakoa.

2.2. Lurralde-eremuak

- **Estatuak.** EBren barruan SHARE gakoa proposatzea, estatuen artean banatzeko errefuxiatuak, asilo-eskatzailak eta larrialdi humanitarioko egoeran, ahultasun-egoeran edota aglomerazio altuko egoeran dauden migratzaile ekonomikoak.
- **Autonomia-erkidegoak edo eskualdeak.** Estatu bakoitzaren barruan SHARE gakoa proposatzea, autonomia-erkidego edo eskualdeen artean banatzeko errefuxiatuak, asilo-eskatzailak eta larrialdi humanitarioko egoeran, ahultasun-egoeran edo aglomerazio altuko egoeran dauden migratzaile ekonomikoak eta bidaiderik gabeko adingabe eta gazte atzerritarrak.
- **Udalerriak eta eskualdeak.** Autonomia erkidego edo eskualde bakoitzean SHARE gakoa proposatzea, udalen eta eskualdeen artean banatzeko errefuxiatuak, asilo-eskatzailak eta larrialdi humanitarioko egoeran, ahultasun-egoeran edo aglomerazio altuko egoeran dauden migratzaile ekonomikoak.



4.

dokumentua

2019 Kontingentzia-plana,
Euskadira iristen diren
iragaitzazko migratzaileei
laguntza humanitarioa emateko

2019 Kontingentzia-plana, Euskadira iristen diren iragaitzazko migratzaileei laguntza humanitarioa emateko

2019ko ekainaren 3a

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkezpena

Migrazioa ez da egoeraren arabera fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko fenomeno. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean, Europako zuzenbidean, eta nazioartekoan. Arau-dimentsioa du. Eta baita dimentsio humanitarioa ere, etika demokratikoa, gizarte batek elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna definitzen baitu.

Euskadi eta euskal erakundeak lanean ari gara azken urteetan errealitate honi erantzun integrala egituratzen, dituen adierazpen guztietan: migratzaile ekonomikoak, asilo-eskatzaileak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak (BDAA), bakarrik dauden gazte atzerritarrak (BDGA), iragaitzazko migratzaileak edo ahultasun-egoeran dauden migratzaileak. Pertsona horiek guztiek dituzte eskubideak eta betebeharrak, nolabait bideratu beharrekoak.

Eta ez bakarrik agindu etiko eta araubidezko baten aurrean gaudelako, baita migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak baduelako aurrerabide-alderdi bat ere. Munduko herrialderik aberatsenek modu egokian jakin izan dute migrazio-fluxuak eta kultura-aniztasuna integratzen. Faktore hori ez zaio arrotz erronka demografikoari. Europako gizarteok eta, bereziki, euskal gizarteak, immigrazioa behar dugu ongizate-ereduari eutsi ahal izateko.

Marko horren barruan, 2018an Euskadin euskal erakundeek eta gizarte-entitateek elkarrekin lanean jarrita, errealitate horren adierazpen berri bati egin behar izan diogu aurre: Europako beste herrialde batzuetarantz bidaian diren iragaitzazko migratzaileak iritsi dira. Gertakari hori ez da guztiz berria, baina bai iaz iparreranzko bidean gure lurraldea igaro duten pertsonen kopurua.

2015etik aurrera, Afrikatik Europara iristeko bide garrantzitsuenak ekialdetik mendebalderantz egin dute, betiere migratzaileek non edo han aurkitu izan dituzten oztopoek bultzatuta. Hasiera batean, bide nagusia Mediterraneoaren ekialdea izan zen, Grezian barna. Gerora, bide hori Mediterraneoaren erdialdera aldatu zen, batez ere Libia eta Italia artera. 2018an, Mediterraneoaren mendebaldera etorri da bide hori, Magreb eta Espainiako hegoaldeko kostara.

Iaz, hirugarren bide hori zeharkatu zuten Europara Mediterraneo itsasoan barna etorri zirenen % 68k; gainerakoek beste bi bideak baliatu zituen. Ia-ia hirukoiztu da Andaluziako itsasertzerantz iritsitako patera eta beste itsasontzi eskas batzuen kopurua. 2017an, 1.971 pertsona izan ziren. 2018an, 57.498 pertsona iritsi dira penintsulara bide horien bitartez.

2018ko ekainaren 16an, Saharaz hegoaldeko migratzaileak zekartzan autobus bat iritsi zen Donostiako geltokira, Andaluziaren hegoaldetik. Horien helburua zen bidaia jarraitzea Europako iparralderantz, baina egia da akituta iritsi zirela, nahasita, eta atsedean, higie eta elikadura beharrekin, beren onera itzuli beharrean. Egun hartatik 2019ko martxoaren amaierara arte, etengabe iritsi dira migratzaileak Euskadira.

Orduko hura ez zen iragaitzazko migratzaileen errealitatearen dimentsio berriaren lehen zantzia baino. Euskal erakundeek erantzun genuen, gure ahalmenak koordinatu genituen, eta Gurutze Gorriarekin batera lanean, premiazko harrera egiteko aterpetxeen sistema bat paratu genuen (aurrerantzean aterpetxe deituko ditugu). 2018ko ekainetik 2019ko martxora arte, 8.662 pertsona artatu dituzte, guztira, aterpetxe horietan.

Horretarako sortutako aterpetxeen egitura eta beren funtzionamendua egokitzen joan dira iristen joan diren migratzaileen fluxuaren eta haien beharren arabera. Euskal erakundeek eta Gurutze Gorriaren arteko elkarlana hori koordinazioko lan-mahai baten bidez bideratu da, zeinean beste gizarte eragile batzuk ere parte hartu izan duten.

Martxoan, apirilean eta maiatzean, baina, nabarmen murriztu da iragaitzazko migratzaileen iritsiera, eguneko hamar bat pertsonako batez bestekoraino. Abagune horretaz baliatuta, 2019ari geratzen zaionerako erantzunak prestatzeko ekin diogu. Erantzukizunez jokatzeko, pentsatu behar dugu 2018an bizi izandako fenomenoak aurrean ere bere horretan jarraituko duela, baita areagotu egingo dela ere.

Agiri honen xedea da kontingentzia-plan bat definitzea 2020ko hasierara arte garatuko dugun laguntza humanitaria emateko. Plan honek oinarrian du 2018an bizi izandako egoera, eta helburutzat du erantzun egokia ematen jarraitzea —eta hobetzea—, hau da, erantzun gizatiar, orekatu, jasangarri eta elkartasuneko. Kontingentzia-plan honen edukia Eusko Jaurlaritzak Gurutz Gorriarekin adostu du, eta hiru Foru Aldundiekin eta Bilbo, Donostia eta Gasteiz eta Irungo Udalekin partekatu, maiatzaren 26ko hauteskundeetan ostean udal- eta foru-gobernu berriak eratu zain.

1. 2018ko ekainetik 2019ko martxora arteko esperientziaren balantzea

1.1. Egokitutako aterpetxeak

2018ko ekainetik hona lau aterpetxe egokitu dira iragaitzazko pertsonen harrera egiteko: Bilbokoak 88 leku ditu; Donostiakoak, 30 leku; Irungoak, 60 leku, eta Gasteizkoak, 55 pertsonentzako lekua.

Aterpetxe sortuak osatzeko, 2018ko irailaren 9an zentro espezializatua bat prestatu zen Berrizen, eriondo edo egoera bereziki ahulean dauden iragaitzazko migratzaileak artatzeko espezializatua. 2018an zehar, 49 pertsona artatu dituzte zentro horretan.


Horrez gain, 2018ko urrian Larraña Etxea ireki zen Oñatin, eta 100 pertsona har ditzake. Haren lehen helburua da lehen harrerako zentroa izatea nazioarteko babesa eskatu duten eta beren egoera argitu zain dauden pertsona eta familientzat. Alabaina, salbuespenez eta berebiziko premia larrietarako, zentroak ahultasun-egoeran dauden migratzaileak, iragaitzazkoak edo Euskadira iritsi berriak ere hartzen ditu. Hartara, une jakin batzuetan harrera-ahalmena areagotzeko aukera ematen du, halakorik behar izatera.

1.2. Aterpetxeetako harrera- eta egonaldi-datuak

Gorago esan den bezala, 8.662 pertsona artatu dituzte 2018ko ekainetik 2019ko martxora arte. Horietatik % 4 Araban, % 60 Bizkaian eta % 36 Gipuzkoan. % 85 gizonezkoak izan dira, % 13 emakumeak, eta % 2 adingabeak. Nazionalitatearen arabera, horien arteko % 40 Gineakoak dira; % 20 Malikoak; % 12 Boli Kostakoak; eta % 28 Kamerun, Nigeria, Senegal eta Burkina Fasokoak. Migratzaile horien % 90ek frantsesez hitz egiten dute.

1. koadroa. Aterpeetan artatutako pertsonen eta emandako gauen (loaldien) kopuruak. (Iturria: Gurutze Gorria)

	Aterpetxeetan artatutako pertsonen kopurua	Emandako gauen (loaldien) kopurua
2018ko ekaina	690	135
2018ko uztaila	675	1.438
2018ko abuztua	1.407	3.126
2018ko iraila	971	1.821
2018ko urria	1.467	2.308
2018ko azaroa	973	1.494
2018ko abendua	1.023	1.281
2019ko urtarrila	954	1.189
2019ko otsaila	300	506
2019ko martxoa	202	243
Guztira	8.662	13.541



Errealitate hau bere dimentsioan zuzen aztertu ahal izateko, funtsezkoa da jakitea aterpetxeetan geratu direnek zenbat denbora egin duten, batez beste. Baloratzen ari garen aldian, artatutako gehien-gehienak lehen gaua eman ostean joaten dira. Edonola ere, eta gutxi gorabeherako datuen arabera, % 95ek bidaia jarraitu dute Euskadin bost egun eman baino lehen.

Horrek esan nahi du aztertutako aldi osoan 325 pertsona inguru geratu dela Euskadin bertara iritsi eta bosgarren egunetik harago. Jasotako eskakizunen zenbait adierazlek emandako gutxi gorabeherako informazioan oinarrituta, pentsa daiteke pertsona horien arteko % 50ek hamabost egun bete baino ekin diotela berriro bidaiari.

Horrenbestez (eta errore-marjina +/- 50 ingurukoa izanik), pentsa daiteke ezen, 2018ko ekainetik 2019ko martxora bitartean, artatutako 8.662 iragaitzazko etorkinetatik 150 inguru geratuko zirela Euskadin, bi aste pasa ostean. Azkenean gure herrian luzaroago geratzea erabakitzen dutenek zenbait arrazoi izaten dituzte horretarako: senide-, lagun- edo harreman-sareak izatea, instalatzeko aukerak aurkitu izana, edo asilo-eskatzaile gisa nazioarteko babesa eskatu izana.

1.3. Eskaintako arreta-zerbitzuak

Beste norabaiterako bidean Euskaditik igaro diren iragaitzazko migratzaile guztiek ez dute sortutako aterpetxeetan lo egin nahi izan. Haietako batzuek harremanak edo sareak zituzten, edo nahiago izan dute aurrera jarraitzea, atsedean hartu eta indarberritzeko geratu gabe. 2018ko ekainetik Euskadira iritsi diren eta Gurutze Gorriaren arreta onartu duten iragaitzazko 8.662 pertsonen honako zerbitzu hauek jaso izan dituzte:

- Osasun-egoeraren azterketa. Berariazko osasun laguntza behar izaten denean, OSAKIDETZArekin koordinatzen da.
- Elkarriketa, balioesteko eta –beharrezkoa izatera– ahultasun-egoeran dauden pertsonentzako espezializatutako zentroetara bideratzea.
- Aterpetxeari eta bertan ematen den laguntzari buruzko informazioa.
- Gizarte- edo senide-sareekin harremanak berreskuratzea: telefono-kargagailuak, wifi guneak, eta senideei deitzeko laguntza.
- Lehen mokadua, harrera-izapideak egiten diren bitartean.
- Lehen jana; horrez gain, elikagai-zerbitzua eskaintzen da, catering-zerbitzuen edo gizarte-jantokien eskutik.
- Gaua ematea: harrera-izapidearen ostean, lo egiteko baliabidera jo dezakete, eta indarberritzeko prozesuarekin jarraitu, 3-5 eguneko alditan (7ra ere luzatu daitezke premia bereziko kasuetan, baldin eta horretarako leku liberik balego).

·Hona aterpetxeetan eskainitako beste zerbitzu batzuk: gosaria, afaria, medikuak agindutako produktuen gastuak botikan, kaleko jantziak, norberaren garbiketa eta profesionalen arreta elkarriketarako eta laguntza indibidualizaturako. Baita ere, Oinarrizko informazio eta aholku sozial eta juridikoa.

1.4. Aterpeen funtzionamendu-irizpideak

Lehen harrerako izapidea eta horri loturiko zerbitzuak Gurutze Gorriko profesionalak egiten dituzte, beren bulegoetan. Lehen harreman horren ostean, lekuak esleitzen ditu antolaketak; horrek esan nahi du pertsona bakoitzari bideratze-orri bat ematen zaiola. Lehen urrats horretatik aurrea, hauek izan dira funtzionamendu-irizpideak:

- Aterpetxe zerbitzua zuzendu zaie kostaldeetara multzoka heldutako iragaitzazko pertsonari, baldin eta itzultzeko agindua ere bazuten.
- Aterpetxean onartua izateko, nahitaez aurkeztu behar da bideratze-orria, lehenago harrera unean Gurutze Gorriaren bulegoan emandakoa.
- Egonaldia bost egunekoa da gehienez, baldin eta lekuri badago. Premia bereziko egoera justifikatuetan, egonaldia zazpi egunetara luzatu da, eta kasuren batzuetan baita gehiago ere.
- Lehentasan-hurrenkera ezarri da eriondo dauden pertsonentzat eta emakumeentzat (adin txikikoekin edo gabe).
- Arau orokor gisa, aterpetxeak irekita egon dira 20:30etik 08:00etara, asteko egun guztietan.
- Gaua aterpean ematen duten pertsonak egoteko arauak eta DBLO sinatu behar dituzte. Besteak beste, hitzeman behar dute errespetuz jokatu dutela entitateko langileen zein gainerako egoiliarren aurrean.

2. Hiru lan-hipotesi 2019rako

Ezin da kalkulu edo aurreikuspen zehatzik egin zenbat iragaitzazko migratzaile iritsiko diren Euskadira 2019an zehar. Aurreikusi dezakegu iritsieren kopurua handitzen hasiko dela maiatzetik aurrera, eta unerik gogorrena uztaila eta urria bitartekoa izan daitekeela. Aurreikuspen horiek aintzat hartuta, nahitaez aztertu behar da egoera posible bat baino gehiago.

Horretan oinarrituta, Kontingentzia-plan honek hiru lan-hipotesi zehaztu ditu eta horietako bakoitzari erantzun nahi lioke, konfirmatuko balitz. Hauek dira aurreikusitako hiru egoerak:

- A egoera, probablea.** Iritsiera-fluxuak 2018koaren antzekoak edo zertxobait handixeagoak lirateke. Une gorenetan, egun batean 250 pertsona iristea ere gerta liteke. Hauxe da, ustez, errazen gerta daitekeen egoera.
- B egoera, posiblea.** Iritsiera-fluxuak 2018koak bi halako izan daitezke. Une gorenetan, egun batean 500 pertsona iristea ere gerta liteke. Egoera ez da aurrekoa bezain gertagarria, baina ez da baztertzekoa. Posibleztat jotzen da.
- C egoera, salbuespenezkoa.** Salbuespen gisa, iritsiera-fluxuak biderkatu egin daitezke. Une gorenetan, egun bakarrean iragaitzazko 600 migratzaile iristea gerta daiteke... Baita gehiago ere. Berez, probabilitate gutxiko egoera da. Alabaina, eta erantzukizunez jokatzeko aldera, ezin dugu baztertu halakorik gertatzeko hipotesia.

3. Aterpetxeen eta harrera-lekuen prestaketa

Aurreko atalean adierazitako egoeren aurreikuspena aintzat hartuta, kontingentzia-plan hau edukiz bete ahal izateko abiapuntua da aterpetxeen eta harrera-lekuen sare bat edukitzea, hipotesi horietako bakoitzari erantzun liokeena.

3.1. A egoera, probablea

Une gorenetan, egun bakarrean 250 pertsona hartzeko prest egotea eskatzen du. Egoera horri aurre egiteko, honela geratuko litzateke 2018an sortutako aterpeen sarea:

·Bilboko aterpea	100 leku
·Irungo aterpea	60 leku
·Donostiako aterpea	25 leku
·Gasteizko aterpea	65 leku
Guztira	250 leku
·Berriz eta Oñatiko aterpetxe osagarriak	+ 50 leku

3.2. B egoera, posiblea

Une gorenetan, egun bakarrean 500 pertsona hartzeko prest egotea eskatzen du. Azpiegitura hauek ditugu horretarako:

·Bilboko aterpea	150 leku
·Irungo aterpea	100 leku
·Donostiako aterpea	150 leku
·Gasteizko aterpea	100 leku
Guztira	500 leku
·Berriz eta Oñatiko aterpetxe osagarriak	+ 50 leku

3.3. C egoera, salbuespenezkoal

Biderkatu egin daitekeen fluxua hartzeko prest egotea eskatzen du. Aurreikuspen honen arabera, une gorenetan, iragaitzazko 600 migratzaile baino gehiago iritsi daitezke egun bakarrean. Horren aurrean, hauxe da gure aurreikuspena:

·B egoeraren aterpe-azpiegitura	550 leku
·Tokiko instalazio identifikatuak, berehala aterpetxe bihurtu daitezkeelarik, batez beste ehun pertsona baino gehiago har ditzaketenak eta beharren arabera egokitu daitezkeenak	
-Araba	3 instalazio
-Bizkaia	4 instalazio
-Gipuzkoa	4 instalazio

4. Jardunbideak

Iragaitzazko migratzaileei zerbitzu ona emateko aukera estuki lotuta dago arreta humanitarioaren prozesu osoan jardunbide argiak definitzearekin. Jardunbide-marko hori bi bloketan egituratzen da: oinarritzko premisa bat eta funtsezko irizpideak.

4.1. Oinarritzko premisa bat: errealitate desberdinak ez nahastea

Iragaitzazko migratzaileei zor zaien berriazko zerbitzuari ez dio batere laguntzen haien errealitatea nahastea beste egoera batean dauden errealitatearekin: etxerik ez dutenena, nazioarteko babesa eskatu duten edo gozatzen ari direnena, Euskadin aspalditik dauden eta bertan geratzeko asmoa duten etorkinenena, edo egoera eskasean dauden beste kolektibo batzuenena. Gainera, horrek nahasmena eta itxaropen okerrak piztu ditzake bestelako beharrak dituzten beste kolektibo batzuetako kideengan.

2018an zehar, horrelako nahasteek komunikabidetan emandako zenbait informazioetan eta mintzaldi publikoetan isla izan dute. Nahiz eta errealitate horiek guztiak migrazioen eremuan kokatzen diren, desberdinak dira araubidearen eta kolektibo batzuek eta besteek behar dituzten erantzunen aldetik. Azpimarratzekoa da plan honek Andaluziako kostaldetik Euskadira datozen iragaitzazko pertsonen beharrei erantzun nahi diela berariaz

Nazioarteko babesa eskatu duten edo gozatzen ari diren pertsonak badute berezko araubide eta sistema bat, eta horien arabera kudeatu behar dira haien egoerak. Azken horietakoren batek nazioarteko babesa eskatzen badu, berehala bideratzen da berariazko marko horretara. Bestalde, beste bat da etxebizitzarik gabeko pertsonen eta Euskadin aspalditik dauden edo bertan geratu nahi duten migrazioaile ekonomikoaren errealitateari erantzuteko markoa; hain zuzen ere, oinarritzko zerbitzu sozialek eta Euskadiko gizarte-zerbitzuen zorroak osatzen dutena, eta horien bitartez bideratu behar dira haientzako erantzunak.

Kontingentzia-plan honek egoera espezifiko bati baino ez dio erantzuten: iragaitzazko migratzaileen larrialditako laguntza humanitarioaren beharrei. Haien arteko gehien-gehienek egun batean edo bitan atseden hartu eta indarberitu beharra dute, nahiz eta kasu batzuetan egoera hori 3, 5 edo 7 eguneko aldira luzatzen den. Laguntza humanitarioko zerbitzu honek, bideragarri eta jasangarria izango bada, nahitaez izan behar du txandakakoa eta denboran mugatua, salbuespenezko premietan izan ezik. Nazioarteko estandar bat da larrialditako era honetako baliabideen alorrean.

Txandakako jarraibide orokor horren gainean, hiru eskari berezitari erantzun behar zaie, gainera: batetik, nazioarteko babesa eskatzen duten iragaitzazko migratzaileak; bestetik, ahultasun handiko egoeran dauden eta, horrenbestez, indarberitzeko epe luzeagoak behar dituzten iragaitzazko migratzaileak; eta azkenik, zenbait gauez larrialditarako aterpetxe batean lo egin ostean Euskadin geratzeko gogoia adierazten duten iragaitzazko migratzaileak. Horrenbestez, hauxe da planaren jardura-marko orokorra:

- Bidaia jarraitu nahi duten iragaitzazko migratzaileek (gutxi gorabehera guztien arteko % 95) indarberitzeko eta lo egiteko zerbitzua jasoko dute, 5 eta 7 egun bitartera mugatua, beharren eta leku-aukeraren arabera.
- Iragaitzazko migratzaileen artean norbaitek nazioarteko babesa eskatuz gero, errefuxiatuak artatzeko sistemaren baliabideetara bideratuko dira.
- Iragaitzazko migratzaileen artean ahultasun handiko egoeran daudenak beste baliabide osagarri eta beren beharretara egokituetara bideratuko dira.
- Iragaitzazko migratzaileen artean Euskadin geratzeko gogoia adierazten dutenei, azkenik, informazioa emango zaie eskuragarri dituzten gizarte-baliabideei buruz.

4.2. Funtsezko irizpideak

Oinarritzko premisaren gainean funtsezko 20 irizpideko marko bat osatu da, bost bloketan banatuta: (1) koordinazioa, (2) onarpena, (3) zerbitzua eta egonaldia, (4) lankidetzaren erakunde sozialekin, eta (5) gorabeherari erantzuteko prozedura. Irizpide horiek kasu bakoitzean eskumenak dituzten administrazioek ezarritakoarekin bat etorrira aplikatuko dira:

4.2.1. Koordinazio-irizpideak

1. Gurutze Gorriaren zerbitzua eta bere profesionalak arduratuko dira Euskadira datozen iragaitzazko pertsonen harrera humanitarioa eta larrialditarako arreta eskaintzeaz. Zerbitzu hau bat etorriko da Migrazioen Estatu Idazkaritzak Itsasertzean arreta emateko programa (Programa de Atención en Costas) eta Arreta humanitarioko programa (Programa de Atención Humanitaria) izenekoetan xedatutakoarekin.

2. 2018an garatutako ereduari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako euskal erakundeek hartuko dute bere gain zerbitzu honen finantzaketa eta berari eman beharreko laguntza, Espainiako Gobernuak aurreikusitakoari osatu beharreko orotan.

3. Harrera humanitariorako eta larrialditarako arretako prozesu honetan zerikusia duten euskal erakunde guztiak erakundearen arteko lan-mahai batean koordinatuko dira. Mahaia hilean behin batzartuko da ohiko jardueran, eta baita, ohiz kanpoko batzarrean, inguruabarrek eskatzen duten oro-

tan. Prozesuan parte hartzen duten gizarte-erakunde profesionalizatuei bilera horietan parte hartzeko gonbita egin dakieke. Mahaiak batzorde iraunkor bat izango du.

4. Mahaian parte hartzen duen erakunde bakoitzak kide bana izendatuko du batzorde iraunkorrera-ko, zeinean Gurutze Gorria ere ordezkaturik izango den. Batzorde iraunkorraren zeregina da azkartasunez heltzea mahaiaren batzarren arteko aldietan erabakiak hartzea eskatzen duen gai orori. Aurrez aurreko bileren bitartez edo beste koordinazio-mekanismo batzuen bitartez egin ahal izango du lan, txataren bitartez, esaterako.

5. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila arduratuko da erakundeen arteko lan-mahaiak eta haren batzorde iraunkorra koordinatzeaz.

4.2.2. Onarpen-irizpideak aterpetxeetarako

6. Iragaitzazko migratzaile hauentzako baino ez dira aterpetxeak: Espainiako hegoaldeko kostalde-ara heltzen den jende saldo handitik datozen eta lehorrera iristean egin zaien erreseinaren dokumentazioa dutenak, Estatuko administrazioak ezarritako aurreko egunen epean emana. Beste profil batzuei erantzuten dieten pertsonak, artatuak izango dira eta beste gizarte baliabide batzuetara bideratuko dira, edo baliabide horiei buruzko informazioa emango zaie.

7. Iragaitzazko migratzaileak ezin dituzte behartu eskaintzen zaien zerbitzua onartzera. Logikoa den bezala, onarpena norberaren borondatezkoa izango da.

8. Eskaintzen zaien indarberitze-zerbitzua jaso nahi duten iragaitzazko migratzaileek onarpen-izapidea egin beharko dute Gurutze Gorriaren bulegoetan. Aterpetxeetan egoteko arauen orria sinatu beharko dute, bai eta lehen arretaren unean Gurutze Gorriaren bulegoan eman zaien bideratze-orria aurkeztu ere.

9. Onarpen-izapidea eginda, iragaitzazko migratzaileak nora iritsi diren, handik gertuen dagoen eta leku librean dituen aterpetxera eramango dituzte. Aterpetxeetan bananduta egongo dira gizonentzako eta emakumeentzako guneak.

10. Lehenetsun-hurrenkera ezarri da eriondo dauden pertsonentzat eta emakumeentzat (adin txiki-koekin zein gabe); bakoitzaren egoeraren arabera, premia espezifikoek egokien erantzuteko zentroetara bideratu ahal izango dituzte.

4.2.3. Aterpetxeen zerbitzuei eta egonaldiari buruzko irizpideak

11. Onarpen-izapideak iraun bitartean, migratzaileek zerbitzu hauek jasoko dituzte: osasun-egoeraren azterketa, balorazio-elkarrizketa, aterpetxeari eta bertan emango zaien laguntzari buruzko informazioa, telefono-kargagailuak, wifi guneak, senideei deitzeko laguntza, eta lehen mokadu bat.

12. Lekurik dagoen bitartean, aterpetxeko egonaldia bost egunekoa izango da, gehienez ere. Epe hori luzatzerik izango da premia bereziko egoerarik bada, Gurutze Gorriko profesionalen aburuz arrazoi humanitarioek justifikatzen badute.

13. Aterpetxeetan artatutako pertsonen zerbitzu hauek jasoko dituzte: bertan gaua ematekoa, gosaria, bazkaria, afaria, medikuak agindutako botiken gastuak, jantziak, norberaren garbiketa eta profesionalen arreta elkarrizketetarako eta laguntza indibidualizaturako.

14. Ohiko jardueran, aterpetxeak 20:00etatik 09:00etara egongo dira irekita. Salbuespen gisa, eta justifikatutako beharrak medio, ordutegi hori luzatu ahal izango da, baldin eta horrela erabakitzen badu erakundeen arteko lan-mahaiaren batzorde iraunkorrak, Gurutze Gorriarekin batera. Zerbitzu hori eguneko zentroko zerbitzuekin osatuko da Bilbon eta Irunen.

4.2.4. Erakunde sozial edo pribatuekiko lankidetzari buruzko irizpideak

15. Kontingentzia-plan honek aukera ematen du lankidetzazko erakunde sozial edo pribatuekin, baldin eta elkartasunezko zerbitzuak eskaintzen badizkiete iragaitzazko migratzaileei, modu espontaneoan edo auto-antolatuan, betiere lege-esparruaren barruan.

16. Lankidetzazko esparru horrek goiburutzat behar du koordinazio-logika estu eta eraginkorra, ekimen horien eta erakundeen arteko lan-mahaiaren artekoa.

17. Elkartasunezko ekimen sozial edo pribatuek laguntza ekonomikoak edo beste era batekoak

jaso ahalko dituzte, baldin eta ezaugarri hauek dituen arreta humanitarioko testuinguru batean garatzen badira:

- migratzaileei eskainitako arretak gutxieneko kalitate-estandarrak beharko ditu eskaintzen diren zerbitzuen eta instalazioen aldetik, eta, horrenbestez, profesional espezializatuek ikuskatuak izan beharko dute;
- arreta hartzen duten pertsonak aterpetxeetan daudenei eskaintzen zaien informazioaren parekoa jaso beharko dute dagokien eskubide eta betebeharren testuinguruari buruz;
- sarreraren eta irteeraren erregistroa egon behar da, garatutako jardueraren memoriarekin batera;
- ahultasun egoeran dauden pertsonak edo adingabeak dituzten emakumeak artatuz gero, behala jakinarazi beharko zaio hori erakundearen arteko lan-mahaiaren batzorde iraunkorrari;
- ondo bermatu behar da erakunde horiek, jarduera publikorik garatuz gero, iragaitzazko migratzaileen intimitate-eskubidea gordeko dutela beti.

4.2.5. Gorabehera, arazo edo salaketen aurrean jarduteko irizpideak

18. Argi geratzen da erakundearen arteko lan-mahaiaren batzorde iraunkorrari komunikatu behar zaizkiola, halakorik gertatuz gero, kontingentzia-plan honen eguneroko kudeaketa praktikoaren gorabehera, arazo edo salaketak oro. Komunikazio hori posta elektronikoko helbide batera bideratuko dira, berariaz zeregin horretarako sortuko baita.

19. Gorabehera, arazo eta salaketen kudeaketa erantzun azkar, konpartitu eta oinarrituak bilatzen saiatuko da. Ikuspuntu horretatik, kontuan hartu beharko ditu irizpide hauek:

- jarrera harkorra eta entzutekoa, hartara jasotako komunikazioa egoki ulertzeko, eta modu konstruktiboan eta elkarriketan erantzuten saiatzeko;
- Migrazioen Estatu Idazkaritzak Itsasertzean arreta emateko programa (Programa de Atención en Costas) eta Arreta humanitarioko programa (Programa de Atención Humanitaria) izenekoetatik eratorritako arau-esparrua;
- dena delako kasuaren gainean lanean diharduten Gurutze Gorriko profesionalen irizpidea gailenduko zaie beste batzuei;
- kasu zehatzei eman beharreko erantzunak berdintasun- eta jasangarritasun-printzipioak bete behar dituzte, beste kasu batzuetara proiektatzeko eran,
- hartu beharreko erantzunen malgutasun-irizpidea, berebiziko ahultasun egoera erakusten duten kasuetan.

20. Kasu bereziki konplexurik gertatuz gero, edo hartu beharreko erabakien gaineko zalanza edo desadostasunik sortuz gero, erakundearen arteko lan-mahaiari helarazi ahalko dio auzia batzorde iraunkorrak.

4.3. Nahitaezko baldintza bat elkartasunezko erantzuna optimizatzeko

Planaren helburua da “erantzun egokia ematen jarraitzea –eta hobetzea– hau da, erantzun gizatiar, orekatu, jasangarri eta elkartasunezkoa”. Hori bada helburua, premisa jakin bat ere ezar daiteke. Zerikusia duten erakundearen arteko lankidetzak, orobat erakunde publikoen eta gizarte-erakundearen artekoa, zenbat eta estuago eta eraikitzaileago, orduan eta hobeago eskainitako zerbitzua alderdi guztietan.

Zorionez, iaz Euskadin maila handiko lankidetzak ehuntzen asmatu genuen, erakundearen eta elkartearen artean, eta horri esker, denok batera jardun genuen iragaitzazko migratzaileen etorrerak planteatu zizkigun beharrei erantzunen bila. Zorionez, Euskadin ez da modu agerikoan adierazten migratzaileekiko beldurra pizten duen diskurtso arrazista edo xenofoborik, inguruan ugaritzen ari diren arren.

Zaindu egin behar dira ezaugarri horiek biak, aparteko balioa dutelako bizikidetzak eta gizarte-kohesiorako. Era berean, kontuan izan behar da migrazioa edo haren adierazpen desberdinekiko erantzunak arazo bihurtzen duen gurtia aukera ezin hobea dela migrazioei buruzko zurrumurru, faltsukeria eta

beldurren kontura demagogia egin nahi edo onura politikoa edo hauteskundeetan abantaila lortu nahi duen ororentzat.

Erakundeen arteko lana eta diskurtso sozial eta politiko inklusiboa zaintzeko modurik onena erakundeen arteko eta erakundeen eta entitate sozialen arteko lankidetzaren esparruetan sakontzea da. Horrela jakatuta, iragaitzazko migratzaileei eman beharreko erantzuna optimizatu ez ezik, bidea irekitzen dugu euskal gizarteak migrazioa arazotzat har ez dezan, prozesu positibo eta konstruktibotzat baizik.

Esparru horretan dagokigu, beste inon baino gehiago, elkarrekin jardutea, batzen gaituena aintzat hartuta. Elkartzen gaituen hori baita, kasu honetan, funtsezkoena: erantzun gizatiar, proportzionatu, jasagarri eta elkartasunezkoa eskaintzea.





Euskarri Estrategia

Oharra:

Proposamen honen aurkezpena 2020ko otsailerako aurreikusita zegoen. Hala ere, ondoz ondoko hiru gertakarik eragotzi zuten. Lehenik eta behin, apirilaren 5erako Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde deialdia, bertan behera geratu zena, Covid-19aren eraginez. Bigarrenik, pandemiaren beraren ondoriozko konfinamendua. Eta hirugarrenik, uztailaren 12ko hauteskunde deialdi berria. Hala ere, dokumentuak inplikaturako erakunde guztien ekarpenak eta oniritzia ditu. Legegintzaldi berrian erreferentziazko dokumentu gisa proiektatzen da.

Erakundeen artean lan egiteko agiria:
zer lehentasun dauzkagun, Euskadin
adingabeak eta gazte zaurgarriak gizar-
tera eta lanera erakartzeko jardunean

Euskarri Estrategia

Betebehar-eskubideen kontratu baten
bidez bizi-proiektu autonomo bat
izateko euskarria

“Emadazue euskarri-puntu bat, eta mundua mugituko dut.”

Arkímedes Sirakusakoa (K. a. III)

2020ko urtarrila

Aurkezpena

Adingabeen eta 21 urtera arteko gazte zaurgarrien arazoaren aurrean erantzuna: Euskadin, erakundeen artean. Erantzunak berdin balio du bertakoentzat eta atzeritarrentzat, bakarrik dauden adingabe eta gazte atzeritarrengan (aurrerantzean, hurrenez hurren BDAA eta BDGA) eragina izatea bilatzen duena. Horra hor, orokorrean harturik, zein den agiri honen gaia.

Lehen mugaketa hori egin ondoren, kontzeptuzko esparrua azal-orriko testuetan aurkituko dugu, labur-labur. Ikus dezagun izenburua: “Erakundeen artean lan egiteko agiria: zer lehentasun dauzkagun, Euskadin adingabeak eta gazte zaurgarriak gizartera eta lanera erakartzeko jardunean”; horixe da helburua, agiri hori definitzen eta partekatzen laguntzea, alegia. Gero, horren guztiaren izena dator “Euskarri Estrategia (edo Programa)”. Eta izen horren mamia gero: “Betebehar-eskubideen kontratu baten bidez bizi-proiektu autonomo bat izateko euskarria”. Jakina, definizio horiek zehaztu egin behar dira, non-zertan jardun behar dugun zuzen zedarritzeko.

Eta, hasteko, lehenik, azpimarra dezagun zer esan nahi duen “*Erakundeen artean lan egiteko agiri (...)*” delako horrek. Euskal erakunde-egiturak dituen maila guztiak hartuta, babes gabe diren adingabeen eta gazteen eskumenak garbi-garbi daude banaturik. Baina, erakunde bakoitzak bere eskumenak izanagatik ere denontzako programa bat baldin badaukagu, horrek esanahi bikoitza izango du: lehenik, gai honi zer-nolako garrantzia ematen zaion erakusten du; herri-erronka baten aurrean gaude. Eta, bigarrenik, erakusten du euskal erakundeon ustea dela —eta ados gaude denok— arazoari nork bere erantzuna ematen badio emaitza beti dela okerragoa, denok erantzun behar dugula batera, arazoa osorik harturik, begirada holistikoa erabiliz, eta sinergiaren bila.

Bigarrenik, guk denontzat proposatzen duguna “lehentasun-programa” bat da. Erakunde bakoitzak bere arau- eta eskumen-esparrua izanagatik ere —eta hala behar du—, agiri hau, Euskarri Estrategia, denontzako plaza moduko bat da; baina ez du esan nahi, horregatik —gauza bateragarriak baitira— erakunde-esparru bakoitzak bere betebeharrak eta bere proiektu-ekimenak izango eta taxutuko ez dituenik. Zehatz-mehatz, gure estrategia da 12 ardatz nagusi identifikatzea. Ardatz horiek guretzat bereziki garrantzitsuak izango dira; haiek bultzatuko ditugu, denok, lehentasunez, erakunde bakoitzak berari dagokion neurrian.

Hirugarrenik, azal dezagun nor diren, guri dagokigunez, adingabeak eta gazte zaurgarriak: adingabeak, bakarrik utzita daudenak edo babesik gabe, eta erakundeon tutoretza behar dutenak; eta, gazteak, ez dira jada adingabeak; eta bestetik, tutoretzapean egondako gazteak, baina oraindik txiro bizi direnak, gizar-tean sostengu-sarerik ez dutenak, eta lagunekin bizitzeko biderik ere ez, legez nagusiak izanik babesteko obligazioa eten ondoren. Hots, bizitza autonomia nahita ere, ez dute erraza; ez du itxura onik. Denon arteko lehentasunen programa honi esker, euskal erakunde guztientzako estrategia bat adosteko modua izango dugu, adingabeen eta gazteen arazoa bide jarraitu baten antzera ulertuz, arazoa osotasunean hartuz, etenik gabe.

Laugarren, estrategia honi “Euskarri” izena jarri diogu. Bizitza-proiektu autonomoa izaten laguntzeko. Euskarri Estrategiaren oinarrian, lanerako hipotesi hau daukagu: bizitza-proiektu autonomoa aurrera ateratzekotan, hiru euskarri sendo beharko dira: adingabeek, etxea behar dute, orientazioa behar dute (laguntasuna) eta prestakuntza behar dute; eta, gazteek, berriz, gizarteratzen eta laneratzen, etxebizitza lortzen eta bizi-gaiak inguratzen laguntza behar dute.

2019-2021 Gizarteratzeko Euskal Planak honela definitzen du gizarte-bazterketa: “Gizarte-eskubideak baliatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza, batez ere lanerako eskubidea, baina baita hezkuntza, prestakuntza, kultura, osasuna, etxebizitza duina eta gizarte-babeserako eskubidea ere”.

“Eskubide sozialen zutabe europarraren” arabera, Hezkuntza, Prestakuntza eta Etengabeko Ikaskuntza funtsezko ardatzak dira, denak ere lagungarriak, oso, herritarren enplegu-eskubide aktiborako, bereziki, gazteenerako. Kontua da bermatzea gizarte- eta ekonomia-egoera ahulenean dauden pertsonak, adina edozein dela ere, kalitateko hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuetara sarbidea izatea, aukera-berdintasuna izan dezaten eta helduaren mundurako trantsizioa arrakastatsua izan dadin; horixe da helburu estrategikoa.

Proiektua diseinatzeko orduan, baztertuta daudenak gizarteratzea sustatu beharra dago, eta arrisku-faktoreen eragina murrizteko jarduerak garatu, faktoreok norbanakoenak izan edo egiturazkoak izan.

Horren guztiaren ondorioz, erantzun integrala emateko, programa bat jarri nahi da abian, non pertsonak aktibatzeke ibilbidea izango den esku-hartzearen muina eta ildo nagusia, aukera kualifikatzaileak sortuz lan-mundurako trantsizio arrakastatsua errazteko, funtsezkoa baita bizi-proiektu autonomoa eta iraunkorra lortzeko.

Oinarri horien gainean dago eraikita Euskarri estrategia, eskubide-betebeharren filosofia pertsonalizatzeko asmoz betiere. Erantzukizunen kontratua darabil; adingabeentzat, aurrekontratua; eta, gazteentzat, kontratua. Azken batean, hitzarmena da; eta, bertan egongo dira ezarrita alderdi bakoitzak beretzat hartzen dituen helburuak eta konpromisoak. Adingabeek eta gazteek hitza ematen dute saiatuko direla, gogotik, bizibidea ateratzen; erakundeek hitza ematen dute euskarri batzuk eskainiko dizkietela, lortu dezaten.

Ez ikuspegi paternalistarik ez inolako espiritu biktimistarik; Euskarri estrategia urrun dabil bide horietatik. Bizitzan aurrera egiteko, gogotik egin behar da lan; horixe da, heziketaz ari garelarik, mezu nagusia. Horretarako, euskarriak behar dira. Paternalismoak premia guztien konponbidea nahi du bermatu. Biktimismoak, berriz, premia guztien konponbidea espero du. Gure estrategiak, ordea, oinarritzko tresna batzuk eskainiko ditu (euskarriak), eta norberaren erresilientzia eta aurrera egiteko gaitasuna sustatuko ditu; horixe du apustua. “Emadazue euskarri bat, eta mundua mugituko dut”, esan zuen Arkimedesek; bada, guk, gurean, honela esango genuke: “Emazkidazue euskarri batzuk, eta aterako dut nire bizitza aurrera”..

Lehen atala

Euskarri Estrategiaren deskripzio orokorrai

1. Euskarri estrategiaren oinarriak

1.1. Abiapuntua: gaiari heltzeko orduan, adingabeak eta gazteak batera hartzea

Babesik gabe dauden adingabeei eta gazteei batera begira diezaiegun saiatzen da estrategia hau. Formaz, 18 urte betetzen ditugun egunean, igaro gara adinez nagusi izatera. Hortik aurrera, gure legezko tutoretza ez dago, jada, erakundeen esku. Baina, benetan, 18 urteak bete baino egun bat lehenago edo beranduago, berdin-berdin egon gaitezke babesik gabe eta bizitza-proiektu autonomoa aurrera eraman ezinik.

Arauetan datozen obligazioak ere desberdinak dira adingabeak garen edo adin nagusiko gazteak garen. Horrek ez du eragozten —are gehiago, gomendagarri egiten du— denak batera hartuta aztertzen eta konpontzen saiatzea. Abiapuntuko azterketak, hortaz, adingabea integratu egin behar du, erakundeak tutoretzen duenetik, harik eta, jada adin nagusiko delarik, bere kasa bizitzeko nahikoa euskarri sendoak lortzen dituen arte.

1.2. Zeharkako helburua: bizi-proiektu autonomoa bultzatzea

Prozesu bat da, bi etapatan banatzen dena: adingabetasuna eta adin-nagusitasunaren lehen urteak; baina helburu/ardatz bat eta bera du:

-Bizi-proiektu autonomoa bultzatzea.

Horra hor jorratu beharreko ildoak, zeharkako ardatza. Haren gainean jiraka egiten da ibilbide guztia, foru-erakundeak adingabea tutoretzapean hartzen duenetik bertatik.

1.3. Hiru errealitate-printzipio

Helburu oinarritzko eta egituratzaile horrek hiru errealitate-printzipio ditu bide-lagun: ez dago bizitza-proiektu autonomo bideragarri eta iraunkorrik (1) erantzukizunik eta konpromisorik gabe, (2) lanerako prestakuntzarik gabe, eta (3) gizartean bizitzen laguntzeko prozesurik gabe. Bizimodu heldu eta autonomorako laguntasun- eta prestakuntza-prozesu guztian zehar, balio hierarkiko goi-goikoa dute zeharkako helburu horrek eta hiru errealitate-printzipio horiek.

1.3.1. Lehen errealitate-printzipioa: erantzukizuna eta konpromisoa

Ia inorentzat ez da bizitza erraza, are gutxiago, bizitzaren bihurtasunak eta zuloak direla-eta txikitan babesik gabe hazi izan bazara, edo desegituran, edo aparteko zailtasunetan. Beti baldin bada ezinbestekoa ardura eta konpromisoa zer diren ikastea, are eta ezinbestekoagoa da gehiengoak baino bide malkarragoa egin beharra daukatenentzat.

Ez gara hizketan ari, soilik, balio etiko eta gizarte zale batez. Errealitate-printzipio batez ari gara. Bizitza horrelakoa baita. Erantzukizuna eta konpromisoa lantzea funtsezkoa da arrazoi etiko eta pragmatikoengatik. Gehiegizko babesaren kulturen hezteak jarrera paternalistak eta biktimistak elikatzen ditu, errealitateko prestatu ez baino. Bizitzaren lakarrerako entrenamendua, ezinbestean, obligazio-eskubideen oreka bidezkoan oinarritu behar da. Oinarri horren gainean erakutsi eta sustatu behar dira erantzukizuna eta konpromisoa.

Bai kontzeptuz baina baita praktikan ere, Euskarri Estrategiak ibilbide jarrai bat sustatzen du, bai adingabeentzat bai gazteentzat, betebeharrak eta eskubideen hitzarmen batean oinarriturik. Adingabeentzat, borondatezko aurrekontratu bat izango da; eta, gazteentzat, hitzarmena. Edonola ere, batzuek eta besteek agiri bat sinatu beharko dute, bakoitzak berea.

Adingabeak: betebeharrak eta eskubideen aurrekontraturako gidoia

A. Betebeharrak. Tutoretzapean dauden adingabeen betebeharren eremuan, haxe izango da hitzarmenaren hasierako gidoia:

- Etxebizitzan, bakoitzaren eta denen erantzukizunak onartzea.
- Hizkuntzak ikasteko *konpromisoa betetzea*.
- Hitzartzen den prestakuntza-prozesua garatzeko konpromisoa.
- *Norberaren zein taldearen eskura jartzen diren baliabide ekonomikoak eta materialak arduraz kudeatzea.*
- Jarraipen- eta ebaluaketa-prozesuetan laguntzeko prest egotea, baita prozesu horietako profesionalei ere.
- Portaera sozial egokia eta bizikidetzara-arauek betetzea.

B. Eskubideak. *Tutoretzapean dauden adingabekoen eskubideen eremuan, berriz, euskal erakundeek –erakunde guztiez ari gara–, legeak agintzen duen oro betetzeaz gainera, agintzen dute “hiru euskarri estrategiko” garatzeari emango diotela lehentasuna: etxea, bakarrik bizitzen hasteko orientazioa-laguntasuna, eta lanerako prestakuntza.*

Gazteak: betebeharrak eta eskubideen kontraturako gidoia

A. Betebeharrak. *Tutoretzapean egondakoak diren eta oraindik erakundeek laguntza jasotzen duten gazteen betebeharren eremuan, hauxe izango da hitzarmenaren hasierako gidoia:*

- Prestakuntza-konpromisoa egiaztatua.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektua zehaztea, bidea erakusteko.*
- Baliabide ekonomikoak eta materialak kudeaketa arduratsua.
- Daraman prozesuaren jarraipena eta aldizkako ebaluazioa onartzea.*
- Portaera sozial egokia.*

B. Eskubideak. *Tutoretzapean egondako gazteen eskubideen eremuan, euskal erakundeek –erakunde guztiez ari gara– agintzen dute “hiru euskarri estrategiko” garatzeari emango diotela lehentasuna: lagunduko dute gizartean eta lanean ibiltzen hasten, etxebizitza lortzen eta bizi-gaiak inguratzen*

1.3.2. Bigarren errealitate-printzipioa: enplegurako prestakuntza

Azpitarratu den bezala, bizi-proiektu autonomo baten alde egitea da funtsezko helburua, hau da, mendekotasunik gabe bizitzearen alde. Mendekotasuna askatasunaren antonimoa da. Mendekotasun kronikoak alienazioa ekarri ohi du. Zoriontsu antzera-edo bizitzeko aukera faktore askoren mende dago, eta faktore horietako bat –ziurrenik, garrantzitsuenetako bat– bizitza autonomoa bizi ahal izatea da.

Autonomia edukitzeko aukera, praktikan, gizarteratzearekin eta laneratzeararekin lotuta dago. Eta, lanean hasteko beharrezko baldintzetako bat, hain zuzen ere, prestakuntza egokia da. Analisi horrekin ados bagaude, Euskarri Estrategia ardatz jakin baten inguruan egituratu beharra dago, ezinbestean: enplegurako prestakuntza.

Horretara bideraturik egon behar du, beti, tutoretzapeko adingabearen eta tutoretzapean egondako gaztearen proiektuak, alegia, baldintza duinetan lanean hasiera. Horrek esan nahi du adingabe eta gazte bakoitzak enplegurako prestakuntza-proiektu pertsonalizatua izan behar duela, haren borondateari, gaitasunei eta lan-merkatuaren errealitateari erantzuneko diona.

Batez ere proiektu hori dela-eta beharrezkoa da adingabeek eta gazteek erantzukizuna eta konpromisoa edukitzea betebeharrak eta eskubideak. Erakundeek kasuan, proiektu horrek berak eskatzen du erantzukizuna eta konpromisoa edukitzea helburua lortzen laguntzeko, horretarako behar diren *euskarriak* antolatuz.

1.3.3. Hirugarren errealitate-printzipioa: laguntasuna ematea, proiektuak geroz eta erantzukizun handiagoa eskatuko baitu

Helduaroan, gizarteratzea eta laneratzea, neurri handi batean, bata besteari lotutako bi helburu dira, elkarri eusten diotenak. Haien bila egiteko eta haiek atzemateko, prozesu eta laguntasun pertsonalizatua behar dira. Erakundeek tutore-lana eta gizarteak mentorearena egingo dute, eta programa-ko beste euskarri batzuk ere beharko dira, bereziki prestakuntza, enplegua eta etxebizitza eskuratzen laguntzeko.

Gizartearen laguntasuna funtsezkoa da prozesu hori burutzeko, gorabeherak gainditzeko –izango baita gorabeherarik–, eta gizarteratzeko eta laneratze-ko helburuetan aurrera egiteko. Begira, bestela, nola dagoen laguntasun hori definiturik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan, III. eranskinean (185/2015, urriaren 6koa). Sostengu sozialaren sarrerik ere ez badugu, erakundeek tutoretza eta gizartearen mentore-lana bata besteari lotzea komeni da, lehen sostengua funtsezkoa baita inor gizarteratzeko.

Kontua da denbora-tarte batean laguntasuna eta aukerak ematea, eta ateak zabaltzea, prozesuan parte hartzen dutenen bizitza-proiektu autonomoak abian jar daitezen. Euskarriak eta bakoitzaren bizi-proiektua konektatzea lagungarria da emaitzak hobetzeko eta lotura egonkor bat sortzeko pertsonen eta euskal gizartearen artean.

Testuinguru horretan, pertsona helduak bilakatzeko trantsizio-prozesua askotan larriagoa da atzerriar jatorriko gazteentzat, batzuetan, ez daukatelako hemen egoteko, gelditzeko edo lan egiteko administrazio-baimenik, edo erroldan sartzeko edo jarraitzeko zailtasunak dituztelako (eta horixe da giltza Lanbidera sartzeko eta hainbat baliabide eta prestazio sozial eskuratzeko). Hori dela-eta, baliarazteko laguntza soziojuridikoa ere behar izatea, emantzipazio-prozesu horrek euskarri tekniko ere izan dezan.

Programaren hartzaile diren guztientzako alternatibak eskainiko baditugu eta aukerak sortuko, beharrezkoa da adin-nagusitasuna lortu ondoren ere sarbide-baldintza batzuk jartzea, kontuan hartuz edo abiapuntuko egoera, edo bizi-proiektua, edo hasierako konpromiso-maila jakin bat. Baina, arian-arian, prozesua bera eta bigarren etapak berez dituen euskarriak egokitu egin behar dira bakoitzak erakusten duen konpromisora, geroz eta baldintza gogorragoak jarritz.

1.4. Filosofia hori praktikara eramatea

Azaldutako oinarrien arabera, hiru Foru Aldundiek eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak esparru-dokumentu bakar bat prestatuko dute, tutoretzapeko adingabeekin eta tutoretzapean egondako gazteekin betebeharren eta eskubideen hitzarmen pertsonalizatuak sinatzeko oinarri gisa. Dokumentu horrek lau atal nagusi izango ditu: (1) enplegu-prestakuntzarako proiektua eta konpromisoa, (2) betebeharrak, (3) eskubideak, eta (4) Euskarri Estrategian oinarrituta erakundeek beren gain hartzen dituzten konpromisoak.

Esparru-dokumentu hori, jakina, kasu bakoitzaren errealitatera egokitzeko pentsatuta egongo da, baita, denborak aurrera egin ahala, ñabarduraz janzteko, gehiago zehazteko, eta garatzeko ere. Horregatik, aldian-aldian ebaluatu eta eguneratu egingo da.

Adingabeen eta tutoretzapean egondako gazteen zentroen eta zerbitzuen kudeaketa esleitura duten enpresa eta erakundeak arduratuko dira betebeharrei eta eskubideei buruzko akordioaren harpidetza pertsonalizatua egiteaz eta akordio hori ebaluatzeaz eta eguneratzeaz, dagokion Foru Aldundiak gain-begiratuta.

2. Euskarri Estrategiaren osagaia

2.1. Adingabeak

2.1.1. Betebeharren eta eskubideen aurrekontratua

Hasteko, betebeharren eta eskubideen aurrekontratu sinboliko bat definituko da, adingabe bakoitzak sinatu beharko duena; nahi baldin badu, jakina. Hori da strategiaren abiapuntua. Proiektua adingabearen autonomiara eta emantzipaziora bideraturik egonik, lortu behar da adingabea bere kasa lotzea hartara eta berak bere kabuz hartzea haren ardura, begi aurrean adin-nagusitasuna eta geroko urteak dituela; hori da helburua.

2.1.2. Hiru euskarri estrategikoak

•**Etxea.** Babesik gabe dagoen adingabe ororentzat, *etxea* da lehen euskarria. Etxea, teiltupea da, bizitokia; baina gehiago ere bada. Tutoretzapean den adingabe orok familia falta du; bada, kontua da nolabait hutsune hori betetzeko espazio bat sortzea. *Etxeak* esan nahi du, besteak beste, bizitzeko baldintzak duinak eta egokiak direla. Euskarri Estrategiak helburu honi zaindu eta sendotu nahi du.

•**Bidea erakustea.** Bigarren euskarria, berriz, orientazio-laguntasun ziurra edukitzea da, helduaro-rako prestatzeko prozesuan lagungarri. Babesik gabe dauden adingabeen egoitza eta laguntza-zentroen zerbitzua kontraturik daukaten enpresak eta erakundeak arduratuko dira orientazio hori bideratzeaz, foru-erakundeek ikuskaritzapean. Euskarri honek bi lehentasun ditu: erakundeek tutoretza optimizatzea eta orientazio-erreferente osagarriak sortzea.

•**Prestakuntza.** Prestakuntza-proiektu definitua behar da, helburu argia izango duena: adin-nagusitasunera iristean, gaztea gizarteratzea eta laneratzea, bizitza-proiektu heldua eta autonomia eduki ahal izan dezan; horixe da hirugarren euskarria. Proiektu horrek hiru erreferentzia nagusi ditu: BDAAentzat, bertako hizkuntzak ikastea; egiaztagirak lortzeko bide ematen duten proiektu pertsonalak eta prestakuntza-proiektuak; eta praktika bidezko prestakuntza duala.

2.1.3. Erakundeek beren gain hartzen dituzten lehentasunak, banan-banan

<i>Euskarri estrategikoa</i>	Lehentasuna	Kudeaketa
I. Etxearen euskarria.	•Estatuan eta Euskadin Share Proposamena sustatzea, erantzukidetasunaren printzipioa aplikatzea sustatzearen. 1. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Giza Eskubideen Idazkaritza) eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak.
	•Aldian-aldian pilotajeak bultzatzea, <i>Etxe</i> -ereduak dibertsifikatzeko. 2. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Foru Aldundiak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. -Nola bideratu: Idazkaritza tekniko bateratu bat kontratuko dugu (Euskarri Estrategia guztia koordinatzeko lanak ere egingo ditu).
II. Orientazioaren euskarria.	•Lan-talde bat sortzea, erakundeek tutoretza optimizatzeke. 3. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Foru Aldundiak. -Nola bideratu: erakunde arteko lan-talde teknikoa.

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
	·Erakunde bat sortuko dugu, mentoretza moduko ereduak gizartean zabaltzeko. 4. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: Lehiaketa publiko bidez, enpresa edo erakunde gaitu bati emango zaio.
·III. Punto de apoyo para la Formación	·Bertako hizkuntzak ikasteko ibilbide espezifiko eta trinkoa antolatzea. 5. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Hezkuntza Saila eta HABE (Eusko Jaurlaritza). -Nola bideratu: Adingabeentzako zentrozen eta zerbitzuen kudeaketaren esleipendun diren enpresak eta erakundeak.
	·Lanbide-orientazioa emango dugu, lan-aukerak dauzkaten lanbideei lotuta; eta amaieran lanbide-ziurtagiri aitortuak eskaintzen dituzten prestakuntza-prozesuak antolatuko ditugu. 6. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lanbide eta Enplegurako Prestakuntza Batzordea (Lanbide, Gizarte Politiketako, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, GLEA eta Foru Aldundiak). -Nola bideratu: Bi sareetako hezkuntza-zentroak eta helduen hezkuntzako ikastetxeak, eta adingabeentzako zentrozen eta zerbitzuen kudeaketaren esleipendun diren enpresak eta erakundeak.
	·Enpresekin hitzarmenak sustatzea, prestakuntza-eredu dualak garatzeko. 7. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lanbide. Enplegurako Prestakuntzako Batzordea. -Nola bideratu: Adingabeentzako zentrozen eta zerbitzuen kudeaketaren esleipendun diren enpresak eta erakundeak.

2.2. Gazteak

2.2.1. Betebeharren eta Eskubideen Kontratua

Tutoretzapean egondako gazteek, hasteko, borondateen kontratu bat sinatu behar dute; hori da estrategiaren abiapuntua. Kontratuak eskubide eta betebehar batzuk lotuko ditu, 18 urte dituztenetik 21 urte egin arte. Gazteek berek hartu behar dute beren emantzipazioaren ardura —emantzipazioa baita helburua—, eta jabetu behar dira konpromiso batzuk hartu beharko dituztela horretarako; hori da kontratuaren xedea.

AGGA direlakoen kasuan (gazteak), estrategia hori esparru orokor batean kokatu behar da. Haienganako arreta laguntza kognitibo instrumentalera bideratu behar da (zer gizartetan dauden, bizikidetzatza, bizipen afektiboa... ulertzea); eguneroko jardueretarako entrenatu behar ditugu; erreferentziazko eta kontrasteko figura helduak eskaini; hizkuntzak eta lanbide bat irakatsi; eta lanean hasten eta bizitokia inguratzen lagundu. Era berean, aisialdi inklusibora bideratzen saiatu behar dugu; oso garantzitsua da.

2.2.2. Hiru euskarri estrategiko

·**Gizarteratzen eta laneratzen lagundu.** Euskarri honek esan nahi du erakundeek, tutoretzapean egondako gazteei, 18 eta 21 urte bitartean, babesa, aholkularitza eta laguntasuna eskainiko dietela, argi eta garbi bi ardatz baliatuz: enplegurako prestakuntza-ibilbidean sakontzen jarraitzea, eta enplegu-esperientziak eta gizarteratze- eta laneratze-esperientziak sustatzea. Enplegua da bizitzaren autonomia eduki ahal izateko baldintza. Horregatik, fase honetan, horixe da oinarritzko euskarria.

·**Etxebizitza inguratzen lagundu.** Fase honetan, erakundeek, tutoretzapean egondako gazteei, laguntasuna eskainiko diete –formula bat baino gehiago egon daiteke– elkarrekin bizitzaren hasieran eta ardura hori har dezaten. Euskarri estrategiaren ildo beretik filosofiaz eta gogoz, laguntza horiek trantsizio moduko bat errazteko izango dira, beren kasa bizitzea lortzen duten arte.

·**Enplegurako prestakuntzan laguntzeko beka.** Zaurgarritasunik edo premia objektiborik baldin badago, erakundeek, Euskarri Estrategiaren itzalpean, beka bat eskainiko dute, enplegurako prestatzen laguntzeko eta oinarritzko bizi-gaiak eskuratzeko, harik eta tutoretzapean egondako gazteek dirusarrerak eduki arte edo sistema orokorreko laguntzetara sarbidea eduki arte.

2.2.3. Berariazko lehentasunak

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
·Gizarteratzeko eta laneratze euskarria.	·Laguntasun-zerbitzu bat sortuko dugu, gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko, pertsonalizatua. 8. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila - Lanbide eta Foru Aldundiak. Enplegurako Prestakuntzako Batzordea. -Nola bideratu: Nori bere erara gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko laguntasun-zerbitzua.
·Etxebizitzaren euskarria.	·Laguntza bat egongo da Betebehar eta Eskubideen Kontratura lotu diren gazteentzat, etxebizitza lagun artean alokatzeko, edo etxeetan har ditzaten. 9. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila; eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: etxebizitza eta harrera-etxe horiek kudeatzen dituzten erakundeak.
·Bizi-gaietarako euskarria.	·Beka bat egongo da Betebehar eta Eskubideen Kontratura lotu diren gazteentzat eta harrera-etxean diren gazteentzat, enplegurako prestatzen laguntzeko. 10. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: Aukera bat baino gehiago dago. Oraindik ez dugu baloratu.

3. Beste lerro osagarri eta zeharkako batzuk

Xedea	Lehentasuna	Kudeaketa
·Adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetan hezkuntzako eta lanbide-heziketako egiturak indartzea.	·Hezkuntzako eta lanbide-gaikuntzako proiektuak bultzatzea adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetan. 11. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Nagusiki, GLEA, Enplegurako Prestakuntza Batzordearen barruan. -Nola bideratu: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren aholkularitzarekin.
·Jatorrizko herrialdeetan aukerak sortzea, hango giza kapitala indartuz.	·Adingabe migratzaileen jatorrizko eskualdeetan ezarritako euskal enprekin hitzarmenak bultzatzea, han emateko prestakuntza eta enplegua. 12. fitxa.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Batez ere, Foru Aldundiak eta Lanbide, Enplegurako Prestakuntza Batzordearen barruan. -Nola bideratu: Lanbide.

Bigarren atala

Euskarri Estrategiaren
lehentasunak fitxetan
deskribatzea

I. Adingabeak

1. fitxa

Share Proposamenak zer proposatzen duen erantzukidetasun-printzipiorako

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
·I. Etxearen euskarria.	·Estatuan eta Euskadin Share Proposamena sustatzea, erantzukidetasunaren printzipioa aplikatzea sustatzearen.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritza (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila eta Giza Eskubideen Idazkaritza) eta Foru Aldundiak. -Nola bideratuko: Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Lehentasun honek bi ikuspuntu ditu; batean, kanpora begiratzen da; eta, bestean, barrura:

-Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta EUDELEk sinatutako akordio baten bidez, Espainiako Gobernuan eta gainerako Autonomia Erkidegoetan Share Proposamena sustatzea, BDAAentzako erantzukidetasun-printzipioa aplikatzeko mekanismo gisa. Gai honetan gehiago eragin eta gehiago eskatu beharra dakar ekimen horrek.

-EAEko hiru Foru Aldundien artean Share Proposamena aplikatzeko barne-akordio bat sustatzea, erantzukidetasun-printzipioa garatzeko, BDAAei dagokienez.

2. Oharrak

·Euskarri estrategikoaren lehen puntua *etxe* bat edukitzea da, bizitzeko duina eta egokia. Zenbat eta adingabe gehiago egon harrera-etxebizitza edo -zentroetan, orduan eta zailagoa da helburu hori lortzea, eta horixe ari da gertatzen bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan.

·Hori dela eta, adingabeko atzerritarrei nahiz bertakoei ematen zaien zerbitzua hobetzeko, beharrezkoa da BDAAei laguntza emateko ahalegina banatzeko orduan erantzukidetasun-printzipioa ezartzea. Hori da Share Proposamenaren eta etxearen euskarriaren artean dagoen zuzeneko harremana.

2. fitxa

Etxe-ereduak dibertsifikatzea

<i>Euskarri estrategikoa</i>	Lehentasuna	Kudeaketa
·I. Etxearen euskarria.	-Aldian-aldian pilotajeak bultzatzea, <i>Etxe</i> -ereduak dibertsifikatzeko.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Foru Aldundiak eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. -Nola bideratu: Idazkaritza tekniko bateratu bat kontratatuko da.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Prozesu bat adostea, adingabeentzako *etxeen* eduak dibertsifikatzeko, hartara, adingabeek, premiazko harrera-lekuetatik egoitzara igaro ondoren, aitzina egin ahal izan dezaten, bai familia-harrerarantz, bai helduarora igarotzeko baliabideetarantz. Dibertsifikazio-prozesu hori esperientzia pilotuen bidez egituratu ahal izango da. Gai honetan lehendik dauden jardunbide egokiak ere hartuko ditu kontuan.

2. Oharrak

·Lehentasun honek bi alderdi ditu. Alde batetik, 131/2008 Dekretuan aurreikusita dauden egoitza-baliabide "formaletan" pausatzen ditu begiak –babesik gabe dauden umeentzat dira soilik–, eta, ahal dela, indartu eta hobetu egin nahi ditu. Bestalde, gutxienez bi *etxe*-modalitate aztertzea proposatzen du:

- lehenik eta behin, aldian aldi esperientzia pilotuak erabiliz, harreraren bidea aktibatzea. BDAAen kasuan, datozen herrialdeko edo kulturako familiekin izan daiteke;
- eta, bigarrenik, emantzipazio-pisuak sustatzea, erreferentziako egoitzari lotuta eta helduen bizitza pres-tatzera bideratuta.

·Idazkaritza tekniko bateratu bat kontratatuz bideratuko da ekimen hau. Jarduera hori dinamizatzear gain, Idazkaritza Tekniko hau Euskarri Estrategiaren lan-plangintza osoa koordinatzeko funtzioak garatzeko kontratatuko da.

3. fitxa

Erakundeen tutoretza optimizatzea

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
II. Orientazioaren euskarria.	Lan-talde bat sortzea, erakundeen tutoretza optimizatzeko.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Foru Aldundiak. -Nola bideratu: erakunde arteko lan-talde teknikoa.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Erakundearteko lantalde tekniko bat sortzea, bakarrik dauden adingabeen tutoretza hobetzeko proposamen zehatzak identifikatzeko, Euskarri Estrategiaren helburua eta bi errealitate-printzipioak oinarri hartuta batez ere. Egiten diren hobekuntza-proposamenak arian-arian eta leku guztietan berdin jarri nahi dira praktikan; hori da prozesu honen helburua.

2. Oharrak

·Erakundeen tutoretza hobetzeko proposamenak identifikatzeko, bi erreferentzia zehatz erabil daitezke abiapuntu modura:

- Heldu-bizitzarako prestatzeko proiektu pertsonalizatu bat izatea, adingabetasunaren eta adin-nagusitasunaren artean etenik egin gabe.
- Heldu-bizitzarako prestatzeko proiektu horri norabide garbi bat ematea, alegia, adin-nagusitasunera iristean ondo gizarteratzea eta laneratzea.

4. fitxa

Mentoretza soziala

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
II. Orientazioaren euskarria.	·Erakunde bat sortuko dugu, mentoretza moduko ereduak gizartean zabaltzeko.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: Lehiaketa publiko bidez, enpresa edo erakunde gaitu bati emango zaio.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Erakundeen arteko beste erakunde bat sortzea, euskal gizartean mentoretza sustatzeko eta bideratzeko, bakarrik gabe dauden adingabeei eta, bereziki, BDAAei laguntasuna ematera bideratuta hasiera batean.

2. Oharrak

·Lehenagotik datozen beste esperientzia batzuk erabil ditzakegu, eta zabaldu; hala nola Izeba Programa. BDAAen kasuan, mentoretza-esperientziak familiekin egitea sustatu dezakegu, eta, gero, esperientziok kudeatu. Familiak bertakoak izan daitezke, edo adingabearen herrialdekoak edo kulturakoak. Gero harrera-familietan bizitzeko prestakuntza-urrats modura har daiteke.

·Erakunde horren kudeaketa lehiaketa publiko bidez esleitu ahal izango zaie nahikoa gaitasun eta esperientzia egiaztatzen duten erakunde edo enpresei.

5. fitxa

Hizkuntzak ikastea

<i>Euskarri estrategikoa</i>	Lehentasuna	Kudeaketa
III. Prestakuntzaren euskarria.	·Bertako hizkuntzak ikasteko ibilbide espezifiko eta trinkoa antolatzea.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta HABE. -Nola bideratu: Adingabeentzako zentroen eta zerbitzuen kudeaketaren esleipendun diren enpresak eta erakundeak.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Ibilbide berezi eta trinko bat taxutuko dugu, bertako hizkuntzak ikas ditzaten. Adingabe bakoitzak prestakuntzarako eta heldu-bizitzarako daukan proiektu pertsonalaren barruan kokatuko da. Helburu nagusia A2 oinarritzko maila egiaztatzea izango da. Ibilbide hori antolatzeko erreferentziazko baliabideak ikastetxeetan bertan, bizitegi-baliabideetan, helduentzako ikastetxeetan eta hizkuntza-eskola ofizialetan eman daitezkeen ikastaroak dira. Ibilbide espezifiko eta intentsiboaren proposamena diseinatzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokio. Adingabeentzako zentro eta zerbitzuak kudeatzeko esleipena daukaten enpresa eta erakundeei dagokie lehentasun hori adingabe bakoitzarentzat bideratzeko erantzukizuna.

2. Oharrak

·BDAA direlakoentzat, bertako hizkuntzak ikasteak erabateko lehentasuna dauka, gainerako helburu guztiak baldintzatzeko bezain bestean. Estrategia hori garatzean, argi eta garbi identifikatu behar da zein den erakunde egiaztatzailea, eta egiten diren proposamenak BDAA direlakoan errealitatera egokituta egon behar dira.

·Osagarri modura, beste aukera bat da ikastaro trinko bat sortzea, egiaztapena lortzeko. Era berean, mentoretza-esperientziak zabaltzeko helburuetako bat, hain zuzen ere, bertako hizkuntzak ikasten laguntzea izango litzateke.

6. fitxa

Prestakuntza-proiektuak eta ziurtagiri profesional egokitua

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
III. Prestakuntzaren euskarria.	·Lanbide-orientazioa emango dugu, lan-aukerak dauzkaten lanbideei lotuta; eta amaieran lanbide-ziurtagiri aitortuak eskaintzen dituzten prestakuntza-prozesuak antolatuko ditugu.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lanbide eta Enplegurako Prestakuntza Batzordea (Lanbide, Gizarte Politiketako, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, GLEA eta Foru Aldundiak). Nola bideratu: Bi sareetako hezkuntza-zentroak eta helduen hezkuntzako ikastetxeak, eta adingabeentzako zentroen eta zerbitzuen kudeaketaren esleipendun diren enpresak eta erakundeak.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Prestakuntza-prozesu baliagarriak antolatzea, tutoretzapean dauden adingabeen errealitatera egokituak, eta, azkenean, ziurtagiri akademiko aitortu bat lortzeko bidea emango dutenak. Prozesu horiek egituratzeko ardura Enplegurako Prestakuntza Batzordeak izango luke. Batzorde hori honako hauek osatuko lukete: Lanbidek, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, GLEA eta Foru Aldundiak. Koordinaturik egin beharko litzateke aurrera, malgu ibiliz, sekuentziak, adingabearen bizi-prozesura egokiturik; hiru maila hauetan: DBH, LH eta Lanbide Hastapena. Lehentasun hau adingabeko bakoitzarentzat bideratzeko erantzukizuna sare bietako ikastetxeek daukate, helduen ikastetxeek eta adingabeentzako zentroak eta zerbitzuak kudeatzeko esleipena daukaten enpresek eta erakundeek.

2. Oharrak

- DBHri dagokionez, aztertu behar da ez ote diren malgutu behar adinaren arabera sartzeko irizpideak, bai BDAAentzat bai zailtasunak dauzkaten eta babespetik datozen beste gazte batzuentzat.
- Lanbide Heziketari dagokionez, Maiatzaren 16ko Agindua oinarri hartuta, aztertu behar da ez ote diren plaza gehiago eskaini behar edo ez ote den sartzeko hurrenkera aldatu behar, erakundeen babespetik datozen gazteen sarbideak emaitza inklusiboa izan dezan.
- Lanbide Hastapenari dagokionez, ikusi da beharrezkoa dela lan-atxikipen eta -aktibazioko programak garatzea. Lan-mundura igarotzea errazten duten profesionaltasun-ziurtagiriei lotuta egongo dira, Lanbideko zuzendari nagusiaren 2018ko urriaren 31ko ebazpenaren ildotik.

7. fitxa

Prestakuntza-eredu dualak

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
III. Prestakuntzaren euskarria.	·Enpresekin hitzarmenak sustatzea, prestakuntza-eredu dualak garatzeko.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lanbide. Enplegurako Prestakuntzako Batzordea. -Nola bideratu: Adingabeentzako zentroen eta zerbitzuen kudeaketaren esleipendun diren enpresak eta erakundeak.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Euskarri Estrategiarekin elkartzeko esparru-hitzarmen bat sustatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren, Lanbideren, Confebasken eta lurralde historiko bakoitzeko enpresa-erakundeen artean, prestakuntza-eredu dualak sustatzeko tutoretzapean dauden adingabeentzat (tutoretzapean dauden gazteak ere barnean hartuta). Esparru-hitzarmen hori eredu bat izango litzateke, baina enpresaz enpresa egokitu edo errepikatu egin ahal izango litzateke. Adingabeentzako zentro eta zerbitzuak kudeatzeko esleipena daukaten erakundeei dagokie lehentasun hori bideratzeko eta adingabeen eta enpresen artean zubiak eta hitzarmenak eraikitze-josteko erantzukizuna. (Hitzarmen horren beraren bertsio bat tutoretzapean egondako gazteei zuzenduta egongo da. Ikus 12. fitxa).

2. Oharrak

·Gai honetan orain arte zer egin den ere baloratu beharra dago; zer egin den bai EAEn (Elkar-Ekin), bai Nafarroan, bai beste lurralde batzuetan.

·Era berean, prestakuntza dualaren arloan, ezinbestekoa da Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak-Lanbidek aholkularitza ematea.

II. Gazteak. 21 Urtera arte

8. fitxa

Nori bere erara gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko laguntasun-zerbitzua

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
Gizarteratzeko eta laneratzeke euskarria.	·Laguntasun-zerbitzu bat sortuko dugu, gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko, pertsonalizatua.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila-Lanbide, Enplegurako Prestakuntza Batzordea eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: Nori bere erara gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko laguntasun-zerbitzua.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Laguntasuna emateko zerbitzu bat sortuko dugu, jarraipena egiteko, bidea erakusteko (orientazioa) eta babesa emateko. Babespean egondako gazteak bakoitza bere erara gizarteratzea eta laneratzea izango da batez ere helburua. Foru Aldundi bakoitzak enpresa edo erakunde espezializatu bat azpikontratatu ahal izango du, lehiaketa publiko bidez. Zerbitzu horrek bi helburu izango lituzke: alde batetik, tutoretzapean egondako gazte bakoitzaren enplegu-prestakuntza eta gizarteratzea-laneratzea bultzatzea; eta, bestetik, gazte bakoitzak sinatutako Betebeharren eta Eskubideen Kontratu bat betetzen ote den zaintzea. Prozesu honetan, Lanbide erreferentzia bat izango litzateke, gauzak nola egin aholkatzeko, eta gazte bakoitzak enplegu-prestakuntzarako eta lanean hasteko daraman bidea errazteko.

2. Oharrak

·Laguntza zerbitzu bat da, gazteen prozesuaren jarraipena astero egiten duena, ordu-kopuru mugatu eta malgu batean, kasuen eta zirkunstantzien arabera. Nolanahi ere, hezkuntza-arloko eta aholkularitzako esku-hartze hori geroz eta intentsitate baxuagokoa litzateke, tutoretzapean egondako gazteak lortzen duen autonomia-mailaren arabera.

·Gazteak badu Betebeharren eta Eskubideen Kontratu bat sinaturik eta ezin du behin eta berriz urratu, bestela –hau baldintza bat da– zerbitzu hau galdu egiten da.

·Beharrezkoa da arlo horretan orain arte EAEn (GazteOn SareLan eredu) eta beste lurralde batzuetan garatu diren esperientziak baloratzea.

·Tutoretzapean egondako gazteen kasuan, bizileku- eta lan-baimenak estu-estu baldintzatzen du gizarteratzea eta laneratzea. Horregatik, estrategia hau garatzearekin batera, ezinbestekoa da adostutako prozedura eta neurri batzuk artikulatzea, bizileku- eta lan-baimenak lortzea malgutzeko eta errazteko. Eusko Jaurlaritzak dagoeneko formalizatu du proposamen hori Espainiako Gobernuaren aurrean.

·Horrexegatik, zerbitzu honek laguntza soziojuridikoaren premia ere badu, euskarri tekniko bat behar baitugu, emantzipatu eta beren kasa bizitzen hasi nahi duten gazteek zeri heldua izan dezaten atzeritartasun-arloan edo eroldara sartzeko, daukatena baino babesgabezia sozial gehiago izan gabe.

9. fitxa

Gazteei etxebizitza partekatuetan alokairuan bizitzen laguntzea

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
Etxebizitzaren euskarria.	·Laguntza bat egongo da Betebehar eta Eskubideen Kontratura lotu diren gazteentzat, etxebizitza lagun artean alokatzeko, edo etxeetan har ditzaten.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila; eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: etxebizitza eta harrera-etxe horiek kudeatzen dituzten erakundeak.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Euskal erakundeek dirulaguntza bat sortuko dute, tutoretzapean egondakoak diren eta Betebehar eta Eskubideen Kontratura lotu diren gazteentzat, etxebizitza lagun artean alokatzeko edo etxeetan har ditzaten. 18 eta 21 urte bitarteko gazteentzat izan liteke, harik eta gazte bakoitzak bere kasa bizitzeko baliabideak eskuratu arte; orduan amaituko da laguntza. Laguntza jasotzeko, jakina, etxebizitzetan funtzionatzeko eta bizitzeko izaten diren arauak zuzen bete beharko dira. Aldi berean, gazte bat hartzeko prest dauden etxeen multzo bat osatuko dugu, gazteak aktibatzeko prozesuari loturik.

2. Oharrak

·Gazte horiek bizitza-proiektu autonomoa behar dute; proiektu hori sendo lotzen laguntzera bideraturik dago Euskarri Estrategia. Prozesu horretan, etxebizitza estrategikoa da, eta, aldi berean, aurrera egiteko zailtasunik handienetako bat.

·Alokairu-pisuetan elkarrekin bizitzeko formulak askotarikoak izan daitezke: badira batzuk lehendik datozenak: euskal administrazioak finantzatzen ditu, beste erakunde batzuk ere lagunduta; eta, beste zenbaitetan, tutoretzapean egondako gazteak elkarrekin bizi dira pisu batean, mentore-lanak egiten dituen pertsona batek lagunduta.

·Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ardura da laguntza-eredu bat eta bera jartzea EAE guztirako, baita erakunde bakoitzak diruaren zer parte jarriko duen zehaztea ere, arlo honetan lehenagotik martxan dauden programak kontuan hartuz, jakina.

10. fitxa

Oinarrizko bizi-gaiak

<i>Euskarri estrategikoa</i>	Lehentasuna	Kudeaketa
Bizi-gaietarako euskarria.	·Beka bat egongo da Betebehar eta Eskubideen Kontratura lotu diren gazteentzat eta harrera-etxean diren gazteentzat, enplegurako prestatzen laguntzeko.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Foru Aldundiak. -Nola bideratu: Laguntasun-funtzioak betetzen dituzten erakundeek, familiekin edo pertsonen.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Euskal erakundeek 300 euroko beka sortuko dute harrera-etxe batera doan gazte bakoitzagatik eta enplegurako prestatzeko. Betebehar eta Eskubideen Kontratura lotu diren gazteentzat izango da. Gazteek oinarrizko bizi-gaien falta izan ez dezaten laguntzea da asmoa, alegia, tutoretzapean izan diren eta zaurgarriak diren edo premia objektiboak dauzkaten gazteei laguntzea, harik eta dirusarrera propioak eduki arte edo sistema orokorreko laguntzetara sarbidea eduki arte. Gazteek, berriz, enplegu-prestakuntzarako eta laneratzeko konpromisoa eta Betebeharren eta Eskubideen Kontratua behar bezala bete beharko dituzte; baldintza hori izango dute. Etxeko pertsonen eta prestakuntza-zentroko tutoreen ebaluatuko dute betetzen duten edo ez. Hasiera batean, aktibazio-planak irauten duen bitartean eman ahal izango da beka hau, eta betiere, Betebeharren eta Eskubideen Kontratua betetzen bada.

2. Oharrak

·Gazte horiek bizitza-proiektu autonomoa behar dute; proiektu hori sendo lotzen laguntzera bideraturik dago Euskarri Estrategia. Prozesu hau igarobide bat da: erakundearen tutoretzapean bizitzetik, heldu-bizimodura jauzi egiteko, baliabide propioak eta guzti. Gazteak, ordea, babesik eza, desegitura edo aparteko zailtasunak jasan baditu, igarobide horretan beste berme-puntu batzuk beharko ditu, aukera-berdintasunen printzipioak bere lekua izan dezan. Horra hor beka honen zentzua.

·Euskarri Estrategiaren filosofia, edonola ere, eskubide-betebeharren soka batera loturik dago. Ez du nahi ez paternalismorik eta biktimismorik. Autonomia, erresilientzia eta hobetu-nahia sustatzen ditu. Alegia, badira arauak, badira helburuak, eta zuzen-zorrotz bete behar dira; horren mende dago laguntza hau. Laguntza hau ez da bizitzeko edo bizirauteko; bizitza autonomoa eduki ahal izateko da.

·Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ardura da beka-eredu bat eta bera jartzea EAE guztirako, baita erakunde bakoitzak diruaren zer parte jarriko duen zehaztea ere, arlo honetan lehenagotik martxan dauden programak kontuan hartuz, jakina.

III. Beste lerro osagarri eta zeharkako batzuk

11. fitxa

Jatorrizko lekuetan sustatzea heziketa-proiektuak eta lanerako gaitzeko proiektuak

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
Adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetan hezkuntzako eta lanbide-heziketako egiturak indartzea.	·Hezkuntzako eta lanbide-gaikuntzako proiektuak bultzatzea adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetan.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Nagusiki, GLEA, Enplegurako Prestakuntza Batzordearen barruan. -Nola bideratu: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren aholkularitzarekin.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Hezkuntzako eta lanbide-gaikuntzako proiektuak bultzatzea adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetan, betiere —metodologiaz den bezainbatean—, pixkanaka-pixkanaka eta proba-esperientziak erabiliz. Badugu lehen proiektu bat azterketa-fasean, Marokoko agintariekin elkarlanean. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia ari da bultzatzen, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren aholkularitzarekin.

2. Oharrak

·Adingabeek ez dezatela etxea utzi beharrik izan bidaian bizitza arriskuan jarritz (edo geroragorako utz dezatela); horretan lagundu nahi du ekimen honek. Helburu hori lortzen laguntzeko bitarteko bat da adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetako hezkuntza-egiturak eta lanbide-heziketako egiturak indartzea. Lankidetzaren politiketan ikuspegi berriztatzailea eta koherentzia aplikatzearen ondotik dator hori guztia.

·Migratio-proiektuak bideragarritasun handiagoa izango du adinez nagusi izanik migratzen badute eta prestakuntza profesionala eskuratuta badatoz. Ekimen hauek mezu hori helarazi nahi diete adingabe migratzaileei eta haien familiei.

·Garatzen diren esperientzia pilotuetan, Andaluziako eta Kataluniako beste esperientzia batzuk ere hartuko dira kontuan. Tokian tokiko indarguneak eta giza kapitala indartzera bideratuko dira. Hango agintariekin koordinaturik egin beharko dira, jakina.

12. fitxa

Migratzaileen jatorrizko herrialdeetan ezarritako euskal enpresekin prestakuntza eta enplegua sustatzea

Euskarri estrategikoa	Lehentasuna	Kudeaketa
Jatorrizko herrialdeetan aukerak sortzea, hango giza kapitala indartuz.	·Adingabe migratzaileen jatorrizko eskualdeetan ezarritako euskal enpresekin hitzarmenak bultzatzea, han emateko prestakuntza eta enplegua.	-Abiapuntua: erakunde arteko akordioa. -Erakunde arduraduna: Batez ere, Foru Aldundiak eta Lanbide, Enplegurako Prestakuntza Batzordearen barruan. -Nola bideratu: Lanbide.

1. Lehentasunaren formulazioa

·Adigabe migratzaileen jatorrizko eskualdeetan ezarrita dauden euskal enpresekin akordioak sina daitezke han bertan emateko praktika bidezko prestakuntza eta enplegurako prestakuntza. Aukera hori Euskarri Estrategiara elkartzeko esparru-hitzarmenean jaso beharko da. Hitzarmen horretan, alde batetik, Lanbide eta hiru Foru Aldundiak daude; eta, bestetik, Confebask eta lurralde historiko bakoitzeko enpresa-erakundeak. Praktika bidezko prestakuntza, bestalde, eman daiteke bai Euskadiko instalazioetan bai herrialde haietan dauzkatenetan. Dinamika horrek bi aukera zabaltzen ditu: Euskadira emigratu duten gazte horiek hemen prestatzea eta gero beren herrialdeetara itzultzea, enpresa horietan lan egitera; edo, alderantziz, han prestatu, lanerako kualifikazioa lortu, eta jada adin nagusikoak direnean, hona emigratzea.

2. Oharrak

·Jatorrizko herrialdeetan aukerak sortzea, hango giza kapitala indartuz eta indarguneak sendotuz; hori da ekimen honen helburua. Adingabeek ez dezatela etxea utzi beharrik izan bidaian bizitza arriskuan jarritz (edo geroragorako utz dezatela); horretan lagundu nahi du ekimen honek.

·Migrazio-proiektuak bideragarritasun handiagoa izango du adinez nagusi izanik migratzen badute eta prestakuntza profesionala eskuratuta badatoz. Kasu honetan ere, ekimen hauek mezu hori helarazi nahi diete adingabe migratzaileei eta haien familiei. Kontua da bi giltzarri hauei lehentasun handia ematea: prestakuntza eta adin-nagusitasuna.

·Euskadik lanbide-heziketa dualean duen esperientzia ere izan beharko luke kontuan ekimen honek, eta, ildo horretan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren aholkularitza eta parte-hartzea izan beharko luke. Logikoa denez, jatorrizko herrialdeko agintariekin koordinatuta eta lankidetzan garatu beharko da.

1 eranskina

Lanerako lehen plana: hurbilketa bat

Oharra:

Gogoratu behar da lanerako plan hau 2020ko otsailean diseinatu zela. Apirilaren 5ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeen deialdia baino lehen –bertan behera geratu zena, Covid-19ren eraginez–, eta pandemiaren beraren ondoriozko konfinamendua-
ren aurretik. Beraz, konpilazio honetan sartzen da dokumentazio gisa. Euskarri Estrategia abian jartzeko, beharrezkoa izango litzateke plan hau eguneratzea.

1. Kudeaketa- eta lan-esparruak

1.1. Erakunde arteko lan-taldea

·**Misioa.** Euskarri Programaren lehentasun guztien garapena bultzatzea eta jarraipena egitea.

·**Parte-hartzaileak.**

-Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

-EUEDEL.

-Eusko Jaurlaritza: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila; Lanbide; Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Etxebizitza, Justizia eta Segurtasun Sailburuordetzak; Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusia; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

1.2. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa

·**Misioa.** Euskadiko gizarte-zerbitzuen euskal sistemako zerbitzuei eta prestazioei dagokien guztia bideratzea, 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera.

·**Parte-hartzaileak.** 12/2008 Legeak berak jasotzen dituenak.


2. Erakunde arteko lan-taldeko idazkaritza teknikoa

·Erakunde artean lan egiteko agiri honen kudeaketa eta koordinazio teknikoa egitea da idazkaritza honen misioa. Lehentasun bakoitza garatzeko dagoen arduradun bakoitzarekin batera egingo du. Lehiaketa publiko bidez egingo beharko litzateke kontratazioa.

3. Lanerako lehen planaren behin-behineko eskema

Kudeaketa-ardatz nagusiak	Xedea	Arduradunak
·Betebeharren eta Eskubideen Kontratuaren esparru-dokumentua egitea. 0. fitxa.	-Denon arteko konpromisoa eta erantzukizuna eta enplegurako prestakuntza sustatzea.	-Foru Aldundiak.
·Share Proposamena bultzatzea. 1. fitxa.	-Erantzukidetasun-printzipioaren aplikazioa sustatzea.	-Eusko Jaurlaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Giza Eskubideen Idazkaritza). -Foru Aldundiak.
·Pilotajeak koordinatzea, etxe-ereduak dibertsifikatzeko. 2. fitxa.	-Dibertsifikaziorako proba-esperientziak bultzatzea koordinaturik.	-Foru Aldundiak. -Eusko Jaurlaritza.
·Nazioarteko talde tekniko bat sortzea, tutoretza jorratzeko. 3. fitxa.	Erakundeen tutoretza hobetzeko ekintza adostuak garatzea.	-Foru Aldundiak.
·Erakunde bat sortzea, mentoretza-ereduak zabaltzeko. 4. fitxa.	-Mentoretza-esperientziak erraztea, tutoretzapeko adingabeekiko.	-Foru Aldundiak. -Eusko Jaurlaritza.
·Bertako hizkuntzak ikasteko ibilbide espezifiko eta trinkoa antolatzea. 5. fitxa.	-A2 oinarrizko maila egiaztatzea.	-Hezkuntza Saila eta HABE.





6. dokumentua

Migraziorako Euskal itun Soziala

fr

en

es

eu



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MIGRAZIORAKO EUSKAL **ITUN** **SOZIALA**

JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan zein giza eskubideen zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorkinek, asilo-eskatzailleek, Bidaiderik Gabeko Adingabe eta Gazte Atzerritarrak (BGAA/BGGA), iragaitzazko migratzaileek edo zaurgarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bideratu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonen erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeak aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da *besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna*. Migrazioari dagokionez, *jaso beharko genukeena eskaintzea* da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamatutako aurreiritziekin errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredu eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabean. Sintoma kezkagarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitorpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migraziorako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektzio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharizanei dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide-prozesuaren parte gisa heltzea.

ABIAPUNTUAK. Migraziorako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu:

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri euskal gizartea defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharrezakoa. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharrezakoei erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkundeari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

ZEHAZKAKO AUKERAK. Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zehazkako aukera hauek:

I. Bizikidetzak. Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuia egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.

II. Giza Eskubideak. Oinarritzko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratatu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororren aurrean.

III. Zehazkakotasuna. Euskal administrazioen sektore-politiketan (enplegua, kultura, etxebizitzak, gizarte zerbitzuak, segurtasuna,...) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.

IV. Kohesioa. Irrebatiaz babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarritzko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.

V. Hezkuntza. Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integratzaileko eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

VI. Tokiko esparrua. Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzak hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehentasuneko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.

VII. Berdintasuna. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzak eraikitzeke oinarritzko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politiketan eta gizarte babeseko politiketan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.

VIII. Hizkuntzak. Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integratzaileko eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu

elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarriketa eta lankidetzaren iraunkorreko mekanismoak ezarri, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

IX. Lankidetzaren. Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzaren. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

KONPROMISO ZEHATZAK. Aurreko guztiaz gain, erabateko babesaren ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapeneri, dagozkien eskumen-esparruetan:

1. Erantzunkidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzaren aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzaren leialan aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.

2. Irreitasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektoralari lotu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.

3. Immigrazio erregularizatua. Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak Europan planteatzen dituen beharrezkoak.

4. Asilo-eskatzaileak eta errefluxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefluxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, Europan, estatuan eta Euskadin.

5. Zaurgarritasun-egoeraren dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeraren dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarri emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketen biktimengan.

6. Erregularizatu gabeko egoeraren dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzak migratzaileei edo erregularizatuak dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuaren alde egiteko.

7. Bidaierik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaierik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGA). Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharrak, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatua, bidezko eta egokia eskaintzeko.

8. Esku-hartze humanitarioa. Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.

9. Prebentziozko esku-hartzea. Lankidetzaren proiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.

10. Bizikidetzaren kultura. Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuiatuta.





7

● dokumentua



Bi esperientzia pilotu:
Auzolana I eta Auzolana II

Bi esperientzia pilotu: Auzolana I eta Auzolana II

2020ko ekaina

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetza
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Auzolana I

esperientzia pilotua

Sarrera

2017ko urtarrilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak AUZOLANA proposamena aurkeztu zion Espainiako Gobernuari; hots, *errefortzu-sistema osagarriaren proposamena*, asiloa eskatzen duten pertsonen harrera hobetzeko. Helburu nagusietako bat zen (eta oraindik ere hala da) kuantitatiboki eta kualitatiboki handitzea EAEk harrerarako daukan ahalmena, eta horrela, elkarlanean aritzea Espainiak Europar Batasunarekin hartuta dituen konpromisoak betetzen, harreran dauden pertsonak birkokatzeari (Greziatik eta Italiatik datozen asilo-eskatzailleak) eta birlekutzeari (Europar Batasunaz kanpotik datozen asilo-eskatzailleak, nagusiki Turkiatik eta Libanotik heldutakoak) dagokienez.

Zenbait hilabetetan hitz egiten aritu ondoren, 2017ko apirilaren 11n, Espainiako Gobernuko orduko Immigratzio eta Emigratzio Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiari aditzera eman zion aipatutako proposamenaren aukerak aztertzeako asmoa zuela – lehenengo esperientzia pilotu bat garatuta, horretarako–, eta esperientzia hori aurrera eraman zitekeela 50 errefuxiatuko talde bat birkokatuta.

Eusko Jaurlaritzak eskaintza onartu zuen, eta programa-esparruaren agiria egin zuen. Ondorioz, 2018ko urtarrilaren 15ean, honako lankidetzaren hitzarmen hau sinatu zen: *Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Migrazioen Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen harrera eta integrazioarako ezarritako prozeduretan jarduketan koordinazioa bermatzeko*.

Auzolana proposamena izena eman zitzaien, elkarlanean oinarritzen den proposamena baita. Horixe da, hain zuzen ere, haren atzean dagoen filosofia.

Esperientzia pilotua garatzeko prozesua hasiera batean hiru fasetan egituratu zen: aurretiazko fasea, harrera-egokitzapen fasea, eta integrazio-autonomia fasea. Hala ere, azkenean, Harrera eta Integrazio Sistemak (HIS) orduko Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren nazioarteko babesa eskatzen zuten pertsonentzat ezartzen dituen fase eta baldintzetara egokitu zen. Faseak honako hauek dira:

- Aurretiazko fasea: Errefuxiatutako pertsonen kokapena erabakitzea eta EAEra iristen direnen lehen harrera prestatzea da etapa honen helburua.
- Harrera-egokitzapen fasea: Harrera eta integrazio-esparru bat sortu nahi da fase honetan, etxebizitzaren egokia, hizkuntzen ikaskuntza, oinarritzeko beharrezkoak eta laneratzeko nahiz gizarteratzeko prestatzeko oinarriak bermatu dituzten. 6 hilabeteko iraupena dauka, eta beste 3 hilabete luza daiteke, kasurik zaurgarrien kasuan.
- Integrazio-autonomia fasea: Errefuxiatuak gizarteratzeko, laneratzeko eta autonomiaz aritzeko tresna eraginkorrak elkarlanean sortzea da fase honen helburua.

Faseen iraupena harreraren dauden pertsonen egoera pertsonalaren eta sozialaren arabera da. Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak eta egoera horretan ez daudenak bereizten dira.

Proposamenak batez ere hiru irizpide gidari betetzen zituen:

- Lehenik eta behin, behetik gora eraikitako erantzun-azpiegitura bat artikulatu nahi zuen, udalak, aldundiak eta Autonomia Erkidegoak GKE arduradunekin eta Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritu zitezen.
- Harreraren dauden pertsonak prozesuaren eragile aktiboak direla (ez soilik hartzaile pasiboak) ulertzea zen bigarren irizpide gidaria. Horretarako, harrera egiten duten erakundeak eta harreraren datozen pertsonen lankidetzaren, elkarrekikotasunaren eta ahalegin partekatuaren kontzeptuak nabarmendu behar dira, integrazioa lortzeko. EAEko errefuxiatuei dagokie ahaleginaren zati bat, *autonomiaren* helburua lortzeko.

·Hirugarrenik, proposamenaren arabera, nazioarteko babesa eskatzen zuten pertsonen harrera-sistema indartu behar zen bereziki, integrazio-proiektuari begira. Horretarako, GKE arduradunek egiten duten lana indartu eta osatu zen, foru aldundien, udalen eta boluntario-erakundeen inplikazio antolatua eta egituratuaren bidez. Eusko Jaurlaritzak baliabide ekonomikoak jarri zituen, eta prozesua dinamizatu eta koordinatzen lagundu zuen.

Gainera, esperientzia pilotuak bazuen elementu bereizgarri bat ere: faseen prozesuan zehar, eta harrera-sistemaren egungo prozedura zainduz, hamar errefortzu-elementu sartu zituen, errefuxiatuen harrera-sistema hobetzeko asmoz.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak prozesuaren indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko konpromisoa hartu zuen, eta, horretarako, etorkizuneko ezarpen posibleetarako hobetu beharreko arloak proposatu zituen.

Agiri honek Auzolana proposamenaren ezarpenean lortu diren ikaskuntzen laburpena izan nahi du. Horretarako, hobetzeko gomendioak eta ondorioak atera ditu, esperientzia pilotua beste udalerrri batzuetan errepikatua ahal izateko, eta, gainera, oinarri gisa erabili ahal izateko nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen edo errefuxiatuei harrera eta integrazioa emateko euskal eredu berria diseinatzeko orduan.

1. Auzolana I esperientzia pilotuaren testuingurua eta datu nagusia

2015ean, krisi humanitario larria hasi zen Mediterraneoan, ehunka milaka pertsona gerratik eta muturreko pobreziatik ihesi erbesteratu zirenean. Egoera hartan, Espainiako Gobernuak 17.228 pertsona hartzeko konpromisoa bereganatu zuen, batzuk birkokatuz (Greziatik eta Italiatik etorriko ziren asilo-eskatzailleak) eta beste batzuk birlekuratuz (EBtik kanpo, Turkiatik eta Libanotik batez ere, etorriko ziren asilo-eskatzailleak). Orduan, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen prest zegoela epe laburrean 1.000 pertsona hartzeko, gutxienez.

2016ko amaieran, Espainiak 980 pertsona zituen harreraren, birkokatuak eta birlekuratuak. Garai hartan, EAEn guztira 307 plaza sortu ziren, eta, horietan, 500 pertsona baino gehiagori eman zitzaion harrera. Hala ere, horietatik % 10 inguru beste birkokatze edo birlekuratze batzuetatik zetozen. EAEko gainerako plazarik munduko beste toki batzuetatik heldutako pertsonen okupazioa zutuzten, gure lurraldera beren kabuz iritsi eta asiloa eskatu zutenek, hain zuzen. Aldi berean, uste da 2016an zehar 5.000 pertsonatik gora hil zirela Mediterraneoan, gerratik ihesi zetozela.

Egoera horren aurrean, 2017aren hasieran Eusko Jaurlaritzak bi proposamen aurkeztu zituzten Espainiako Gobernuari, asilo-eskatzailen harrera hobetzeko, gure herrian. Horietako baten ondorioz sortu zen, hain zuzen ere, Auzolana esperientzia pilotua.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, errefuxiatuen krisi humanitarioari hobeto erantzuteko gakoetako bat zen ohiko sistema errefortzu-sistema osagarri batekin osatzea, salbuespen-egoera horrek irauten zuen bitartean. Sistema horretan, Autonomia Erkidegoek zeregin zuzena zuten harrera- eta integrazio-prozesuak bideratzeko orduan. Auzolana izeneko sistema osagarri horren arabera, behetik gora eraikitako erantzun-azpiegitura bat artikulatu behar da, udalak, aldundiak eta Autonomia Erkidegoak Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritu daitezten. Era berean, funtsezko zeregina dute harreraren kudeaketaz arduratzen diren gizarte-erakundeek, laguntza-lanetan dabiltzan tokiko boluntario-erakundeek eta harrera-sistemaren azken faseetan —baita geroago ere— jarraipen- eta integrazio-lana egiten duten erakundeek.

Programa, hasiera batean, 7 udalerritan garatu zen: Amurrio, Galdakao, Getxo, Audio, Portugalete, Tolosa eta Zarautz. Udalerrri bakoitzak titulartasun sozialeko 2 etxebizitza laga ditu esperientziarako, Harrera eta Integrazio Sistema kudeatzen duten erakundearen bidez; kasu honetan, CEAR, Gurutze Gorria eta MPDL (Bakearen, Armagabetzearen eta Askatasunaren aldeko Mugimendua).

Audio udalerrriak esperientzia pilotua bertan behera uztea erabaki zuen, hura martxan jarri eta sei hilabetera. Eta, beste sei udalerrietan, esperientzian zehar izandako konpromiso- eta inplikazio-mailak desberdinak dira.

Auzolana programa hasi zenetik, 401 pertsona pasatu dira (101 bizikidetza-unitate) 7 udalerrietatik; horietatik 109 pertsonak (% 27) lehen fasean lanean hasi baino lehen utzi dute programa, lehenengo asteetan zehar.

Bigarren fasera 112 pertsona pasatu dira (31 bizikidetza-unitate), eta hirugarren fasera, 25 pertsona (7 bizikidetza-unitate). Sei bizikidetza-unitatek autonomia lortu dute, lana lortu dutelako.

Gaur egun, programan 202 pertsona daude (25 bizikidetza-unitate).

2. Ondorio hauen testuinguru berria eta ikuspegi berria

2017ko urtarrilean Auzolana proposamena aurkeztu zenetik gaur arte, egoera nabarmen aldatu da, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki.

Kuantitatiboki, garrantzitsua da egungo unearen argazki bat egiteko tarte hartzea, azken urteetako egoerarekin alderatzeko:

Estatu-mailan, 2012an nazioarteko babes-eskariak 2.500 ziren, 2014an 5.947, 2015ean 14.881, 2018an 54.065, eta 2019ko abuztura arteko datuak kontuan hartuta, urte hartan 73.601 eskari erregistratu ziren.

EAEn, 2014an 100 babes-eskari edukizetik 2019ko abuztuan 3.185 eskari edukitzera pasatu gara.

Harrera-plazen kopuruari erreparatuz gero, estatu-mailan 2015eko abuztuan 971 plaza zeuden, 2017ko abuztuan 5.451, eta 2019ko abuztuan 8.916.

EAEn, 2015ean 20 plaza zeuden, eta 2019an 547, azken bi urteetan ireki diren lehen harrerarako lau zentroak zenbatu gabe (Eusko Jaurlaritzak finantzatutako hiru eta Espainiako Gobernuak finantzatutako bat).

Bestalde, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren eta Auzitegi Gorenaren epaiek, Kataluniako Generalitat-ak aurkeztutako demanda ugarien ziozkoek, zalantzarik gabe ezartzen dute Autonomia Erkidegoen eskumena dela osasunaren, hezkuntzaren eta gizartearen eremuan asiloa eskatzen duten pertsonentzat berariaz bideratutako zerbitzu eta programak kudeatzea.

Epai horiek betetzean, eta kontuan hartuta Sistemak egungo egoerari erantzuteko duen gaitasun-falta, besteak beste nazioarteko babes-eskariak esponentzialki hazi direlako, Espainiako Gobernuak egungo Nazioarteko Babes Sistema erreformatzeko beharrezana izan du.

Epe laburrera asilo-eskatzailen harrera eta integratzeko euskal eredua zehazteko beharrezana da testuinguru berrian nabarmentzen dena. Sistema propio hori diseinatuta egon behar da, ez salbuespenezko egoera bati esperimendu baten bidez erantzuteko, baizik eta gaiaren gaineko politika publiko propioaren oinarriak ezartzeko, Auzolana proposamenean zehaztutako hiru irizpide gidariak abiapuntutzat hartuta.

Ondorioz, agiri honetan jasotzen diren irakaskuntzak, jardunbide onak, hutsuneak, gabeziak edo ondorioak eta martxan dauden beste esperientzia pilotu batzuen zioz ateratzen direnak, erreferentzia berri horretara bideratuko dira: eredu propio berrira zehaztera, hain zuzen ere.

3. Ondorioak

Las conclusiones extraídas de la experiencia, así como las recomendaciones y observaciones de cara a un nuevo modelo vasco de acogida e integración se van a ordenar en función de los 10 elementos de refuerzo identificados en la Propuesta Auzolana I.

3.1. *Lehen errefortzu-elementua: koordinazioa*

Koordinazioa: Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak koordinazio-mekanismo bat sortu dute, harre-ra eta abegi egiteko prozesua hobeto prestatzeko.

Horretarako, Espainiako Gobernuko orduko Immigrazio eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusiko ordezkaria-ren eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendariaren artean koordinazioan aritzeko organo bat sortu da. Etapa honen koordinazio nagusiaren erantzukizuna Espainiako Gobernuari dagokio.

Koordinazio-esparru honetan, Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin partekatuko du zenbat errefu-xiatu heltzea aurreikusten duen, EAEn harrera emateko. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Espainiako Go-bernuarekin partekatuko ditu harrera emateko dauden aukerak udalerriz udalerriz.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Koordinazioa ona izan da: Esperientzia pilotuaren lehen uneetan (aurrerapena). Birlektutze-kasuetan, iritsi diren pertsonen buruzko informazioa gutxienez egun bat lehenago jaso da, nahiz ez kasu guztietan. ·Birlektutu ez diren pertsonen plazak esleitzerakoan, ez da aldatu ohiko lan-metodologia. ·Bi gobernuen artean sinatutako hitzarmenean aipatu den arren, ez da bete Nazioarteko babesa eskatu eta hartzen duten pertso-nei zuzendutako jarduerak En-plegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren, Autonomia Erki-degoen eta toki-erakundearen ar-tean koordinatzeko protokoloa.	·Eredu berri batean landu beha-rreko funtsezko elementuetako bat koordinazioa da. Horretara-ko, ezinbestekoa da: Koordinazio-mekanismo eten-gabea ezartzea, aurrerapena eta planifikazioa hobetu ahal izateko. - Fase desberdinak jorratu-ko dituen jarduera-protokoloa ezartzea. Birlektutze edo/eta birkokatzeen kasuan, jatorrian egindako lanarekiko koordina-zioa aurreikusi beharko da. - Erakundearen arteko eta gizar-te-arloko koordinazio-mekanis-moak areagotzea. ·Datuak helarazteko sistema gar-den eta koordinatua zehaztea.	

3.2. Bigarren errefortzu-elementua: bi gobernuen artean informazioa partekatzea iritsi daitekeen pertsona-kopuruen gaineko aurreikuspenei buruz eta udalerri bakoitzean harrera emateko dauden aukerei buruz

Proposamena aurkeztu zen datan, Eusko Jaurlaritzak bazuen zenbatekoen aurreikuspen bat, udalerriz udalerrri egindakoa, Udal bakoitzak hurrengo bi urteetan har zitzakeen errefuxiatuen eta eskain zitzakeen logela-baliabideen kopuruari buruz.

Oinarri horien gainean ezarri zen, zehazki, bi gobernuak elkarren artean erabakiko zutela errefuxiatuen profil eta ezaugarrietara ondoen egokitzen zen kokapena, bai eta kasuan kasu prozesua kudeatzeaz arduratuko ziren GKEak ere.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Eusko Jaurlaritzak, eginda zuen aurretiazko aurreikuspenaren arabera, 7 udalerrri proposatu zituen esperientzia pilotua egiteko. 7 horietan parte hartzeko borondate politikoa adierazi zen, eta esperientzia garatzeko logela-baliabideak eskaini ziren. ·Proposamena egiteko, horrez gain, kontuan hartu ziren lurralde-orekak, ordezkaritza politikoa, eta Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak diruz lagundutako erakundeek udalerrietan duten presentzia. Halaber, Ministerio horrekin ere egiaztatu zen proposamena.	·Sistema propio batean, harreraren dauden pertsonen banaketa antolatu eta adostua egin beharko litzateke, bai lurralde historikoen artean, bai lurralde bakoitzeko eskualde eta udalerrien artean. ·Funtsezkoa da erantzukidetasunez jardutea. SHARE proposamena eta baliabideen koordinazio eta ikuspegi integrala elementu definitzaileak dira.	·Sistemak funtziona dezan, funtsezkoa da inplikaturako alde guztiek hura bereganatu dezatela. Horretarako, informazio eta prestakuntza aski izan behar da sistemari eta aldeetako bakoitzaren erantzukizun eta eginkizunei buruz.

3.3. Hirugarren errefortzu-elementua: aurrerapenaz lan egitea herri-mailan lehen harrera emateko gailuan, udalarekin eta kudeaketa hori bereganatzen duen erakundearekin

Errefuxiatuak iritsi baino lehen, Eusko Jaurlaritzak GKE arduradunak eta udal inplikaturak biltzen ditu, lehen harrerako gailua prestatzeko.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Etxebizitzak ez ziren zehaztu harreraren egon beharreko pertsonen beharrezanaren arabera, ez baitzen aldeztu aurretik eduki informazio egokia. ·Errefortzu-elementu hori zehazten duen aldeztu aurreko prestaketa apur bat gehiago landu ahal izan zen lehen familiak iristen zirenerako (guztiak birlekuetatik etorri ziren). Ondoren iritsi zirenek HISEn ohiko bideak jarraitu zituzten.	·Sistema propioan zehaztu beharreko funtsezko gaietako bat da hori. Zehaztasunetan sartu barietateak, sistemak zeregin hauek bete beharko litzazke: -Logelen eta etxebizitzaren baliabideak modu integralean jorratzea, bai harreraren hasierako uneetan, bai ondorengo faseetan. -Hiru faseko eredu fase bakoitzeko eredu bihurtzea, estaldura-denbora desberdinekin, harreraren dagoen pertsona bakoitzaren autonomia-mailaren arabera.	

3.4. Laugarren errefortzu-elementua: *Harrera eta Integrazioko Batzorde bat sortzea herri-mailan, erakunde arduradunaren, udalaren eta tokiko boluntario-taldearen artean*

Etaparen koordinazio nagusiaren erantzukizuna GKE arduradunari dagokio. Hasiera-hasieratik, elkarriketa etengabea ezarriko da Harrera eta Integrazioko Batzordearen bidez, GKEren eta udaleko arduradun tekniko eta politikoen artean. Ondoren, tokiko boluntario-taldea ere batu ahal izango da.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Esperientzian parte hartzen duten udal guztiek izendatu dute proiekturako solaskide politiko bat eta tekniko bat. ·GKE arduradunaren eta Udalaren arteko elkarriketa erraza izan da. ·Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren arteko harremana aldizkakoa izan da. Hiru bilera bateratu egin dira, eta, ondoren, harremana aldebikoa izan da, bai aurrez aurre, bai telefonoz. ·Udal bakoitzak tokiko boluntario-taldea izendatzeko eta harekin harremanak izateko eduki duen modua aldakorra izan da.	·Eredu propioak toki-erakundeei funtsezko zeregina eta protagonismoa eman behar die. ·Era berean, tokiko boluntario-taldearen partaidetza sustatu eta indartu behar du.	·Herri-mailan eragile desberdinekin ezartzen den elkarrekintza hori izan da programaren gakoe-tako bat, eta barruko nahiz kanpoko eragileek oso positiboki baloratu dute.

3.5. Bosgarren errefortzu-elementua: laguntza emateko zereginetan tokiko boluntario-talde bat sartzen dela sustatzea: hizkuntzen ikaskuntza indartzeko, sozializatzeko eta gizarteratu nahiz laneratzeko prestatzeko

GKE arduradunak, Udaleko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta, eta horien bidez, Eusko Jaurlaritzan errekerimendua jaso dezaketen arloekin, berariaz erantzuten die harreran dauden pertsonen beharrezan (beharrezan juridikoak, sanitarioak, psikologikoak, lan aurrekoak, sozialak, hizkuntza ikastekoak, eta iraupenena-rekin lotutakoak).

Finantziazio-mailan, Espainiako Gobernuari dagokio harrera-fasean prestazio ekonomikoa eskaintzea, eta, horren gaineko kudeaketaz GKE arduraduna arduratuko da.

Etaparen horretan, Udaleko gizarte-zerbitzuek, GKE arduradunarekin koordinatuta, tokiko boluntario-talde bati proposatuko diote errefuxiatuei gizarte-laguntza emateko zeregina hartu dezatela.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Fase honetako erantzukizun handiena GKE arduradunek hartu dute. ·Espainiako Gobernuak harre-ra eta integrazioaren sistemarekin izan duen malgutasun-faltak zaildu egin du ekimen berriak probatzeko aukera. ·Udaletako gizarte-zerbitzuen inplikazioa oso desberdina izan da kasuan kasu. ·Halaber, tokiko boluntario-taldearen laguntza-maila ere oso al-dakorra izan da. ·Eusko Jaurlaritzak esku hartu du zerbitzuen bat kudeatzeko demanda zehatz bat egon den kasuetan, nahiz arazo bat ebaz-teko behar izan denean.	·Sistema propio batek jardue-ra-esparru argia izan behar luke. Bertan, gizarteratzeko eta lane-ratzeko proiektu pertsonaliza-tuak egiteko eskuliburu bat jaso beharko litzateke, eta, halaber, argi eta garbi zehaztu eta mugatu beharko lirateke nazioarteko ba-besa eskatu dutenen eta errefu-xiatuen integrazio eta harrerako prozesuan inplikaturik dauden al-deetako bakoitzaren jarduerak-eremuak eta rolak. ·Garrantzitsua da informazioa eta prestakuntza edukitzea na-zioarteko babesaren esanahiari buruz eta inplikaturik erakunde eta instituzioetako bakoitzak di-tuen erantzukizun eta betebeha-rrei buruz, eta horretaz jabetzea. Horretarako, udalerrietako eta tokiko boluntario-taldeentzako prestakuntza espezifikoa disei-natu beharko lirateke.	·Udalerriko boluntarioen inpli-kazioa eta sortzen diren inte-grazio-espazioak funtsezko ele-mentuak dira harreran dauden pertsonen integratzearako. Espe-rientzia pilotuan ondoen balora-tu den funtsezko elementuetako bat izan da hori ere.

3.6. SSeigarren errefortzu-elementua: Babes ekonomikoa ematea toki-boluntario-taldeak laguntza emateko orduan egiten duen lanari

Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduko du boluntarioria-lan hori, eta Hezkuntza Saila, helduen hezkuntzako zentroen bidez, lankidetzan arituko da hizkuntzen ikaskuntzan.

Hizkuntzak ikastea, tokiko esparruan sozializazioa bermatzea eta gizarteratu eta laneratzeko prestatzea izango dira batez ere zeregin horren xedeak. GKE arduraduneko langileekin estalita ez dauden ordutegi eta jaiegunetan baliatuko da nagusiki laguntza hori.

Eusko Jaurlaritzak ekonomikoki babestuko du zeregin hori, pertsonako eta urteko 1.800 euroko diru-laguntzaren bidez. Laguntza hori tokiko boluntario-taldeari eskainiko zaio.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Hezkuntza Sailarekin lan egiten ari da, helduen hezkuntzako ikas-tetxeek errefortzu-zeregin berri hori har dezaten, hizkuntzak irakasteari eta gizarteratu eta laneratzeko prestatzeari dagokionez. AUZOLANA esperientziaz harago garatzen ari da lan hori. ·Tokiko boluntario-talde batek ere ez du eskatu eskainitako zenbatekoa, hainbat arrazoi direla eta. ·Kasu puntualetan lankidetzak ezarri da proiektuan inplikaturako erakunderen batekin, egindako gastuetako batzuk ordaintzeko.	·Errefuxiatuen harrera eta integratzearen prozesuetan gizarteraren partaidetza sustatzeko asmo hori betetzeko, diru-laguntzen esparruak oinarriak ezarri beharko lirateke, laguntza-proiektu zehatzen arabera laguntzak eskatzeko. ·Babes komunitarioko proiektuak laguntzen jarraitu behar da; batez ere, errefuxiatuen birkonfiantza eta birkonfiantzeekin lotuta daudenekin. ·Laguntza emateko bestelako ekimenak sustatu behar dira; besteak beste, mentoring soziala.	·Interesgarria litzateke boluntario-lana indartzeko eta partaidetza sustatzeko beste modu batzuk aztertzea, diru-laguntzak eman behar izanik gabe. Izan ere, horrek sisteman nahasdurak sor litzake, baita rolak bikoiztea eragin ere, eta, batzuetan, berez erakundeetako nahiz diruz lagundutako edo itundutako taldeetako profesionalenak diren dinamiketan sartzeko joera eragin liteke. ·Puntu honetan garrantzitsua da martxan dauden harrera eta laguntzarako ekimen herritarretan parte hartzeko bideak ezagutzea, bai eta sustatu edo eskaintzea ere.

3.7. Zazpigarren errefortzu-elementua. Errefuxiatuek modu aktiboan parte hartzen dute beren beharrezko erantzuteko orduan

Esperientzia pilotu honen esparruan, euskal udalerri batean harrera egin zaien errefuxiatuei hau eskatuko zaie: beren burua aktore protagonistatzat jo dezatela tokiko errealitateara egokitzeko prozesuan. Informazioa emango zaie beren eskubide eta betebeharrak buruz, baita egokitzeko eta autonomia lortzeko helburuak betetzeko egin beharko duten ahaleginari buruz ere.

Harrera-Egokitzapena fasearen azken hilabeteetan, errefuxiatuek GKE arduradunarekin, udal-ordezkariekin eta tokiko boluntario-taldearekin batera parte hartuko dute Integrazioa-Autonomia faserako etxebizitza egokia bilatu eta prestatzeko orduan.

Alokabideri errekerimendua egingo zaio, prozesu horretan parte har dezan. Hala, udalerrian edo haren ingururik hurbilenean eskuragarri dauden etxebizitzak berri emango du.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Programan harrera izan duten errefuxiatuei beren eskubideei eta betebeharrak buruzko informazioa ematen zaie, eskaintzen zaien babilak edukitzen jarrai dezaten. ·Hizkuntza ikasteko eskolara eta enplegua bilatzeko eskaintzen zaizkien beste ikastaro batzuetara joateaz gain, modu aktiboan parte hartzen dute etxebizitza bilatzeko orduan, programaren bigarren fasean pasatu behar dutenean. ·Bigarren fasean etxebizitza bilatzea izan da (eta oraindik ere hala da) arazo handietako bat, bai Auzolana programan harreraren ondoren pertsonentzat, bai gainerakoentzat. Arrazoiak askotarikoak dira: alokairuen kostu altua; jabeen konfiantza falta atzeritarrei etxebizitzak alokatzeko orduan. Tokiko boluntarioek emandako laguntzak batzuetan erraztu egin ditu alokairuko etxebizitzak eskuratzeko aukerak, baina zailtasunak pasatu behar izan dira hala ere. ·Alokabideak eta udalek berek programaren esku jarri dute lehen etxebizitza, erakunde arduradunen bidez, baina ez bigarren faserako. Azken horretan, alokairu-kontratuak errefuxiatuen izenean egon behar dira. Arrazoi nagusiak bi dira: araudia ez da betetzen, eta legeak ez dago aukerarik partikularrei lagapen hori egiteko.	·Hirugarren esfortzu-elementuan adierazi den bezala, etxebizitza izan behar da gai nagusietako bat harrera-eredu propioa diseinatzeke orduan, eta, beraz, logelak eta etxebizitzak baliabideak modu integralean jorratzeko ahallegina egin behar da, bai harreraren hasierako uneetan, bai ondorengo faseetan.	

3.8. Zortzigarren errefortzu-elementua: Foru aldundiek eta udalek integrazio eta autonomiarako plana prestatuko dute

·Foru aldundiek, Eudelekin batera, integrazioaren eta autonomiaren arloan jarduteko plan bat prestatuko dute. Plan hori errefuxiatuen harrera eta integrazioko prozesuetan inplikaturako udalerrii eskainiko zaie. Bizkaian badago eredu bat (Gohiabe) arlo honetan, erreferentzia moduan erabil daitekeena. Plan horrek jarduera-irizpideak eta babes-euskarriak eskainiko ditu integrazio-prozesuak indartzeko.

·Udal bakoitzak bere aplikazioa egokitu eta dinamizatu ahalko du, GKE arduradunarekin lankidetzan, bai eta errekerimendua jaso dezaketen Eusko Jaurlaritzako arloekin eta tokiko boluntario-talde partaidearekin batera ere.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Esperientzia pilotuaren esparruan gutxien garatu den elementuetako bat da hau. Hiru Foru Aldundiek ezagutu dute programa, baina hor ez dute funtsezko zereginik izan, horietako bakoitzak bere lurraldean errefuxiatuen harrera eta integrazio-rako garatu dituen programetatik harago. ·Udalerrietan baliagarri den jarduera-plan zehatzik ere ez da diseinatu. ·Harreran dagoen pertsona eta familia bakoitzaren integrazio-ko ibilbideak erakunde ardura-dunek egin dituzte, beren ohiko dinamiken arabera. Kasu batzuetan, plan horiek udalak edo/eta boluntario-taldeek indartu dituzte.	·Eredu propio batek araudi-esparru argia eduki behar luke, haren ardatz nagusiak nahiz harrera eta integrazioko prozesuan zehar esku hartzen duten eragileetako bakoitzaren erantzukizunak eta rolak zehazteko. Araudi-esparru horrek nahitaezkotasun-maila ere ezar lezake. ·Eredu malgua izan beharko litzateke, harrera egiteko eta laguntza emateko formula bat baino gehiago aurreikusten dituen, harreran egongo diren pertsonen zaurgarritasun-mailen eta ezau-garrien arabera. ·Ereduak jarduera-protokolo bat eta harrera eta integrazio-rako ibilbide-eredu bat zehaztu beharko lituzke, oinarri moduan erabil ditzaten bai toki-administrazioek, bai gizarte-erakunde lankideek. Ibilbide hori bizitza autonomia lortzeko helburura bideratu behar da, harreran dauden pertsonak gizarteratu eta laneratze aldera.	·Aurkitu dugun zailtasun nagusietako bat eragile desberdinek programa berenganatu ez izana izan da. Ez dute programa berenganatu: alde batetik, sistemaren funtzionamenduari buruzko ezagutza-faltagatik; bestetik, malgutasun-faltagatik, eta, azkenik, agenteetako bakoitzak errefuxiatuen harrera-prozesuan izan duen erantzukizunagatik.

3.9. Bederatzigarren errefortzu-elementua: Eusko Jaurlaritzak finantzia-zioa eskainiko dio udalari, integrazio-prozesuak indartzeko

·Finantziarioari dagokionez, Espainiako Gobernuak integrazio-fasean prestazio ekonomikoa eskaintzen jarraituko du, eta, horren gaineko kudeaketaz GKE arduraduna arduratuko da. Prestazio ekonomiko hori gizarte, justizia, psikologia, lan, osasun eta hezkuntzaren arloan jarraipena egiteko bideratuko da. Bizimodu independentea lortzeko autonomia-maila areagotzea da helburua.

·Eusko Jaurlaritzak, bestalde, diru-laguntza bat eskainiko dio udal bakoitzari, errefuxiatuen integrazio-prozesuetan errefortzu-proiektua babesteko, pertsona eta urteko 6.000 euroko hornidura (azterketa-fasean) ezarrita.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Sistema (ezarrita dagoen bezala) aldatzea eta malgutzea ezinezkoa denez, erakunde arduradunek harrera-programak ezartzen jarraitu dute ia aldaketarik egin gabe. ·Sistemaren estaldura ia osoa izan da lehen faseetan. Horrenbestez, eta beste alderdi batzuen ondorioz (gaiaren gaineko jarduera-esparru edo -programa propiorik eza, esaterako), udalek ez dute eskatu Eusko Jaurlaritzak horretarako prest zuen dirua. ·Eskainitako diru-laguntzaren sistema ere zalantzan jarri da, eskatzeko eta justifikatzeko prozedurak ez baitira beti egokitzen udalek egin ahal edo nahi luketen horretara. ·Azkenik, laguntzak eman zaizkie hiru udalei, eta kasuetako batean ere ez da iritsi harreraren dagoen pertsona bakoitzeko 6.000 euroko mugara.	·Boluntario-taldeentzako laguntzei buruz hitz egiteko orduan aipatu den bezala, sistema propio batek araudi eta diru-laguntzen esparru bat eduki behar luke, eta bertan ezarri beharko lirateke laguntza-proiektu zehatzen arabera laguntzak eskatzeko oinarriak. ·Espainiako Gobernuarekin argitu beharreko kontuetako bat da, eskumena garatzeko baliabide material eta ekonomikoen transferentziaz gainera, gai honetarako funts europarrak eskuratzeko bidea. .	Udalek diru-laguntza eta funts eskuragarriak erabil ditzaten, funtsezkoa da sistema ezagutzea, berenganatzea, eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera emateko udal-planak edo udal-politikak edukitzea, kasuan kasu dagoen erantzukizuna betez.

3.10. Hamargarren esfortzu-elementua: Sistemen arteko lankidetza eza- rriko da, errefuxiatuen autonomia sustatzeko

·Enplegua bilatzen parte hartuko dute errefuxiatuek, GKE arduradunarekin, udal-ordezkariekin eta tokiko boluntario-taldearekin batera. Lanbide ere prozesu horren parte izango da.

·Eusko Jaurlaritzak, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 12/2008 Legearen aldaketaren esparruan, beharrezko aldaketa sustatuko du, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen euskal babes-sistema baliatu dezaten.

Nola funtzionatu du esperientzia pilotuak?	Nola funtzionatu behar luke eredu propioan?	Beste iruzkin edo ondorio batzuk
·Eusko Jaurlaritzak bete egin du Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 12/2008 Legean salbuespen bat sartzeko proposamena. Salbuespen horri esker, nazioarteko babesa eskatzen duten, zaurgarritasun-egoeran dauden eta soilik urtebeteko errola duten pertsonen diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratu ahal izango dute. Hala ere, aldaketa hori oraindik ere Eusko Legebiltzarrean izapidetu behar da. ·Auzolana esperientziak udalen, erakunde arduradunen eta boluntario-taldeen arteko lankidetza sustatu du, harreraren dauden pertsonen autonomia-prozesuak indartzeko. Hala ere, Lanbideren partaidetza puntuala izan da, eta erakunde desberdinekin lehenetik ere martxan zituen programen barruan garatu da.	·Sistema propio batek harreraren dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea eduki beharko litzuke ardatz nagusi. Helburu hori lortzeko, harreraren hasieran proiektu pertsonalizatua prestatu beharko litzateke, bizitza autonomia lortzeko. ·Autonomo bihurtzeko aurreikusitako epeetan, esleipen egokiak eskaini behar ditu bizirauteko sostengua bermatzeko eta horiek, beharrezkoa denean, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin luzatzeko. ·Prestakuntza-prozesu erabilgarriak eta harreraren dauden pertsonen errealitatera egokitutakoak antolatu behar dira, beren laneeratzea lortzeko. ·Gainera, harreraren dagoen pertsonari arreta egokia eman behar zaio, erantzun egin behar zaio, eta informazioa eman, prozesu osoan zehar.	·Etxebizitza eskuratu, prestakuntza jaso eta enplegua bilatzea dira sistema berri batean kon-tuan hartu behar dituen funtsezko hiru gako. -

4. Ondorioen laburpen exekutiboa

Laburbilduz, esan dezakegu, EAEn Auzolana I esperientzia pilotua ezartzeko orduan antzeman ahal izan dugunez, Harrerako Euskal Sistemak helburu hauek bete beharko lituzkeela, gutxienez:

1. Erakundeen eta gizartearen koordinazio eraginkorra sustatzea, fase desberdinak barne hartzen dituen jarduera-protokoloaren eta mekanismo iraunkorraren bidez.
2. Harreran dauden pertsonak modu antolatu eta adostuan banatzeko sistema ezartzea hiru lurralde historikoen eta udalerrien artean. SHARE proposamena.
3. Hiru faseko eredua fase bakarreko eredu bihurtzea, estaldura-denbora desberdinak ezarrita zaurgarritasun eta lortutako autonomia mailaren arabera.
4. Toki-erakundeei zeregin protagonista ematea eta boluntarioen partaidetza indartu eta sustatzea, erki-degoaren babesari eta mentoring sozialari bereziki erreparatuta.
5. Jarduera-esparru argia edukitzea, gutxienez elementu hauek jasoko dituenak:
 - Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu pertsonalizatuak egiteko eskuliburua, oinarria izango dena bai gizarte-erakundeentzat, bai toki-erakundeentzat.
 - Diru-laguntzen esparrua, oinarriak ezarriko dituen sistema ezartzeko ekimenak garatzeko laguntzak eta diru-laguntzak eskatze aldera.
 - Eragileetako bakoitzaren jarduera-eremuen eta rolen mugaketa argia.
 - Sistema berriaren ondorioz ezar daitezkeen betebeharren gaineko erantzukizunaren eta are nahitaezko betearazpenaren gaineko definizioa.
6. Etxebizitzaren eta logela-baliabideen gaia modu integralean jorratzea, ereduaren ardatz nagusi moduan.
7. Harreran dauden pertsonen laneratzeta eta gizarteratzeta jorratzea, ardatz nagusi gisa, bizitza autonomoa izateko bideratutako proiektu pertsonalizatu malguen bidez.
8. Diru-esleipen aski eskaintzea, harreran dauden pertsonen bizirauteko sostengua bermatzeko.
9. Prestakuntza-prozesu erabilgarriak antolatzea, harreran dauden pertsonen beharrianetara egokituta, beren laneratzeta, gizarteratzeta eta bizimodu autonomoa lortze aldera.
10. Harreran dauden pertsonen partaidetza bermatzea, eta, horretarako, harrera eta integrazioko proiektu osoan zehar entzuten zaiela eta informazioa jasotzen dutela sustatzea.

Auzolana II

Babesletza Komunitarioko esperientzia pilotua Euskadin

1. Sarrera

2016ko irailaren 19an Nazio Batuen (NBE) Batzar Orokorrak konpromiso batzuk hartu zituen errefuxiatuen eta migratzaileen babesa hobetzeko. Konpromiso horiek errefuxiatuen eta migratzaileen inguruko New Yorkeko Adierazpenean biltzen dira.

Adierazpenaren 1. eranskinean errefuxiatuei erantzun integrala emateko esparrua ezartzen da: ondo arrazoitutako harrera eta onarpen azkarrerako neurriak bermatzeko behar diren ekintza bereziak; beharrezan larri eta iraunkorrak asetzeko laguntza (adib.: babesa, osasuna eta hezkuntza); errefuxiatuak hartzen dituzten nazio- zein toki-erakundeei eta komunitateei laguntza; aukera gehiago luze iraungo duten konponbideak eratzeke.

Lan hori oinarritzat hartuta, 2018ko abenduaren 17an Nazio Batuen Batzar Orokorrak Errefuxiatuen gaineko Munduko ituna onartu zuen; itun horrek esparru berria ezartzen du munduko errefuxiatuen egoerari aurre egiteko, era honetara: laguntza gehiago ematea errefuxiatu gehienak bizi diren herrialdeei, eta gatazken edo jazarpenaren ondorioz sorlekutik ihes egin behar dutenei laguntzea denon ardura delako ustea sendotzea.

Ildo beretik, 2016ko irailaren 20an Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak eta Kanadako Gobernuak hitzartu zuten Errefuxiatuak Babesteko Ekimen Globala (GRSI ingelesez) aktibatzea mundu osoko errefuxiatuen babes komunitarioaren eredua sustatzeko.

Ekimen horrek hiru helburu nagusi dauzka:

- Babesa eta konponbideak behar dituzten errefuxiatuekin babes komunitarioa erabiltzeko joera zabaltzea, ardurak denon artean hobeto banatzen laguntzeko.
- Errefuxiatuak birkokatzen laguntzea; horretarako, estatuak, gizarte zibileko eragileak eta herritar pribatuak babes komunitarioko programak abiarazteko duten gaitasuna sendotuko da.
- Tresna egokia edukitzea herritarren artean errefuxiatuei laguntzeko gogoia zabaltzeko, eta errefuxiatuen babesaren inguruko eztabaida politiko zabalagoa eragitea.

Babes komunitarioak herritarrei aukera ematen digu zuzenean parte hartzeko errefuxiatuei harrera egiten eta integratzen. Babes komunitarioari heltzen diotenek konpromisoa hartzen dute heldu berriei laguntza emateko (gizarte-laguntza, laguntza materiala eta finantza-laguntza) komunitate berrian integratzen diren bitartean. Herrialde guztiek egin ditzakete programak, herritarrek beren komunitateetan errefuxiatuak hartzeko.

Une honetan, gatazken eta jazarpenaren zioz munduan zehar sakabanatutako pertsonen kopurua inoiz baino altuagoa denez gero (70 milioi baino gehiago), inoiz baino premiazkoagoa da nazioarteko babesa behar duten pertsonentzat legezko sarbideak ugaritu, areagotu eta babesteko erantzukizuna partekatzea.

Kanadaren eredua inspiraziotzat hartzen duen babes komunitarioko programaren funtsa da denok geure gain hartzea ardurak eta ahaleginak, denon artean errefuxiatuen mugimenduei erantzuteko, modu eraginkorragoa, zuzenagoa eta bidezkoagoa aurkitzeko. Horretan denok elkar hartuta saiatzea Errefuxiatuen gaineko Munduko Itunean ere agertzen da, ezartzen baitu estatuak errefuxiatuen babeserako ezar ditzaketen bide seguruetakoa bat dela.

2. Aurrekariak

Irtenebide iraunkorrak bilatzeko etengabeko elkarriketaren baitan, ACNURek Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari proposatu zien Euskadin babes komunitarioko esperientzia pilotu bat jar dezatela martxan, horren garapena, ebaluazioa eta dokumentazioa erabilgarriak izan daitezen eredu hori beste Autonomia Erkidego batzuetara, edo, are, beste herrialde batzuetara zabaltzeko. Ekimen hori martxan jartzea Errefuxiatuen gaineko Munduko Itunaren prozesuari egindako ekarpenetako bat izango da, bai eta errefuxiatuen artean erantzukizunak banatzeko aurreikusten diren mekanismoetako bat ere.

Bi Gobernuak prest agertu ziren pilotatze hori sustatzen laguntzeko. Horren harira, nabarmentzekoa da 2017tik Espainiako Gobernuko Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioako Immigrazio eta Emigrazio-ko Idazkaritza Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Auzolana deritzon esperientzia pilotu bat (lan partekatua) garatu dutela, lankidetzak-hitzarmen baten bidez.

Aurreko esperientzia pilotu horren helburua da erakundeen arteko koordinazioa bermatzea, hobetzea eta sendotzea nazioarteko babesak eskatzen duten pertsonak eta jasotzen dutenak hartzeko eta integratzeko lanetan. Horregatik, eta aipatutako Auzolana hitzarmena bultzatu duen filosofiari jarraipena emate aldera, babesle komunitarioen bigarren esperientzia pilotu honi Auzolana II jarriko diogu izena.

Borondateak bat datozen esparru honetan, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Elizbarrutietako Caritasen hiru erakundeei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jesuitei proposatu zien esperientzia pilotu horretan parte har dezatela, babes-akordio baten (udalaz gaindikoa izateko) erakunde titularrek direnez gero. Gizarte-justiziaren eta elkartasunaren eremuan esperientzia zabal eta frogatua duten lau erakunde dira, beren ekintzaren hartzailen artean errefuxiatuak daude, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jarduten dute. Esperientzia pilotuaren barruan, zehazki, helburu nagusia da beren partaidetza-sare propioaren barruan babes komunitarioko tokiko taldeak sustatzea, bakoitzak bere komunitatean gara dezan babes komunitarioko esperientzia, babes-akordioaren erakunde titularrekin koordinatuta.

Erakunde eta entitate horiek herritarren arteko solidaritatearekin eta gizarte-justiziarekin eta errefuxiatuekin duten konpromisoak bultzatzen ditu proiektu honetara. Uste dute esperientzia pilotu honen ardatzak izan behar direla errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko prozedurak kopuruz zein kalitatez hobetzea, batetik, eta erakunde eta administrazio publikoek eginkizun honekin duten konpromisoa sendotzea, bestetik.

Horrenbestez, esperientzia pilotu honen eragile nagusiak honako hauek dira: Migrazioen Estatu Idazkaritza –Espainiako Gobernuko Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren (gaur egun, Gizarteratze, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioa) Integrazio eta Arreta Humanitarioko Zuzendaritza Nagusiaren bidez–; Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia; ACNUR, eta EAEko aipatu gizarte-erakundeak, EAEko Elizbarrutietako Caritasen hiru erakundeak eta EAEko Jesuitak.

Hala ere, esperientzia pilotua garatzeko nahitaezkoa da beste instituzio eta erakunde batzuekin lankidetzan aritu eta elkarrekintzak ezartzea. Horren harira, Eusko Jaurlaritzak ekimen hau aurkeztu die foru-aldundiei, esperientzia pilotuan zuzenean inplikaturik dauden udalei, Euskadiko Udalen Elkarteari (Eudel) eta nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunak integratzeko eta hartzeko prozesuaz arduratzen diren erakundeei, Harrerako Sistema Nazionalaren esparru estandarren barruan, LMGSMin finantzaketa pean. EAEan, gaur egun, erakunde hauek dira: CEAR, Gurutze Gorria, ACCEM, MPDL eta Nueva Vida.

Erakunde eta gizartearen arteko koordinazioarako EAEko mahaia –zeinak aldi-aldi eragile instituzional eta sozial guztiak batzen dituen Gasteizen eta errefuxiatuak hartu eta integratzeko prozesuetan parte hartzen duen–, lehentasunezko espazioa da informazio, truke eta koordinazioarako, baita Auzolana II esperientzia pilotuari dagokionez ere.

3. Edukia

Helburua

Babes komunitarioko esperientzia pilotuaren (Auzolana II) helburua honako hau da: esku hartzeko eredu osagarri bat frogatu eta pilotatzea, baina Harrera eta Integrazioko Estatu Programarekin koordinatuta. Babes komunitarioko formula honen inspirazio-iturria Kanadako eredu bat da, eta herritarrak nazioarteko babesa eskatu edo jasotzen duten pertsona guztien harrera eta integrazioarako lanetan zuzenean inplikatzeko du xede.

Onuradunak

Babes komunitarioko esperientzia pilotuaren (Auzolana II) hartzaileak nazioarteko babesa hartzen duten pertsonak edo errefuxiatuak dira; hau da, Espainiara lekualdatu direnak birkokatzeko programen esparruan edo errefuxiatuentzako babesa eskuratzeko legezko bideak irekitzen dituzten beste ekimen batzuen baitan, noiz eta Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen bada beren harrera.

Proiektu pilotua 2019ko martxoaren 26an jarri zen martxan, 29 errefuxiatu (bost familia, eta horien artean 16 adingabeko) EAera iritsi zirenean. Denak izan ziren Siriakoak baina Jordaniatik etorri ziren (birkokatzeko). EAera iristean, boluntarioen bost taldek (hitzarmenean “babes komunitarioko tokiko taldeak” deitzen direnek) egin zieten harrera, eta bost udalerritan ezarri zituzten: Bilbo, Arrigorriaga, Portugalete, Andoain eta Gasteiz.

Esku-hartze eredua

Esperientzia pilotu honen esku-hartze eredua honako hauek osatzen dute:

a) Esperientzia pilotuaren eragileak. Babes komunitarioko esperientzia pilotua garatzeko, eragile instituzional eta sozial hauen lankidetzak eta elkarrekintza beharrezkoak dira:

-Espainiako Gobernua. Esperientzia pilotu honetan, nazioarteko babesa eskatu eta jasotzen duten pertsonen harrera integralerako eta integrazioarako sistema nazionala planifikatu, garatu eta kudeatzeko eskumena duen erakundea da. Espainiako Gobernuak partaidetza hori Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioko Migrazioen Estatu Idazkaritzaren eta bere Integrazio eta Arreta Humanitarioko Zuzendaritza Nagusiaren bidez bideratzen du.

-Eusko Jaurlaritza. Esperientzia pilotu honetan, EAEko gainerako erakundeekin batera, nazioarteko babesa eskatu eta jasotzen duten pertsonen harrera eta integrazioarako prozesuak antolatze gaitasuna eta eskumena dituen erakundea da. Eusko Jaurlaritzak Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta bere Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bidez bideratzen du partaidetza hori.

-ACNUR. Organo horrek babesa eta laguntza ematen dizkie errefuxiatuei, eta itxenbide iraunkorrak biltzen ditu beren egoerarako, eta Errefuxiatuen gaineko Itun Globalaren prozesuaren testuinguruan, esperientzia pilotu hau sustatzen du, hau da, Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza garatzen ari direna. ACNUR lankidetzan ari da, era berean, babes komunitarioko eredua martxan jartzeko beste herrialde batzuetan, Errefuxiatuak Babesteko Ekimen Globalaren (GRSI, ingeleseko siglen arabera) barruan, eta babes instituzionala ematen du proiektu pilotu hau garatzeko orduan.

-Babes-akordio baten (udalaz gaindiko izaeraduna) erakunde titullarrak. Esperientzia pilotua sustatzeko ardura duten erakundeak dira. Kasu honetan, EAEko Elizbarrutietako hiru Cáritas erakundeak eta EAEko Jesuitak dira —hau da, elkartasunaren gainean esperientzia zabal eta egiaztatuta duten eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jarduten duten lau erakunde—. Beren zeregin nagusia, zehazki, honako hau da: beren partaidetza-sarearen barruan, babes komunitarioko tokiko taldeak sustatzea, estaldura eta babesa eskainiz, bai eta nazioarteko babesa jasotzen duten pertsonen harrera eta integrazioa bermatzea ere.

-Babes komunitarioko tokiko taldeak. Tokiko eremuan sarean jardunez, babes komunitarioko prozesua dinamizatzen duten boluntarioen taldea da, eta babes-akordioaren erakunde titularrekin koordinatuta lan egiten dute. Udalerri bakoitzean esperientzia pilotua garatzeaz eta harrera egin zaien errefuxiatuekin harreman zuzena izateaz arduratzen dira. Haien eginkizun nagusia Harrera eta Integrazio Proiektua prestatzea eta gauzatzea da.

-Udalak. Esperientzia pilotuaren anfitrioiak dira. Udalerrien inplikazio eta lankidetzak tekniko eta politikoa behar da, babes komunitarioko tokiko taldeak, babes-akordioaren erakunde titularrekin koordinatuta, harrera eta integrazioarako proiektua gara dezan. Udalaren ordezkaritza batek tokiko koordinazio-mahaian parte hartzen du.

b) Helburuak. Babes komunitarioko esperientzia pilotuak (Auzolana II) bi helburu dauzka:

- Errefuxiatuen harrera eta integrazioarako eredu bat garatzea, elkarteratze, auto-antolaketa eta inplikazio kolektiboko formulen bidez gizarteak erantzukizun zuzena har dezan pertsona horien harrera eta integrazioarako prozesuetan.

- Sinergiak eta balio erantsia sortzea, prozesu horien kalitatea hobetzeko eta bizikidetzak adiskidetsua eta autonomia lortzen eragin positiboa izateko, beraiek hartu dituzten testuinguru sozialean.

d) Espero den emaitza. Proiektuan inplikaturako errefuxiatuen gizarteratze zabal eta osoa sustatzea da ekimen honen helburu nagusia, eta errefuxiatuak eta harrera-gizarteak izango dira prozesu horren protagonista nagusiak. Era berean, ikaskuntzak eta ondorioak atera nahi dira, babes komunitarioa hedatzeko proiektu zabal batean aplikatu ahal izateko, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai beste Autonomia Erkidego batzuetan, eta, halaber, kopiatu daitekeen ekimen gisa aurkeztu ahal izateko. Hori dela eta, esperientzia pilotuak sistematizazio- eta ebaluazio-prozesu bati jarraituko dio aldi berean.

e) Iraupena. Babes komunitarioko tokiko bost taldeetako bakoitzean esperientzia pilotua garatzeko 18 hilabete behar izango dira Espainiara iristen denetik. Kasuan kasuko egoeren arabera, epe hori luzatu egin ahalko da, gehienez 24 hilabetera, bi alderdiak ados jarrita.

Helburu operatiboak esperientzia pilotuaren ibilbidean

Auzolana II esperientzia pilotuaren ibilbidea hiru helburu operatiboren garapenarekin lotuta dago: hasierako harrera, esperientzia pilotuaren hedapena, eta autonomia.

a) Hasierako harrera

- Proiektuan parte hartzeko aukeratu diren eta horretarako baimena eman duten familiei aireportuan egin diete harrera, Migrazioen Estatu Idazkaritzako langileek eta Euskal Autonomia Erkidegoko harrera-arduradunek. Hasierako identifikazio-izapideak egindakoan, eta Barne Arazoetako Ministerioko Asilo eta Babes Bulegoak nazioarteko babesaren ebazpena jasotakoan, harrera-arduradunek zuzenean lekualdatu dituzte proiektuan parte hartzen duten udalerrietara, beren harrera-ibilbidea hasteko.

b) Babes komunitarioko esperientzia pilotuaren hedapena

- Harrera eta Integrazio Proiektuaren arabera, babes komunitarioko tokiko taldeen lehen eta lehentasuneko zeregina izango da harrerako familiari etxebizitza bat uztea, gutxienez 18 hilabeterako.

Babes komunitarioko tokiko talde bakoitzaren harrera eta integrazioarako proiektuak berariaz frogatu behar du garatu nahi den babes komunitarioari aurre egiteko gaitasun finantzarioa. Horren bidez, izan ere, partaiden oinarritzko beharizanek estali beharko dira, eta, horretarako, gainera, aurrez prestatutako etxebizitza bat, gizarte-sare bat eta hizkuntza ikasteko babes-estrategia bat izan behar ditu prest, bere aurretiazko prestakuntzaren eta esperientziaren arabera prestakuntza-ibilbidea diseinatuta, laguntza psikologikoa emanda, hala badagokio, eta, enplegua eskuratzen laguntzeko neurriak ezarrita, gutxienez 18 hilabetez.

c) Babes komunitarioaren autonomia eta burujabetza

- Babes komunitarioko esperientziaren garapenaldia 18 hilabetez eta gehienez 24 hilabetez luzatuko dela aurreikusten da, hala egoki irizten den kasuetan, familia hauen autonomia osatu ahal izateko. Hasieratik, prozesu osoaren helburua errefuxiatuen autonomia sustatzea izango da. Horren harira, instituzioek, babes komunitarioko akordio baten (udalaz gaindiko izaeraduna) erakunde titularrek eta babes komunitarioko tokiko taldeek beren ahaleginak bateratuko dituzte, errefuxiatuek bizitza autonomia eta burujabea izan dezaten babes komunitarioak eskaintzen dieten estaldura eta tutoretza horretatik.
- Helburu horrek presentzia nabarmena, graduala eta mailakakoa izan beharko du harrera eta integrazioarako proiektuaren kudeaketan, esperientzia pilotua garatzen den tokiko bost eremuetako bakoitzean.

4. Jarraipena

Esperientzia hori garatzeko eta behar bezala amaitzeko, Jarraipen Batzorde bat eratu da, proiektuan jasotako ekintzak koordinatzeko. Normalean, hiru hilean behin koordinazio-bilerak egiten dira, eta, bilera horietan, ekintzen garapenaren berri ematen zaie alderdi guztiei.

Batzordea, gainera, ezohiko izaeraz biltzen da esperientziako jardueren martxa onak behar duen guztietan.


5. Ebaluazioa eta sistematizazioa

Arestian aipatu bezala, esperientzia honen helburua, batetik, ikaskuntzak eta ondorioak ateratzea da, babes komunitarioa hedatzeko proiektu zabal batean aplikatu ahal izateko, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai beste Autonomia Erkidego batzuetan, eta, horrekin batera, errepikatzeko moduko ekimentzat aurkeztea. Helburu hori betetze aldera, Instrategiesi agindu zaio esperientzia pilotuaren gaineko ebaluazioa egiteko.

2020. urte amaieran txosten bat izango dugu eskura, eta, bertan, bi gai nagusi jorratuta egongo dira:

- Auzolana II ekimenaren eraginaren ebaluazio azkarra egingo du haren lehen emaitzak aztertzeko, ekimenean parte hartu duten errefuxiatuak birkokatzeko eta lehen harrera egiteko prozesuei erreparatuta. Hala, ekimen honetatik ikasitako erronkak, aukerak eta irakaspenak jasoko dira azterlanaren ondorioetan.
- Auzolana II ekimenari buruzko ezagutza transferitzeko bide ematea, beste lurralde batzuetan aplikatu eta garatu ahal izateko, identifikatuta zer urrats bete behar den, zein eragile hartu behar diren lankide, zer arazo suerta daitezkeen eta zer aukera baliatu behar diren.





8

• dokumentua

Asiloaren eta migrazio zaurgarriaren arloan
Legegintzaldiko jardunen balantzea

Asiloaren eta migrazio zaurgarriaren arloan Legegintzaldiko jardunen balantzea

2020ko apirila

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sarrera

Eusko Jaurilaritzak 2017ko uztailaren 5ean aurkeztu zuen “Esparru-dokumentua, Eusko Jaurilaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa”, eta urte horretako azaroan berretsi zen.

Errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari aurre egiteko estrategia osoa jasotzen zuen dokumentuak. Estrategia horrek zeharkako ardatz bat zuen: lankidetzak eta eraikuntza-espazioak sustatzea maila guztietan. “Beharrezkoa da elkartasunaren onura komunaren kausa norberaren interesaren begiradaren aurretik jartzea. Elkartasun partekatua, segurtasunez eta zuhurtziaz lagundua. Ezinbestekoa da borondateek bat egiten duten giroan, elkarrekiko konfiantzan eta lankidetzan parte hartzea”.

Partekatutako eta koordinatutako lan-esparru hori bi zutabetan oinarritzen da: konpromiso etikoa eta arau-konpromisoa. Lehenak hautapenezko izaera du, bigarrenak betebeharrak bat adierazten du; baina biek txanpon beraren bi alde osatzen dituzte determinazio bera proiektatzeko.

Erantzukizun-eremuren bat duen erakunde bakoitzak bere ekarpena egin dezake testuinguru hori sortzeko, elkartasunagatik eta nazioarteko zuzenbidearekiko eta giza eskubideekiko konpromisoa delako. Hori aplikagarria da bai Europar Batasunaren edo estatuko gobernu baten kasuan, bai gobernu autonomiko bati, bai udal bati, bere alkateari edo bere funtzionarioei, bai GKE bati edo oinezko herritar bati.

Aipatutako esparru-dokumentuan esku hartzeko bost ardatzek egituratu dute Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren urteko lan-plana arlo horretan: proposamen-ardatza, ardatz erreformatzailea, ekintza humanitarioaren ardatza, prebentziozko ekintzaren ardatza eta jarrera-ardatza. 2017az geroztik, eginda-koaren memoria bat egin da eta helburu zehatzak planteatu dira egitura horri jarraituz. Legegintzaldi honen amaieran, ondorio batzuk atera ditzakegu labur-labur:

• **Lehena.** EAEn, erakundeek eta gizarte-eragileek artean adostasun handia dago errefuxiatuen egoerari hobeto erantzuteko beharrari buruz. Oso garrantzitsua da adostasun hori lantzea, sakontzea eta eraginkor bihurtzea.

• **Bigarrena.** Lankidetzak-esparru eraginkorra sortu dugu EAEn, hainbat erakunderen eta gizarte-eragilearen artean, krisi humanitario honi erantzuteko hobekuntza-prozesuak partekatze aldera. Lankidetzak praktikoaren esparru hori etengabe zaindu eta sustatu behar da, helburu eta lanerako plan zehatzekin.

• **Hirugarrena.** Lankidetzak-bide bat ireki da Espainiako Gobernuarekin, harrera-sistema arrunta hobetzeko, aldatzeko eta transferitzeko. Lankidetzak-ildo horretan lanean jarraitu behar da, eta aurrera egin behar da errefuxiatuei edo nazioarteko babesa eskatzen dutenei erantzuteko Harrera Sistema bat diseinatzeko EAEn. Halaber, garrantzitsua da bide berriak aztertzen jarraitzea, hala nola bisatuak edo korridore humanitarioak, migrazio-bide seguruak eratzen laguntzeko.

• **Laugarrena.** Garrantzitsua da gai horretan lan egiten jarraitzea, ikuspegi integralarekin. Bost ardatzeta-ko ekintzak modu osagarrian garatu behar dira, tartean dauden gainerako erakunde eta entitateekin. Gai konplexua da hori, erantzun konplexua, solidarioa eta bidezkoa behar duena.

Dokumentu honetan, bada, 2017-2020 Legegintzaldian egindako lanaren nondik norakoak azaldu nahi dira labur. Lehenengo atalean, gai horri lotuta dauden legegintzaldiko 10 jarduketa nagusiak nabarmentzen dira, eta bigarren atalean, jarduketa nagusien zerrenda egiten da, aipatutako bost esku-hartze ardatzen arabera multzokatuta.

I.

Hamar jarduketa
nagusiak

1. Erakundearteko Mahai Soziala

Maila guztietan lankidetzarako eta eraikuntzarako espazioak sustatzea izan da arlo honetako lanaren ardatz transbertsal eta nagusia Legegintzaldi osoan.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Erakundearteko Mahai Soziala sortu zuen, Euskadin errefuxiatuak hartzeko koordinazio-gune izan zedin. Honako erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute mahai hori: Eusko Jaurlaritzako hainbat Sail, hiru foru-aldundiak, EAEko hiru hiriburuak, EUDEL eta errefuxiatuak hartzeaz eta integratzeaz arduratzen diren gizarte-erakundeak.

Hauek dira, berriz, mahaiaren helburuak: datuak, informazioak, zailtasunak eta proposamenak ahalik eta argien partekatzea; parte hartzen duten eragile guztien artean erantzun koordinatuak emateko estrategia partekatua zehaztea; eta krisi humanitarioari hobeto erantzuteko helburu zehatzak identifikatzea, gure erantzukizun-eremuan daudenak.

Mahaia 2017ko urtarrilaren 27an eratu zen, eta, harrezkero, 16 bilera egin ditu: 6 bilera egin ditu 2017an, 5 bilera 2018an, 4 bilera 2019an eta bilera 1 egin du oraingoz 2020an.

Mahaia informazioa koordinatzeko eta trukatzeko gune sendoa da, eta jardunbide egokitzaile jo dezakegun lan-metodologia dauka. Hau da, bilera batetik bestera lanerako plan bat prestatzen da, eta bilera bakoitzean horren jarraipena egiten da.

2. Auzolana I esperientzia pilotuaren ezarpena

2017ko ekainaren 20an, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Auzolana proposamena aurkeztu zuen. Ekimen horrek asilo-eskatzailen harrera hobetzeko indartze-sistema osagarriaren proposamen bat zehazten eta garatzen du, eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin 2018ko urtarrilaren 15ean sinatu zen hitzarmenaren oinarria izan zen. Proposamenaren helburua izan da –eta da– EAEn errefuxiatuei ematen zaien harrera kuantitatiboa eta kualitatiboa hobetzea. Horretarako, esperientzia pilotu bat garatu da Amurrión, Galdakaon, Getxon, Laudion, Portugaleten, Tolosan eta Zarautzen, CEAR Euskadi, Gurutze Gorria eta MPDL erakundeekin koordinatuta, eta abian jarri zenetik 400 pertsona baino gehiago sartu dira programan.

Esperientzia horren bidez ikasitakoa abiapuntutzat hartuta, ondorioen eta gomendioen txosten bat egin da EAEko Harrera Eredu berri bati begira. Dokumentu hori tartean dauden alderdiekin kontrastatu da.

3. Babesletza komunitarioko Auzolana II programa pilotuaren ezarpena

2019ko ekainaren 20an, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zen ACNURen, Cáritas Euskadiren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jesuiten Plataformaren, Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Babesletza Komunitarioaren Programa pilotu bat ezartzeko EAEn.

Urte horretako martxoaren 26an jarri zen abian proiektu pilotu hori; Siriako 29 errefuxiatu heldu ziren EAE-ra eta Jordaniatik birfinkatu ziren. EAEra iritsi zirenean, boluntario lanetan zebiltzan tokiko bost taldek egin zieten harrera eta bost udalerritan kokatu zituzten: Bilbo, Arrigorriaga, Portugalete, Andoain eta Gasteiz.

Babes komunitarioa zera da: herritarrek, GKEek edo beste talde batzuek errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko prozesuetan beren burua antolatzea eta zuzenean inplikatzeko. Horrela, herritarrak elkartu egiten dira eta konpromisoa hartzen dute etxebizitza emateko eta laguntza ekonomikoa, emozionala eta soziala eskaintzeko aldi jakin batean (normalean urtebetez).

4. 14 eskaera humanitariori emandako erantzuna: guztira 3.100.000 euro

2017. eta 2019. urteen artean, Larrialdi Humanitarioko 14 eskaerari erantzun zaie, guztira 3.100.000 euroko aurrekontuarekin. Balkanetako ekimen humanitarioetarako laguntzak izan ziren nagusi, eta bakarrik dau-den edo igarotzen ari diren hurrekin lan egiteko proiektuak lehenetsi ziren. Finantzatuta zeuden proiektuak ACNUR, UNICEF eta Save the Children erakundeek garatu zituzten.

Urtero, halaber, Itsas Salbamendu Humanitarioa eta Zaporeak Euskadiko erakundeek Greziako Chios eta Lesbos uharteetan, hurrenez hurren, egindako lana ere babestu da.

2020an, berriz ere ari dira izapidetzen 5 erakunde horientzako laguntzak, baina laguntza berri bat gehitu da, Balkanetan igarotzen ari diren emakumeei arreta emateko Nazio Batuen Biztanleria Funtzarentzat.

5. Itsas Salbamendu Humanitarioa erakundearen Aita Mari Zubia - #Maydayterraneo izeneko proiektuari laguntzea

Bereziki garrantzitsua da Itsas Salbamendu Humanitarioaren Aita Mari Zubia - #Maydayterraneo proiektuari emandako laguntza. Izan ere, eman zitzaion laguntzari esker, "Aita Mari" itsasontzia (José María Zubia Cigarán itsasgizonaren omenez) erreskate-ontzia da orain. Hainbat hilabetez ontzia berritzen eta egokitzen egon ondoren, eta behar ziren baimen guztiak lortzeko kudeaketa administratibo ugari egin ondoren, 2019ko azaroaren 22an Aita Mari bere lehen misioa egin eta 78 pertsona erreskatatu ahal izan zituen.

Erreskate humanitarioak egiteaz gain, ontzia ospitaleko materialez hornituta dago, portuan dagoen bitartean osasun-laguntza eman ahal izateko.

6. Share Proposamenaren aurkezpena

2018ko irailaren 19an, "Eusko Jaurlaritzaren estrategia egokitzea migrazioaren erronka berrien aurrean erantzun integrala emateko" izenekoaren esparruan, aurkeztu zen "Share proposamena". Ekimenaren helburua da migratzaile mota desberdinei harrera egiteko eta haiek integratzeko ahaleginaren lurralde-banaketarako gako bat era transbertsalean adostea Europako eremuan. Proposamena Eskualdeetako Lantaldeari aurkeztu zitzaion (350 kideei bidali zitzaion), eta Euskadik parte hartzen duen Europako sareetan ere aurkeztu zen.

Lehendakariak autonomia-erkidegoetako Presidenteei bidali zien proposamena. Estatu aspiko gobernuek eta eskualdeetako gobernuek hiru bilera egin zituzten 2019. urtean: lehenengoa Bilbon, otsailaren 27an, eta beste biak Bruselan, apirilaren 2an eta abenduaren 4an.

2019ko abuztuaren 27an, Iñigo Urkullu lehendakariak Vatikanon aurkeztu zuen proposamena, eta oso harrera ona izan zuen. Estatu aspiko 10 gobernuen atxikipena eta konpromisoa ditu dagoeneko proposamenak.

7. Lehen harrera egiteko zentroak: Larraña Etxea eta Zuloaga Txiki

Legegintzaldi hasieratik, helburua beti izan da gure herri honetan harrera egiteko dauden plazak sendotzea eta pixkanaka gehitzen joatea. EAEn, 20 plaza zeuden 2015ean eta 547 izan dira 2019an.

Gainera, lehen harrera egiteko bi zentro ireki dira EAEn, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin:

·2018ko urrian Larraña Etxea ireki zen. Lehen harrera egiteko aterpetxe hau Oñatin dago, eta 100 pertsona inguru har ditzake. Zentroaren funtzionamendua finkatuta dago, batez beste 85 pertsonari egiten die harrera. 2019ko otsailaren 28an aurkeztu zen publikoki lehen aldiz.

·2019. urtean harrera zentro berri bat ireki zen Tolosan, Zuloaga Txiki izenekoa. 35 pertsona inguru har ditzake.

8. Migraziorako Euskal Itun Soziala

Migraziorako Euskal Itun Soziala izeneko dokumentua Eusko Jaurlaritzak sustatu du, gaur egungo migrazio-erronkari pluraltasunaren, elkartasunaren eta beharraren ikuspuntutik erantzuteko. “Jaso nahiko genukeena eskaintzea” da testuaren izena eta, guztira, 10 konpromiso jasotzen ditu “immigrazio erregularizatuari”, “erregularizatu gabekoari”, hainbat eragileren arteko “erantzukidetasunari”, “bidaiderik gabeko adingabe eta gazteei” edo bizikidetzaren kulturari lotuak, besteak beste.

Ituna 2018ko abenduaren 18an iragarri zuen Iñigo Urkullu lehendakariak –Migratzaileen Nazioarteko Egunean, hain zuzen–; aurkezpena, berriz, 2019ko azaroaren 30ean egin zuen lehendakariak, eta han izan ziren, lehendakariarekin batera, EAEko gizartearen hainbat erakunde eta antolakunde.

9. Kontingentzia-plana, EAEra iristen diren iragaitzazko migratzaileei laguntza humanitarioa emateko

2018ko udatik aurrera, EAEra iristen ziren iragaitzazko migratzaileen kopuruak gora egin zuenez, hainbat ekimen jarri ziren abian larrialdi humanitarioko egoera koordinatzeko eta egoera horri erantzuteko. 2018ko ekainean Koordinaziorako Erakundearteko Mahai Soziala sortu zen. Hasieran, Mahaia astero biltzen zen, lurralde-historiko bakoitzean bilera bat eginez. Baina urritik aurrera hilean bilera bat egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko osoan.

2019ko ekainaren 3an, Eusko Jaurlaritzak honako hau aurkeztu zuen: Kontingentzia-plana 2019, EAEra iristen diren iragaitzazko migratzaileei laguntza humanitarioa emateko. Edukia Gurutze Gorriarekin batera adostu zen, eta horren berri eman zitzairen hiru foru-aldundiei eta Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Irungo udalei.

Beste neurri batzuen artean, pertsona horiei lehenengo harrera egiteko aterpetxeak jarri dira martxan. Bilboko eta Irungo azpimarratu behar dira. 2020ko urtarrilaren 27an, harrera egiteko asmoz Irunen ireki den zentro berria aurkeztu zitzairen komunikabideei. 100 pertsona sartzen dira zentro horretan.

10. Nazioarteko eragina

2019. urtean, Share proposamena European bultzatzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzak bi mintegitan parte hartu du Auzolana I eta Auzolana II aurkezteko. Eskualdeetako Lantaldeak antolatu ditu biak. Abenduaren 17an eta 18an, babes komunitarioa duen proiektua aurkeztu genuen ACNURek Genevan antolatutako Global Refugee Forumean.

Halaber, Integrazioaren aldeko Eskualde eta Hirien Europako Sarearekin bat egin dugu, Eskualdeetako Lantaldea buru dela.

II.

Jarduera-ardatz bakoitzaren memoria

1. Proposamen-ardatza

Harrera-sistemak eraldatzeari eta hobetzeari zuzendutako proposamenak aurkeztean eta sustatzean oinarritzen da, Espainiako Gobernuari dagokionean batez ere.

Eusko Jaurlaritzak, gure lurraldean errefuxiatuak hartzeko prozesu osoan erabakitzeko eta esku hartzeko eskumenik ez duela jakitun, komunikazio- eta koordinazio-estrategia bati eutsi dio Espainiako Gobernuko Im-migrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiarekin (gaur egungo Migrazio Estatu Idazkaritzarekin).

Koordinazio hori sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak hainbat lan-proposamen aurkeztu ditu, eta horietako batzuk esperientzia pilotuak garatzeko lankidetzak-hitzarmen bilakatu dira:

Auzolana proposamenaren garapena

·Auzolana Errefortzu Sistema Osagarriko Proposamen bat da, EAEn nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera hobetzeko. Hasieran, helburu nagusietako bat zen kuantitatiboki eta kualita-tiboki handitzea EAEk harrerarako daukan ahalmena, eta horrela, birkokatzeko (Greziatik eta Italiatik datozen asilo-eskatzailak) eta birfinkatzeko (Europar Batasunaz kanpotik datozen asilo-eskatzailak, nagusiki Turkiatik eta Libanotik heldutakoak) arloetan Espainiak Europar Batasunarekin hartuta zituen konpromisoak betetzen laguntzeko.

·Eusko Jaurlaritzaren iritziz, errefuxiatuen krisi humanitarioari hobeto erantzuteko gakoetako bat ohiko sistema errefortzu sistema osagarri batekin osatzea da. Sistema horretan, autonomia-erkidegoek zere-gin zuzena izango dute harrera- eta integrazio-prozesuak bideratzeko. Auzolana izeneko sistema osa-garri horren arabera, behetik gora eraikitako erantzun-azpiegitura bat artikulatu behar da, udalak, aldun-diak eta autonomia-erkidegoak Espainiako Gobernuarekin lankidetzan arituta. Era berean, funtsezko zeregina dute harreraren kudeaketaz arduratzen diren gizarte-erakundeek, laguntza-lanetan dabil-tzan tokiko boluntariotzako erakundeek eta harrera-sistemaren azken faseetan –baita geroago ere– jarrai-pen- eta integrazio-lana egiten duten erakundeek.

·Eusko Jaurlaritzak 2017ko urtarrilaren 25ean aurkeztu zion proposamena Espainiako Gobernuari.

·2017ko apirilaren 11n, Espainiako Gobernuko Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiari aditzera eman zion aipatutako proposamenaren aukerak aztertze asmoa zuela –lehenengo esperientzia pilotu bat garatuta horretarako–, eta esperientzia hori aurrera eraman zitekeela 50 errefuxiatuko talde bat birkokatuta.

·2018ko urtarrilaren 15ean sinatu zen honako lankidetzak-hitzarmen hau: Eusko Jaurlaritzako Giza Esku-bideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Migrazioen Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetzak-hitzarmena, nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen harrera eta integrazioarako ezarritako prozeduretan jarduketan koordinazioa bermatzeko.

·Programa, hasiera batean, 7 udalerritan garatu zen: Amurrio, Galdakao, Getxo, Laudio, Portugalete, Tolosa eta Zarautz. Udalerrri bakoitzak titulartasun sozialeko 2 etxebizitza laga ditu esperientziarako, Harrera eta Integrazio Sistema kudeatzen duten erakunde bidez; kasu honetan, CEAR, Gurutze Go-rria eta MPDL (Bakea, Armagabetzea eta Askatasunaren aldeko Mugimendua).

·Auzolana programa hasi zenetik, 401 pertsona pasatu dira (101 bizikidetzak-unitate) 7 udalerrietatik; horietatik 109 pertsonak,% 27k, lehen fasean lanean hasi baino lehen utzi dute programa, lehenengo asteetan zehar. 112 pertsona pasatu dira bigarren fasera (31 bizikidetzak-unitate) eta 25 pertsona hiru-garren fasera (7 bizikidetzak-unitate). 6 bizikidetzak-unitatek autonomia lortu dute, lana lortu dutelako.

·Auzolana esperientziari lotutako ondorioen txostenaren zirriborroa Erakundearteko Mahai Sozialaren bileran aurkeztu zen, Gasteizen, 2020ko otsailaren 12an, eta esperientzian parte hartzen duten eragile nagusiekin kontrastatu da.

EAEra heltzeko bide seguruen proposamena. Korridore humanitarioak

- 2017ko urtarilaren 12an eta 13an, Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat, lehendakaria buru zela, Erromara joan zen Korridore humanitarioen esperientzia ezagutzeko. San Egidio komunitateak bultzatu zituen korridore horiek Italian.
- 2017ko urtarilaren 25ean proposamen bat aurkeztu zitzaion Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa zenari, Euskadin korridore humanitario bat irekitzeko, esperientzia pilotu gisa.
- Behin baino gehiagotan aurkeztu zaie proposamen hori azken hiru urteetako Gobernu zentralaren taldeei, baina ez da lortu abian jartzeko erantzun positiborik.

Babes komunitarioko Auzolana II esperientzia pilotuaren garapena

- Babes komunitarioko esperientzia pilotu bat da Auzolana II. EAEn ari da ezartzen Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, Espainiako Gobernuarekin, ACNURekin, Caritas Euskadirekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jesuiten Plataformarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmen baten esparruan.
- Babes komunitarioa zera da: herritarrek, GKEek edo beste talde batzuek errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko prozesuetan beren burua antolatzea eta zuzenean inplikatzeko. Horrela, herritarrak elkartu egiten dira eta konpromisoa hartzen dute etxebizitza emateko eta laguntza ekonomikoa, emozionala eta soziala eskaintzeko aldi jakin batean (normalean urtebetez).
- 2019ko ekainaren 20an sinatu zen babes komunitarioko esperientzia pilotua EAEn sustatzeko hitzarmena, eta honako hauek izan zituen partaide: Espainiako Gobernua, ACNUR, Caritas Euskadi, Euskal Autonomia Erkidegoko Jesuiten Plataforma eta Eusko Jaurlaritza.
- ACNURek eta GRSIk bultzatutako proposamena Eusko Jaurlaritzak aurkeztu du Europako eta nazioarteko hainbat forotan, hala nola Global Refugee Forumean, Genevan, 2019ko abenduaren 17an eta 18an.
- Proiektu pilotua 2019ko martxoaren 26an jarri zen martxan, 29 errefuxiatu (bost familia, eta horien artean 16 adingabeko) EAera iritsi zirenean. Denak izan ziren Siriakoak baina Jordaniatik etorri ziren (birfinkatzea). EAera iristean, boluntarioen bost taldek (hitzarmenean "babes komunitarioko tokiko taldeak" deitzen direnak) egin zieten harrera, eta bost udalerritan ezarri zituzten: Bilbo, Arrigorriaga, Portugalete, Andoain eta Gasteiz.

2. Ardatz berritzailea

Harrera- eta gizarteratze-arloan EAEko erakundeen eta gizarte-entitateen eskumenen barruan dauden eremuetan eta gaian dagoen guztia eraberritzeko eta hobetzeko xedea dauka.

- Kuantitatiboki, nahiz eta plazak sortzea Espainiako Gobernuak gaitzen dituen bideen mende egon, EAEn harrera-plazak finkatzea eta pixkanaka gehitzea izan da helburua. EAEn, 100 babes-eskara izan genituen 2014an, eta 2019ko abuztuan 3.185. Harrera-plazaren kopuruari dagokionez, 2015ean 20 plaza zeuden eta 2019an 547.
- Harrerako gizarte-erakundeen lankidetzari esker, aldizka jarraipena egin zaie plaza-kopuruari, kokapenari eta egoerari.
- Gainera, azken bi urteetan hiru harrera-zentro ireki dira EAEn, eta horietako bi Eusko Jaurlaritzak eta Gobernu zentralak finantzatu dituzte:
 - 2018ko urrian Larraña Etxea ireki zen. Lehen harrera egiteko aterpetxe hau Oñatin dago, eta 100 pertsona inguru har ditzake. Zentroaren funtzionamendua finkatuta dago, batez beste 85 pertsonari egiten die harrera. 2019ko otsailaren 28an aurkeztu zen publikoki lehen aldiz.
 - 2019. urtean harrera zentro berri bat ireki zen Tolosan, Zuloaga Txiki izeneko. 35 pertsona inguru har ditzake.

·EAEen errefuxiatuen harrera eta integrazioa hobetzeko beste funtsezko ahalegin bat sailen arteko koordinazioa indartzea izan da; jardunbide egokiak identifikatu eta errepikatu dira, eta osasuneko, hezkuntzako, etxebizitzako eta gizarteratzeko oinarritzko zerbitzuen koherentzia eta osagarritasuna bermatu da, harrerarako eta integrazioarako euskal eredu berri bati begira. Horretarako, Hezkuntza, Osasun, Segurtasun eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailekin koordinatuta lan egin da. Hauek nabarmendu behar dira:

-DSBEa erreformatzeko ekimenen jarraipena egitea, errefuxiatuentzako eta nazioarteko babesa eskatzen dutenentzako errolatze-eskakizunaren eta dokumentazioaren aldaketa bat sar dezaten.

-Etxebizitzari buruzko Legearen arau-garapenaren jarraipena, aurrekoaren helburu berarekin.

-Hezkuntza Sailarekin koordinatuta lan egiten jarraitu da, batez ere HHE-en egoerari heltzeko (HHE-etan eman beharreko curriculumari buruzko dekretu berria izapidetzen ari da).

-Lankidetzaren hitzarmena EHUarekin eta Hezkuntza Sailarekin, EAEen dauden nazioarteko babesaren eskatzaileei unibertsitate-ikasketak egiten laguntzeko.

-“Giza eskubideetan kalteberatasun handiko egoerak hautemateko Sailarteko Lantaldea” eratu zen 2018ko ekainaren 28an, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020 Planaren aurreikusi bezala.

-Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak sustatutako 2018-2020 aldirako Herritarren, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren Eremuan Jarduteko Plan berriaren onarpenaren eta inplementazioaren jarraipena egitea.

·Koordinazioa handia izan da arlo horretan eskumena duen Espainiako Gobernuak Ministerioarekin ere. Koordinazio- eta lan-bilera askotan parte hartu dugu MINTRAMISekin, gaur egun Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa denarekin. Bilera horietako batzuk gainerako autonomia-erkidegoekin batera egin dira, eta beste batzuk aldebikoak izan dira. 2019. urtean 4 bileratan parte hartu genuen (otsailaren 15ean, martxoaren 21ean, irailaren 4an eta urriaren 29an).

·Ardatz honetako beste funtsezko faktore bat EAEen harreraren parte hartzen duten eragilearen prestakuntza-beharra da. Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta IVAPekin lankidetzan, hiru prestakuntza-ikastaro antolatu ditu udal-tekni-karientzat, bat lurralde-historiko bakoitzean, “Asiloa, aterpea eta nazioarteko babesa” gaitzat hartuta.

·EAEko errefuxiatuen harreraren eta integrazioaren funtsezko eragileetako bat herritarrek dira, hainbat plataforma edo boluntario-taldetan antolatuta. Horregatik, aldian-aldian hainbat plataformarekin harremanetan egon gara, eta udalerriri batzuetan boluntariotzan laguntzeko esperientzietan sakondu dugu. Halaber, mentoring sozialeko ekimenak babestu dira.

·Iragaitzazko pertsonen fenomenoari eman beharreko erantzuna hobeto antolatzeko, 2019ko ekainaren 3an, Eusko Jaurlaritzak honako hau aurkeztu zuen: Kontingentzia-plana 2019, EAEa iristen diren iragaitzazko migratzaileei laguntza humanitarioa emateko. Edukia Gurutze Gorriarekin batera adostu zen, eta horren berri eman zitzaion hiru foru-aldundiei eta Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Irungo udalei. Plan hau koordinatzea Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumena da, baina horrek Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzaren lankidetzaren estua du.

3. Ekintza humanitarioaren ardatza

Une bakoitzean eta nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonen jasaten dituzten bidegabekerien aurrean inplikazio humanitarioa behar duten egoerekin konpromiso proaktiboa edukitzea.

·Eusko Jaurlaritza bezalako gobernu baten baliabideak, eskumenak eta gaitasunak kontuan hartuta, konpromiso hori proiektu humanitarioetarako laguntzetan islatu da, eta Nazio Batuen Agentzien eta Europako mugen barruan migratzaileekin eta errefuxiatuekin lan humanitarioa egiten ari diren EAEko edo nazioarteko erakundeekin deiei erantzun zaie.

·Laguntza-premia handiaren aurrean erantzuteko gaitasuna mugatua denez, erakundeekin koordina-

tuta, esku-hartzeen lehentasun geografikoa egin da. Balkanetako eskualdean ekimen humanitarioei emandako laguntzetan ezarri lehentasuna, bereziki erreparatuta bidaiderik gabeko adingabeei edo igarobidean dauden adingabe migratzaileei edo errefuxiatuei. 2018ko azaroan misio bat egin zen Balkanetan, Save The Children erakundeak gonbidatuta.

·Itsas Salbamendu Humanitarioaren aldeko dirulaguntza onartu da, Aita Mari, #Maydayterraneo ize-neko proiektua gauzatu ahal izateko. Zehazki, honako hauentzako laguntza eman da: errefuxiatuen itsasoko erreskateak laguntzeko, atunontzi bat erreskate-ontzi bilakatzeko eta portuan dauden bitartean osasun-laguntza emateko. Era berean, erakunde horri lagundu zaio, bai erreskate-lanak egiteko behar diren baimenak lortzen, bai portu segurua, lehorreratzea eta abar lortzeko prozesu osoa egiten (2019ko azaroaren 21eko eta 2020ko otsailaren 9ko erreskateen ondoren).

·Zaporeak erakundeari lagundu zaio, Greziako Lesbos uhartean dagoen Moirako errefuxiatu-esparruan egiten duen lanarekin.

·2020ko urtarrilean misio bat egin zen Greziara, Migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideen defentsarako Eusko Legebiltzarraren taldeartekoarekin batera. Bidaia horretan, hainbat proiektu bisitatu ziren Atenasen, Aita Mari itsasontzian eta Vialeko errefuxiatuen eremuan, Chios uhartean.

·Bestalde, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, 2018-2023 aldirako Ekintza Humanitarioko Estrategia berria onartu du. Laguntza gehienak bakarrik dauden edo igarotzen ari diren errefuxiatuekin edo adingabeekin egindako proiektuetara bideratu ditu.

Honako proiektu hauek finantzatu dira:

Erakundea	Proiektua	EJren finantzaketa
2017		
ACNUR	Europarako errefuxiatuei eta migratzaileei laguntzeko eskualdeko plana 2017	150.000
SMH	#MAYDAYTERRANEO 2017 (Aita Mari Zubia)	150.000
UNICEF BULGARIA	Unicefi laguntzea, Bulgariako errefuxiatuen zentroetan bizi diren bidaiderik gabeko haurrak babesteko	200.000
SAVE THE CHILDREN	Errefuxiatuei laguntzea Save the Children	200.000
2018		
ACNUR	Siriako errefuxiatuak Libanon babestea eta haiei laguntza ematea	200.000
UNICEF	UNICEFek errefuxiatuen eta migratzaileen Serbiako krisiari erantzutea	200.000
ITSAS SALBAMENDU HUMANITARIOA (SMH)	#MAYDAYTERRANEO 2018 (Aita Mari Zubia)	400.000
SAVE THE CHILDREN	Balkanetako haur migratzaileak babestea	300.000
ZAPOREAK	Greziako errefuxiatuentzako jantokiak, 2018	150.000
2019		
ACNUR	Balkanetara mugitutako pertsonen laguntzea: Bosnia-Herzegovina	150.000
UNICEF	Errefuxiatuek eta migratzaileek Bosnia-Herzegovinan bizi duten krisiari erantzuteko proiektua	200.000
ITSAS SALBAMENDU HUMANITARIOA (SMH)	Aita Mari Zubia #Maydayterraneo 2019 proiektua	350.000
SAVE THE CHILDREN	Balkanetako haur migratzaileak babestea	300.000
ZAPOREAK	Greziako errefuxiatuentzako jantokien proiektua	150.000

4. Prebentziozko ekintzaren ardatza

Bake-, justizia- eta berdintasun-premia handiena duten herrialdeetan jardungo duten proiektuak babestea eta garatzea da xedea, prebentziozko erantzun eraldatzaileen bidez eta zuzeneko laguntza eta lankidetzarako politiken bidez.

·Esku-hartze humanitarioa osatzeko, prebentziozko ekintza egon behar da, esku-hartzea ez dadin mugatu egoera arintzera bakarrik. Hau da, lekualdaketa bortxatuak eragiten dituzten kausen gainean jardungo duen ekintza integral eta eraldatzailea ere behar da. Oso apal bada ere, ekintza-ardatz honen esparruan babestutako ekintzak “Mediterraneoko krisia” izenekoak eragindako eskualdeen bake, justizia eta berdintasun beharretan oinarritu dira.

·Bi ekimen bultzatu dira, bat Iraken eta bestea Libian; 200.000 euro guztira, 100.000 euro 2018. urtean eta beste 100.000 euro 2019an, gatazken prebentziorako eta konponbidearen arloan, indarkeria armatua eta indarkeriak herrialde horietan eragiten dituen ondorio humanitarioak murrizteko. DAG Dialogue Advisory Group-ek kudeatu ditu laguntza horiek. Erakunde independente horrek elkarriketa politikoa errazten du, egoera bereziki gatazkatsuetan indarkeria murrizteko.

·Bestalde, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia arlo horretako hainbat proiektu laguntzen ari da, bai hitzarmenen bidez, bai lankidetzaproiektuetarako edo ekintza humanitarioetarako dirulaguntzen bidez.

5. Jarrera-ardatza

Bi eremutan banatzen da: nazioartekoan, Eusko Jaurlaritza Europako eta nazioarteko instantzietan entzunaraziz, eta barne-mailakoan, bizikidetzakultura irekia sustatuz gure gizartean.

·Argi dago zer-nolako jarrera duen Eusko Jaurlaritzak Mediterraneoan errefuxiatutako pertsonen jasaten duten krisi humanitarioaren aurrean; izan ere, bizi den errealitateari begiratze, hura aztertze eta horren aurrean jarduteko modu bat erakusten du jarrera horrek.

·Barne-mailako eremuan, desberdinen arteko bizikidetzak integratzailea sustatzeari bideratutako programak sustatzean islatzen da jarrera-ardatza. Giza eskubideetan eta elkartasunaren balio demokratikoan heztean oinarritzen da bizikidetzak hori, errefuxiatuak harreran hartzei eta gizarteratzeari dagokionean. Nazioarteko eremuan, EAEko erakundeek eragin dezaketen Europako edo nazioarteko instantzietan Eusko Jaurlaritzaren ahotsa eta proposamenak entzunaraziz garatzen da. Urtero ebaluatuko eta eguneratuko dira bi garapen-ildo horiek.

Barne-eragina duten ekintza nagusiak

2017. urtea

·2016ko abenduaren 12an, René Cassin 2016 Saria eman zitzaion Itsas Salbamendu Humanitarioa eta Zaporeak erakundeei.

·Otsailaren 2an, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioarekin baterako lan-proposamen bi aurkeztu ziren jendaurrean, biak EAEko errefuxiatuen harrera eta integrazioa hobetzeari buruzkoak.

·Apirilaren 3an, Lehendakariaren Adierazpen instituzionala, Europan bizi den krisi humanitarioari buruz: “Konpromisoa eskatu eta eskaintzen dugu”. Aurrekaririk ez duen adostasun-ekintza izan zen. Lehendakariarekin batera egon ziren talde politiko guztiak, EAEko erakunde nagusiak eta hainbat gizarte-erakunde.

·Ekainaren 20an, Auzolana proposamenaren aurkezpen publikoa.

·Uztailaren 5ean “Eusko Jaurlaritzaren Esparru Dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakundeen artekoa eta sailen arte-

koa modu partekatuan orientatzeko” dokumentuaren aurkezpen publikoa.

·Hainbat jardunaldi, foro eta sentsibilizazio-ekintzatan parte hartu da:

-“#Derechos Refugiados 11 vidas en 11 maletas” erakusketa.

-Gernika Gogoratuz-en XXVII. nazioarteko jardunaldiak, “Muga, itzalak eta edertasuna”, apirilaren 27-28an.

-“Ongi Etorri Gernika” ekimena, errefuxiatuen aldekoa, apirilaren 29an.

-Nazioarteko hitzaldia: “Espainiako errefuxiatuen integrazioa”. Iheslariantzako Nazio Batuen goi-komisarioak (ACNUR) eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak antolatuta, ekainaren 14an Madrilen.

-Bilbao-Refugio lasterketa, errefuxiatuei elkartasuna adierazteko, ekainaren 25ean.

-Save the Children erakundearen jardunaldia: “Haur migratzaileen ahotsa. Elkarrizketa - Haien eskubideak defendatzeko eta Europan hartzeko erronkak”, irailaren 21ean.

-Zinexit Topaketak 2017, “Mediterranea” filmaren emanaldia eta, gero, eztabaida giza eskubideak defendatzen dituen Leila Nachawati-rekin, urriaren 10ean.

-Bizikidetzarako 8. Zinema Erakustaldia antolatu zen, Zinexit 2017, errefuxiatuen eta migratzaileen egoerari buruz, azaroaren 6tik 9ra.

-Errefuxiatuen aldeko euskal elkartasunari buruzko “ZUK” dokumentala diruz lagundu eta zabaldu zen.

2018. urtea

·Otsailaren 5ean, 2017. urteko memoria eta 2018rako helburuak aurkeztu ziren.

·Otsailaren 8an, jardunaldi honetan parte hartu zen: Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen (Espainia) kontsultak, migrazio seguru, erregular eta ordenaturako nazioarteko itunari buruzkoak.

·Apirilaren 12an, “Gizarteratu gabe harrera egitea” ikerketari buruzko jardunaldian parte hartuko zen Deustuko Unibertsitatean.

·Ekainaren 7an, prentsaurrekoa egin zen, Itsas Salbamendu Humanitarioarekin batera, “Maydayterra-neo” proiektua aurkezteko.

·Ekainaren 10ean, Jesusen Konpainiak sustatutako “Abegi onaren bideak” ekimenean parte hartu zen.

·Ekainaren 23an, CEAR-Euskadik antolatutako Bilbao Refugio lasterketa solidarioan parte hartu zen.

·Azaroaren 29an, babes komunitarioaren esperientzia bat garatzeko akordioa aurkeztu zen.

·Abenduaren 13an eta 14an, Tratu-berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko I. Euskal Kongresuan parte hartu genuen.

2019. urtea

·Otsailaren 14an, 2018. urteko memoria eta 2019rako helburuak aurkeztu ziren.

·Otsailaren 21ean, “Eskola Munduan” modulu didaktikoa aurkeztu zen, Giza Eskubideen aldeko Balia-bide Pedagogikoen Nazioarteko I. Mintegian.

·Larraña Etxearen aurkezpen publikoa egin zen, otsailaren 28an.

·Martxoaren 5ean, CIDOBek antolatutako “Espainia harreraren eta integrazioaren lehen lerroan dago?” mintegian parte hartu zen, Madrilen.

·Ekainaren 2an, CEAR Euskadik antolatutako Bilbao Refugio lasterketa solidarioan parte hartu zen.

·Ekainaren 3an, 2019ko Kontingentzia-plana aurkeztu zen. Plan hori EAera iristen diren iragaitzazko migratzaileei arreta emateko prestatu zen.

·Ekainaren 7an, Ikuspegik antolatutako “Aterpea eta asiloa Europan eta Euskadin” jardunaldian parte hartu zen.

·Irailaren 16an, Gurutze Gorriak antolatutako “Orain hemen daudela, hurbilago behar zaituzte” biltza-

rrean parte hartu zen.

·Azaroaren 28an, Ane Irazabalen “AWLAD – Hesiak gainditu” dokumentala aurkeztu eta estreinatu zen, X. Zinexit-aren barruan.

·Azaroaren 30ean, Migrazioarako Euskal Itun Soziala aurkeztu zen.

Nazioartean eragina duten ekintza nagusiak

2017. urtea

·Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariaren hitzaldia, 2017ko martxoaren 10ean Maltan egin zen Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako (IEPK) Migrazioari buruzko 8. saioan. Errefuxiatuak hartzeari lotuta Eusko Jaurlaritza egiten ari zen lana azaldu zuen hitzaldi horretan.

·Task Force on Migration Management elkarrekin lankidetzan aritzea, Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzian (IEPK), immigrazioaren eta errefuxiatuen harreraren arloan helarazi dizkigun galdetegi erantzunez.

2018. urtea

·Apirilaren 20an, Europa hegoaldeko ACNUReko ordezkariarekin bildu zen lehendakaria. Gero, lan-bilera egin zuten bazkaritan.

·Maiatzaren 9an eta 10ean, babes komunitarioari buruzko mintegi batean parte hartu zuen. Mintegia Londresen egin zen, Kanadako GRSIk eta Barne Arazoetako Ministerio britainiarrak antolatuta.

·Ekainaren 25ean eta 26an, birfinkatzeari buruz urtero egiten diren hirutariko kontsultetan parte hartu zen. Kontsulta horiek ACNURek eta Suitzako Barne Ministerioak antolatu zituzten, eta Genevan egin ziren.

·Urriaren 10ean SHARE proposamena aurkeztu zen Eskualdeetako Lantaldean. Proposamena Lantaldeko 350 kideei bidali zitzaion.

·Urriaren 24an, lehendakariak SHARE proposamena bidali zien autonomia-erkidego guztietako presidenteei eta Communauté Pays Basqueko presidenteari.

2019. urtea

·Otsailaren 14an, GRSIk eta ACNUReko arduradunek Euskadi bisitatu zuten.

·SHARE ekimenari lotuta hiru bilera egin ziren autonomia-erkidegoekin eta Europako eskualde-gobernuekin: bata Bilbon, otsailaren 27an, eta beste biak Bruselan apirilaren 2an eta abenduaren 4an.

·Maiatzaren 6an, SHARE ekimenari lotuta egindako aurrerapenen aurkezpen publikoa egin zen.

·Ekainaren 25ean, integrazioari buruzko mintegi batean parte hartu zen, Bruselan. Eskualdeetako Lantaldeak antolatu zuen mintegia.

·Abuztuaren 28an, SHARE ekimena aurkeztu zuen lehendakariak Vatikanon.

·Urriaren 21ean eta 22an, “Share Network Conference: Expanding Resettlement across Europe” delakoan parte hartu zen. Bruselan egin zen.

·ACNURen Global Refugee Forum-ean parte hartu zen. Abenduaren 17an eta 18an egin zen, Genevan.

·Euskal Autonomia Erkidegoak Integrazioaren aldeko Eskualde eta Hirien Europako Sarearekin bat egin zuen. Europako Eskualdeetako Lantaldea izan zen buru.

·Euskal Autonomia Erkidegoak kulturarteko eskualdeen sarearekin bat egin zuen. Eskualdeetako Batzarra eta Kataluniako Generalitatea izan ziren buru.

·2020ko urtarrilaren 30ean, “Share QSN, Quality Sponsorship Network” proiektua aurkeztu zen FAMI Europako Batzordearen Asilo, Migrazio eta Integrazio Funtsaren deialdiaren barruan. Proiektuaren buru egiten duena ICMC Europe, Internacional Catholic Migration Commission da, Belgikako Nazioarteko Caritasekin, Alemaniako Caritasekin, Italiako Consorzio Comunitasekin eta Eusko Jaurlaritzarekin patzuergoan.

